

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Hondatze Kognitibo Arinaren detekzio goiztiarrerako Hizketa Ezagutza Automatikoan oinarrituriko ekarpenak

Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritzan Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua

Unai Martínez de Lizarduy Stürtze

Zuzendaria

Miren Karmele López de Ipiña Peña

Donostia, 2017

*Markel, Irati, Marta,
Ekain, Ama eta Aitari.*

Maite zaituztet.

Esker onak

Esker onekin hasi aurretik, ikerketarako baldintza kaxkarrak direla bide emigratu behar izan dutenak eta ikerkuntzan ibili arren ozta-ozta aitorpena jasotzen duten “Marie Curie ezezagun” guztiak gogora ekarri nahi nituzke.

Ezagutzen nauenak badaki nire esker ona berari zuzendua doala. Dena den, barren-barrenetik sortzen zaizkidanak hitzez adierazten saiatuko naiz:

Alzheimer gaitzak jota amesten jarraitzen duzuen guztioi eta beren senitartekoei.

Karmele, nire tesi zuzendaria, ikerketaren munduan murgiltzen laguntzeagatik baina batez ere alor pertsonalean beti erakusten duen hurbiltasunagatik.

Lan honi urtetan zehar zimenduak jarri dizkiozuen guztioi: Jirí, Pedro, Marcos, Jordi, Pili, Nora, Aitzol, Victoria, Suni, Carlos ...

CITA-Alzheimer-eko langileei, bereziki, Maite San Sebastián, Miriam Ecay, Pablo Martínez-Lage eta Ainara Estangari. BIODONOSTIAko Alberto Bergarecheri eta Mataró Hospitaleko Pilar Sanz, Pere Clavé eta Weslania Nascimentori. AFAGI Elkarteari.

Nire kuadrilari. Doktore izateko asmoa nuela eta adarra jotzen zidaten horiei. Badakizuen arren, zuentzako ere badut txokoa nire bihotzean. Ezin liteke beste modura izan.

Baldintzarik gabeko lagunei: Bilbotar, Azkoitiar eta Alztatarrari. Beti lagun.

Iñaki lagun fin, zintzo eta eskuzabalari.

Aupa Brother! Nire anaitxo txikia. Beti anaia txikia izango zara niretzat. Sikologo eta lagun fina, beti iparra ez galtzeko gomendioak ematen, animoak ematen. Bizi izan ditudan hilabete gogorrak oso ondo ezagutzen dituena. Niretzat, nahiz eta urrun bizi, erreferentea.

“Gran maestro”-ari, nire aholkulari zientifikoari. Inoiz ezagutu dudan pertsona xumeenari eta zientziaren mundua hurbildik ezagutzeko gogoa kutsatu zidanari. Zuri aita. Krak bat haiz!

Amatxooo kuttuna! 30 urterekin Ingeniaritza ikasteko asmoa nuela esan nuenean itsu-itsu aurrera egiteko bultzada handiena eman zidanari. Honaino iritsi gara ama, elkarrekin. Zu gabe ezinezkoa zatekeen bidea, badakizu.

Nire bidelagunari. Marta, hitzak soberan daude. Maratoiaren lehen etapa bukatzena nihoa eta zure arnasa nahitaezkoa izan da. Zure konplizitatearekin dena errazagoa da. Mila esker elkarrekin sortu eta hezten ari garen txiki zoragarriengatik.

Irati eta Markel, ez dago zuengandik sentitzen dudana deskribatu dezakeen hitzik. Nire bizi poza zarete!

Iratitxo, azkenean “liburu potoloa” bukatu dut! Agindu bezala elkarrekin koloreztatuko dugu.

Atatatata! Jadanik hitz egiten hasi zara Markeltxo! Zu ere liburua kolorezko ametsez tindatzeko prest?

Zuei.

Laburpena

Alzheimerren Gaitzak edo Alzheimer's Disease (AD) eragin lazgarria izan lezake epe luzean gizartean eta horri aurre egiteko diagnostiko goiztiarra eta zehatza lagungarri izan liteke. Hala ere, diagnostikatzeko biomarkatzaile berrieik dakartzaten kostuek eta behar teknologikoek ezinezko bihurtzen dute oroimen-arazoak dituzten paziente guztiei testak egitea. Hortaz, aurretiko bahetze optimoa funtsezkoa da eta diagnostikatzeko teknika adimendu ez-inbasiboak ere oso tresna baliagarriak izan daitezke hautemate goiztiarra egiteko. Hori dela eta, biomarkatzaile garesti eta teknika inbasiboen aurrean, alternatiba erabilerrazak izango diren sistema merke eta ez-inbasiboak garatzea da. Ibilbidea luzea da eta lan honek horren aldeko ekarprena izatea duen helburu.

Gaixotasunaren lehen fasean Narriadura Kognitibo Arina edo Mild Cognitive Impairment (MCI) delakoa ager daiteke, baina ez da behar adina larria eguneroko bizitza edo gaitasun independenteak eragozteko. Galera horrek Alzheimer Gaitza garatzeko arriskua areagotu dezake, eta gaur egun, garaiz detektatzea da espezialista medikuen erronketako bat, diagnostiko goiztiar batek gaitzari aurre egiteko neurriak hartzea ahalbidetu eta pazienteen bizimodua hobe baitezake. MCI-ren bereizgarrietako bat eta adierazle goiztiarrena oroimen episodikoaren eta hizketaren nahasmenduak dira. Hortaz, MCI dutenen ahots-seinaleen ikerketak jarraitu beharreko bidea zein den erakuts diezaguke AD garaiz detektatzeko.

MCI-k apurtuta dauden mezuetara eramatzen gaitu, disfluentzieta alegia. Hizkera jariakor batean gertatzen den edozein etendura, irregularitasun edo elementu ez-lexiko dira disfluentziak, eta hizketa eten dezakete. Disfluentzia horiek handitzen joatea narriadura kognitiboaren seinale argia izan daiteke eta neuroendekapenezko gaixotasunetan pairatutako narriadura kognitiboa neurtu eta kuantifikatzeko balio dezakete.

Alzheimerdun gaixoengan, mintzamena ez ezik, erantzun emozionala ere kaltetu egiten da. Emozioak giza gogoaren arkitekturarekin zerikusia dituzten prozesu kognitiboak dira, eta erabakiak hartzearrekin eta oroimenaren kudeaketa edota arretarekin zerikusia dute, eta aldi berean ere, horiek hertsiki lotuta dauden komunikazioarekin. Hortaz, erantzun eta kudeaketa emozionalak ere badira gaitzaren hasierako fase horietan nahasten diren beste komunikazio-elementu batzuk, eta disfluentzia bezala, emozio-erantzuna narriadura kognitiboa neurtzeko adierazlea izan daiteke.

Hortaz, zenbait atazaren bidez sortutako ahots-laginen azterketak direla medio, disfluentzia eta emozio-erantzuna jaso daitezke. Hizkuntzarekiko independenteak diren parametroak bildu eta horien hizketaren nahasmenduak ezaugarritu badaitezke, ekarprena lagungarria izan daiteke diagnostikoa egingo duten espezialistentzat.

Lehengaiak ahots-laginak direnez, ingurune kliniko zein etxeko ingurunean egindako atazen bidez grabazioak egin eta datu-baseak osatu dira, osasun-guneen

irizpide etikoak kontuan hartuta eta. Datu-base horien ikerketaren bidez, galera kognitiboaren garapena neurtu, kuantifikatu, balioztatu eta sailkatu nahi da. Gaitzaren etapa desberdinak hautematen laguntzeko ekarpena egin nahi da, eta horretarako, hizkuntzarekiko independenteak diren parametroen azterketa automatikorako teknika eta metodologiak garatu dira. Mintzamen automatikoaren analisian oinarritutako multi-hurbilketa ez-lineala egin da, zeinak hizketa-analisia erabiltzen diren denbora-serieen konplexutasunaren neurte kuantitatiboa eman diezaguke.

Bestalde, ezaugarrien hautaketa automatikoa burutu da, eta test estatistiko klasikoak ikasketa automatikoko ereduekin konbinatu dira. Sistema denbora erreala bideratua dago eta Deep Learning metodologiak ikasketa automatikoko metodologiekin integratzen dira. Lortutako soluzioek Ingeniaritza Biomedikuaren oso ohikoak diren eszenatokietan aplikazio zuzena dute. Big Data eta datu konplexu eskaseko kasuetan aplika daiteke.

Azpimarratzeko da, espezialistentzako euskarri bezala, inguru erreala eta konplexuetan zenbait ataza web bidez egitea erraztu eta ahots-laginen ezaugarritze, hautaketa zein sailkapena egiten duen teknologia merke, naturala, unibertsala, ez-inbasiboa eta zifratua garatu dela. Beti ere aurre-screening erabilgarria aurkitzearen alde. Garatutako metodologiak erabilera orokorreko metodologiak dira eta beraz beste gaitza kognitiboetara aplika daitezke, haien artean, oinarrizko dardara eta Parkinson gaitzera.

Introducción

La enfermedad de Alzheimer o Alzheimer Disease (AD) puede acarrear un fuerte coste a largo plazo en la sociedad y para enfrentarse a ello, un diagnóstico precoz y preciso podría ser de gran ayuda. Sin embargo, los nuevos biomarcadores de diagnóstico requieren unos gastos y exigencias tecnológicas que imposibilitan su aplicación a todos los supuestos pacientes. Por esa razón, un pre-screening es fundamental y las técnicas de diagnóstico no invasivas pueden resultar también ser una herramienta de gran eficacia para el diagnóstico precoz. Como consecuencia, frente a los biomarcadores de alto coste y a las técnicas invasivas, la alternativa puede ser el desarrollo de sistemas de bajo coste y no invasivos de fácil utilización. El camino a recorrer es largo y avanzar en el mismo es el objetivo de esta investigación.

En la primera fase de la enfermedad puede darse un deterioro cognitivo leve o Mild Cognitive Impairment (MCI), que no tiene la suficiente entidad como para impedir el desarrollo de la actividad diaria normal. Sin embargo, ese deterioro puede incrementar el riesgo de desarrollar la enfermedad de Alzheimer y, hoy en día, el diagnóstico precoz es uno de los mayores retos médicos, porque un diagnóstico precoz puede permitir tomar medidas para hacer frente a la enfermedad y mejorar el nivel de vida de los pacientes. Una de las características y de los indicadores más precoces del MCI son los trastornos de memoria episódica y de lenguaje. Por eso mismo, investigar las señales del habla en las personas con MCI es una importante vía cara a detectar a tiempo la enfermedad de Alzheimer.

MCI supone disrupciones en el habla, es decir, disfluencias. Las disfluencias son interrupciones, irregularidades o elementos no-léxicos que ocurren en el hablar fluido, y que lo pueden llegar a interrumpir. El que estas disfluencias vayan en aumento es clara señal de un deterioro cognitivo leve y puede tener validez a la hora de medir y cuantificar el deterioro cognitivo que traen consigo las enfermedades neurodegenerativas.

Los enfermos de Alzheimer no sólo padecen deterioro en el habla; también en el aspecto emocional. Las emociones son procesos cognitivos relacionados con la arquitectura de la mente humana, y tienen que ver con la gestión en la toma de decisiones y en el recuerdo y también con la atención, y, al mismo tiempo, están estrechamente relacionadas con la comunicación. Consecuentemente, en esa fase inicial de la enfermedad, las reacciones y gestiones emocionales son también elementos comunicativos, y al igual que la disfluencia, pueden ser indicadores a la hora de medir el deterioro cognitivo de la respuesta emocional.

Por esa razón, analizando muestras de voz obtenidas por medio de una serie de tareas, se pueden recoger la disfluencia y la respuesta emocional. Se pueden recopilar parámetros independientes de la lengua y caracterizar los correspondientes deterioros lingüísticos, lo que puede resultar de gran ayuda para los especialistas a la hora de diagnosticar. Dado que la materia prima son las muestras de voz, por medio de una serie de tareas se han realizado grabaciones en entornos clínicos y familiares y

completado bases de datos, siempre teniendo en cuenta los criterios éticos de los centros de salud.

Con el análisis de esas bases de datos, se pretende medir, cuantificar, valorar y clasificar el desarrollo del deterioro cognitivo. El objetivo es realizar una aportación que ayude a diferenciar las diferentes etapas de la enfermedad, para lo cual se han desarrollado técnicas y metodologías automáticas de análisis de parámetros independientes del lenguaje. Se ha realizado una multi-aproximación no lineal basada en el análisis del lenguaje automático, que nos puede dar la medición automática de la complejidad de las series temporales.

Por otro lado, se ha realizado una elección automática de las características, y se han combinado los modelos de aprendizaje automático con los test estadísticos clásicos. El sistema está orientado al tiempo real y las metodologías de Deep Learning se integran con las metodologías de aprendizaje automático. Los resultados obtenidos se pueden aplicar en escenarios muy habituales de la ingeniería biomédica. Es aplicable para casos de Big Data o de carencia de datos complejos.

Hay que poner de relieve que, como soporte para los especialistas, se ha desarrollado una tecnología de bajo coste, natural, universal, no-invasiva y cifrada que, en un entorno real y complejo y por medio de tareas a través de la web, permite caracterizar, elegir y clasificar las muestras de voz. Y, en todo momento, orientado a encontrar un pre-screening útil. Puesto que las metodologías desarrolladas son de uso general, estas son aplicables a otros trastornos como el temblor esencial o el mal de Parkinson.

Abstract

In the future, Alzheimer Disease (AD) is likely to impose a high price on society. In order to ameliorate that probability, a chance of an early and accurate diagnosis could be of the utmost importance. That latest diagnostic biomarkers require expensive equipment, which obviates its application to the increasing number of suspected victims. For this reason, it becomes essential to be able to pre-screen all those who might be affected by the disease. Furthermore, these diagnostic, non invasive techniques could also become a highly useful tool to ascertain early diagnosis. The development of low cost, non invasive and easily applied techniques could become an alternative to high cost, invasive procedures. The road ahead is long. The purpose of this study is to forge ahead and advance in our investigation.

In the first phase of the disease, a mild cognitive impairment (MCI) might occur, but this deficiency does not have sufficient entity to impede the normal function of daily activity. However, that type of deteriorative stage might increase the risk of developing Alzheimer's disease. Nowadays, early diagnosis is one of the greatest and important challenges facing the medical world. If achieved, it could confirm the illness, allow the physician to take the appropriate measures and thus, improve the patient's quality of life. One of the characteristics and early indicators of MCI are episodic memory and language disorders. Therefore, the investigation of perceived language disorders in people suffering from MCI is an important way of detecting Alzheimer on time.

MCI causes speech disfluency. Disfluency means interruptions, irregularities of non-lexical impairments which occur during fluent speech and can even halt it. When this disfluency increases it sends a clear signal of mild cognitive impairment, and can be a trustworthy factor when measuring and quantifying the cognitive deterioration that are part and parcel of neurodegenerative diseases.

Alzheimer's patients not only show speech deterioration; they also suffer in the realm of emotion. Emotions are cognitive processes related to the architecture of the human brain. They deal with decision making, memories and attentiveness. At the same time, emotions are tightly related to communication. Consequently, in that first phase of the illness, emotional reactions and efforts are all elements of communication. Just as it happens with disfluency, they can become an important factor when measuring the cognitive deterioration of the emotional response.

For the reasons stated above, by analyzing a collection of voice samples obtained through a series of various tasks, disfluency and emotional response can be gathered. Parameters independent from language can be collected, and different linguistic deteriorations can be typified, which, in turn, could be of great help to the diagnostician when evaluating the patient.

Given the fact that the basic component of this study is voice samples, we have taped and completed database with the aid of several focused tasks, always respecting the code of ethics of the Health Centers and the various clinical and family environments. Through the analysis of those databases, one attempts to measure, quantify, evaluate and classify the development of the cognitive decline. The objective is to envision, realize and offer a method that will help differentiate the progressive stages of the illness. For this purpose, we have developed techniques and methodologies of parameter analysis independent of the language itself. A non-linear multi-approach based on the analysis of the automatic language has been completed, which can give us the automatic measurement of the time series.

On the other hand, we have carried out an automatic election of its characteristics, and we have combined the models of automatic training with the traditional statistical tests. The system, based on this model is based on actual time, in which the Deep Learning methodologies are combined what that of the Automatic Training. The results we have obtained show great completed, affinity for application on very common cases of biomedical engineering; among others, in Big Data or situations of paucity of complex information.

We wish to emphasize that, intended as a useful support for medical specialists, we have developed a low-cost, natural, universal, non-invasive and coded technology, that in a real and complex environment and through tasks performed through the web, makes it possible to characterize, elect and classify voice samples. And at all times, favoring the usage of pre-screening. Finally, the methodologies we have developed are ones that can be applied across the board. Therefore, this technology could also be usefully applied to illnesses such as Essential Tremor or Parkinson.

Aurkibidea

Esker onak.....	V
Laburpena.....	VII
Introducción	IX
Abstract	XI
Aurkibidea.....	XIII
Irudien aurkibidea	XIX
Taulen aurkibidea	XXIII
Laburtzapenak	XXV
1. KAPITULUA: SARRERA.....	1
1.1 Sarrera	1
1.1.1 Alzheimerren Gaitza (AD)	1
1.1.2 Narriadura Kognitibo Arina (MCI).....	2
1.2 Lanaren xede eta motibazioa	2
1.3 Helburuak	4
1.3.1 Helburu nagusia.....	4
1.3.2 Helburu orokorrak.....	4
1.3.3 Helburu zehatzak.....	4
1.3.4 Helburu gehigarriak	5
1.4 Hipotesiak	5
1.5 Metodologiaren alderdi orokorrak.....	6
1.6 Egitura.....	7
1.6.1 Kapituluak	7
1.6.2 Tesiak sorturiko argitarapenak.....	8
2. KAPITULUA: ARTEAREN EGOERA.....	11
2.1 Sarrera	11
2.2 Komunikazio-defizitak AD-n	12
2.2.1 Alzheimerren Gaitza (AD)	13
2.2.2 Narriadura Kognitibo Arina (MCI).....	13
2.2.3 Mintzamenean defizita.....	14
2.2.4 Emozioan eragina	15
2.2.5 Disfluentzian eragina	16

2.2.6 Egitura biomekanikoan eragina.....	17
2.3 Eskuko metodologiak	17
2.3.1 Sarrera	17
2.3.2 Ahozko komunikazio-gaitasunen ebaluaketa.....	17
2.3.2.1 Hitz-jario kategorikorako atazak	17
2.3.2.2 Hizketa irekiagoko atazak.....	19
2.3.2.3 Hizketa ez-murritzuko atazak.....	20
2.3.3 Screening test klasikoak	20
2.3.3.1 Hizkuntza-gaitasuna hautematea.....	21
2.3.3.1.1 MMSE	21
2.3.3.1.2 BNT	21
2.3.3.1.3 CERAD	22
2.3.3.1.4 RAVLT.....	22
2.3.3.1.5 CVF.....	24
2.3.3.2 Emozio-egoera hautematea	24
2.4 Teknika automatikoak	25
2.4.1 Hizketa automatikoaren hautematea	28
2.4.2 Hizketa automatikoaren hautemate ez-lineala.....	31
2.5 Neurona-Sare Konboluzionalak (CNN)	32
2.5.1 ILSVRC aurrekariak	33
2.5.2 Beste aurrekariak.....	38
3. KAPITULUA: MATERIALAK	41
3.1 Sarrera	41
3.2 Datu-baseak.....	42
3.3 Atazak	43
3.3.1 Animaliak izendatzeko jarioaren ataza (CVF)	43
3.3.1.1 Kontrol Taldea edo Control Group (CR)	44
3.3.1.2 Mild Cognitive Impairment (MCI) taldea.....	45
3.3.1.3 Baztertze-irizpideak	45
3.3.1.4 PGA-OREKA datu-basea.....	45
3.3.2 Irudien deskripzioari buruzko ataza (PD)	46
3.3.2.1 MINI-PGA datu-basea.....	46
3.3.3 Bat-bateko hizketari buruzko ataza (SS).....	47

3.3.3.1 AZTIAHO datu-basea	48
3.3.3.2 Datu-basearen iragazketa.....	49
3.3.3.3 AZTIAHORE datu-basea	49
3.3.3.4 AZTITXIKI datu-basea.....	49
4. KAPITULUA: METODOAK	51
4.1 Sarrera	51
4.2 Ezaugarrien erauzketa eta hautaketa.....	54
4.2.1 Ezaugarri linealak.....	56
4.2.2 Ezaugarri ez-linealak.....	57
4.2.2.1 Fraktalak	57
4.2.2.1.1 Higuchi-ren Dimentsio Fraktala.....	58
4.2.2.1.2 Katz eta Castiglioni-ren Dimentso Fraktala	59
4.2.2.2 Entropia	61
4.2.2.2.1 Shannon-en Entropia.....	61
4.2.2.2.2 Gutxi gorabeherako Entropia vs Legin-Entropia	62
4.2.2.2.3 Permutazio Entropia.....	64
4.2.2.2.4 Eskala anitzeko Permutazio Entropia	64
4.2.2.3 Emozio-tenperatura	66
4.2.2.4 Disfluentzien azterketa.....	66
4.3 Ezaugarrien hautaketa automatikoa	69
4.3.1 Disfluentziaren segmentazio automatikoa (VAD)	69
4.3.2 Proba ez-parametrikoen bidezko ezaugarrien hautaketa automatikoa	69
4.3.3 Ezaugarrien bigarren hautaketa automatikoa	70
4.4 Sistemaren eredutzea: ezagutza automatikorako ereduak	70
4.4.1 Machine Learning paradigmak	70
4.4.2 CNN-ak.....	70
4.4.2.1 Deskripzioa	71
4.4.2.2 Multilayer Perceptron	71
4.4.2.3 Deep Learning: Neurona-sare Konboluzionalak (CNN)	73
4.4.2.3.1 Sare konboluzionalen arkitektura	73
4.4.2.3.2 Geruza konboluzionala	73
4.4.2.3.3 Pooling geruza	76
4.4.2.3.4 Guztiz konektatutako geruza.....	77

4.4.2.3.5 Aktibazio-funtzioak.....	78
4.4.2.3.6 Dropout	79
4.4.2.3.7 Eredua entrenatu	81
4.4.2.3.8 CNN ahotsa analisirako	82
4.5 Sistemaren balioztatzea	83
4.6 Sistemaren konfigurazioaren hautaketa automatikoa.....	84
5. KAPITULUA: ALZUMERIC	85
5.1 Sarrera	85
5.2 Alzumeric.....	87
5.2.1 Arkitektura orokorra.....	89
5.2.1.1 NFC (Near Field Communication) txartela	90
5.2.1.2 Smartphone edo tablet-a	91
5.2.1.3 App-a	91
5.2.1.4 Segurtasuna eta pribatutasuna	93
5.2.1.5 Bakarlari kuantikoa.....	93
5.2.1.6 HTTPS.....	96
5.2.1.7 Webservices	97
5.2.1.8 API.....	97
5.2.1.9 LAMP.....	97
5.2.1.10 MATLAB	98
5.2.1.11 WEKA	98
5.2.1.12 Python	98
5.2.2 Erabiltzailearen interfazea.....	100
6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA	103
6.1 Sarrera	103
6.2 Erantzun emozionalaren azterketa	105
6.2.1. Materialak eta metodoak.....	105
6.2.2. Esperimentazioa	107
6.2.2.1 Leihotamaina aukeratzea.....	107
6.2.2.2 Dimentsio Fraktalaren Analisia.....	107
6.2.2.3 Temperatura Emozionala	108
6.3 Hizkuntzarekiko independentea den bat-bateko hizketaren analisia.....	111
6.3.1 Materialak eta metodoak.....	111

6.3.2 Hasierako esperimentua.....	114
6.3.3 Bat-bateko hizketaren analisia	116
6.3.3.1 Dimentsio fraktalaren analisia.....	117
6.3.3.2. Ezaugarri-hautatze automatikoa	118
6.3.3.3 Sailkatze Automatikoaren ataza.....	118
6.3.4 Bat-bateko hizketaren azterketa integrala.....	123
6.3.4.1 Materialak eta metodoak.....	123
6.3.4.2 Sailkapen automatikoa	124
6.4 Ataza anitzerako hurbilpen ez-lineala MCI-rako	126
6.4.1 Materialak eta metodoak.....	126
6.4.2 Esperimentazioa	127
6.4.2.1 Ezaugarrien hautaketa automatikoa	127
6.4.2.2 Sailkatze automatikoa	130
6.5 MCI-ren detekzio goiztiarrerako aurrerapenak.....	131
6.5.1 Materialak eta metodoak.....	131
6.5.2 Esperimentazioa	133
6.6 Denbora errealerako sistema	133
6.6.1 Materialak eta metodoak.....	133
6.6.2 Esperimentazioa	133
6.7 Erabilgarritasunaren ebaluaketa	139
7. KAPITULUA: ONDORIOAK	141
7.1 Ondorioak	141
7.1.1 Ondorio orokorrak.....	141
7.1.2 Ondorio zehatzak.....	143
7.1.3 Etorkizunerako lerroak	146
BIBLIOGRAFIA	149
ERANSKINAK	163

Irudien aurkibidea

Irudia 2. 1: Atazetara mugatutako proba klinikoa.....	18
Irudia 2. 2: Atazari murriztutako test klinikoa.....	23
Irudia 2. 3: Bat-bateko hizketa	27
Irudia 2. 4: Ahozko analisi vs analisi automatikoa.....	31
Irudia 2. 5: ILSVRC-en errore-tasa baxuena lortu duten algoritmoen emaitzak.....	34
Irudia 2. 6: AlexNet.....	35
Irudia 2. 7: Deconvolutional Network	36
Irudia 2. 8: Geruzen irudikapen grafikoa.....	36
Irudia 2. 9: ResNet sarea	38
Irudia 2. 10: Eskualdeak erauzi, desitxuratu eta CNN-an sartu.....	39
Irudia 2. 11: CNN-en hitz deskriptiboak aurkitzeo gaitasuna	39
Irudia 2. 12: Irudia eraldatu eta aipagarria den eskualdea aukeratu.....	40
Irudia 3. 1: Ataza bakoitzaren ezaugarriak	41
Irudia 3. 2: Hizketa murritzuaaren test klinikoa	44
Irudia 3. 3: Hizketa murritzuaaren test klinikoa II	47
Irudia 3. 4: Hizketa murritzuaaren etxeko testa	48
Irudia 4. 1: Sistema eta tresna automatikoak	53
Irudia 4. 2: Ahots-laginen erauzketa linealak eta ez-linealak.....	54
Irudia 4. 3: Fonazio-aparatura	55
Irudia 4. 4: Fonazio-aparatura II	55
Irudia 4. 5: Higuchi-ren dimentsio fraktala	61
Irudia 4. 6: Hitz-jario kategorikoaren (CVF) ataza	68
Irudia 4. 7: MLP.....	72
Irudia 4. 8: Irudien datu-matrizeak.....	72
Irudia 4. 9: Konboluzioa.....	74
Irudia 4. 10: CNN-en kernelak	74
Irudia 4. 11: Ezaugarri-mapa	75
Irudia 4. 12: Ezaugarri-mapa II	75
Irudia 4. 13: CNN-en sakontasuna	76
Irudia 4. 14: Pooling-a CNN-etan	77
Irudia 4. 15: CNN-en egitura orokorra.....	78
Irudia 4. 16: ReLU	79
Irudia 4. 17: Dropout	80
Irudia 4. 18: Overfitting	80
Irudia 4. 19: Overshooting.....	81
Irudia 4. 20: Datu gordinak CNN-ra	82
Irudia 4. 21: Datu aberastuak CNN-ra	83

Irudia 5. 1: Teknika automatiko ez-inbasiboaren prozedura	88
Irudia 5. 2: Alzumeric-en arkitektura orokorra	89
Irudia 5. 3: Sistema automatikoaren front-end eta back-end-a	90
Irudia 5. 4: Smartphone-aren datuak jaso.....	92
Irudia 5. 5: Bakarlari kuantikoa	94
Irudia 5. 6: Bakarlari kuantikoa II.....	94
Irudia 5. 7: Bakarlari kuantikoa III.....	95
Irudia 5. 8: Zifratu-deszifratu simetriko eta asimetrikoa	996
Irudia 5. 9: Alzumeric-en monitorizazioa	99
Irudia 5. 10: Alzumeric interfazea	100
Irudia 5. 11: Alzumeric-ek laginak josatzeko modua.....	101
Irudia 5. 12: Ezaugarriak eta sailkapena.....	101
 Irudia 6. 1: Errore Ratioaren Sailkatzea (%).....	106
Irudia 6. 2: Sailkapen Errore Ratioa (%)	107
Irudia 6. 3: Sailkapen Errore Ratioa (%) II.....	108
Irudia 6. 4: Errore Metagarria.....	110
Irudia 6. 5: Bat-bateko hizketa-eboluzioa	113
Irudia 6. 6: Hasierako esperimentazioaren ezaugarria	114
Irudia 6. 7: Ahostun eta ahoskabe (%) AZTITXIKI multzorako	114
Irudia 6. 8: Hizketa Seinalearen zatiak	115
Irudia 6. 9: Kontrol-pertsona baten analisia (CR)	116
Irudia 6. 10: AD duen pertsona baten analisia	117
Irudia 6. 11: Errore Ratioaren Sailkatzea (%).....	118
Irudia 6. 12: Errore Ratioaren Sailkatzea (%) II.....	119
Irudia 6. 13: Klase desberdinetarako Zehaztasuna/Doitasuna	121
Irudia 6. 14: Errore Metagarria.....	121
Irudia 6. 15: Kostu konputazionala.....	122
Irudia 6. 16: INTEGRAL probarako doitasuna.....	124
Irudia 6. 17: Sailkapenerako Errore-Tasa Metagarria (%)	125
Irudia 6. 18: Kaxa-diagrama hiru atazetarako	128
Irudia 6. 19: Kaxa-diagrama hiru atazetarako II	128
Irudia 6. 20: Kaxa-diagrama hiru atazetarako III	129
Irudia 6. 21: Ahoskabe segmentuen ezaugarri ez-linealak	129
Irudia 6. 22: Hiru atazen doitasun-tasak	130
Irudia 6. 23: Hiru atazetan lortutako klase bakoitzeko Accuracy-a.....	131
Irudia 6. 24: Ezaugarri bektorea	132
Irudia 6. 25: Acc (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako.....	133
Irudia 6. 26: HF (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako	135
Irudia 6. 27: CER (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako	136
Irudia 6. 28: Model Time MT (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako.....	137
Irudia 6. 29: FP-CR (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako	137

Irudia 6. 30: CER (%) hiru atazentzat (SS, PD eta AN).....	138
Irudia 6. 31: Sistemaren balioztatzea	139
Irudia 6. 32: Tipografia tamaina handitu.....	140

Taulen aurkibidea

Taula 2. 1: Dimentsio espazial urritu eta sakontasuna handitzeko CNN-a	37
Taula 3. 1: Erabilitako 3 ataza nagusiak	42
Taula 3. 2: Sortutako datu-base bakoitzaren datu demografikoak.....	43
Taula 3. 3: AN esperimentaziorako azpimultzoen datu demografikoak.....	46
Taula 3. 4: PD esperimentaziorako azpimultzoen datu demografikoak	46
Taula 3. 5: SS esperimentaziorako azpimultzoen datu demografikoak	49
Taula 3. 6: AZTITXIKI azpimultzoa.....	50
Taula 4. 1: Ezaugarrien inbentarioa.....	56
Taula 5. 1: Keyed-Hash Message Authentication Code	96
Taula 6. 1: Laburtzapenen deskripzioa	104
Taula 6. 2: Ezaugarri-multzoen laburtzapenak.....	104
Taula 6. 3: Accuracy (%).	122
Taula 6. 4: Accuracy (%).	123
Taula 6. 5: Sailkatzaileen konfigurazioak.....	134

Laburtzapenak

Laburtzapenak: Ingelesa, euskara

ACW: Adaptive Component Weighted Coefficients, *Ponderatutako Osagai Moldagarrien Koefizienteak*

AD: Alzheimer's Disease, *Alzheimerren Gaitza*

AI: Artificial Intelligence, *Adimen Artifiziala*

AJAX: Asynchronous Javascript and XML, *Javascript Asinkronoa eta XML*

AN: Animal Naming, *Animalien Izendatzea*

API: Application Programming Interface, *Aplikazioetarako Programazio Interfazea*

APQ: Amplitude Perturbation Quotient, *Anplitude Perturbazioaren Zatidura*

AS: Advanced Stage, *Fase Aurreratua*

ASA: Automatic Speech Analysis, *Hizketa Automatikoaren Analisia*

ASSA: Automatic Spontaneous Speech Analysis, *Bat-bateko Hizketaren Analisi Automatikoa*

ASR: Automatic Speech Recognition, *Hizketa Ezagutze Automatikoa*

BNT: Boston Naming Test, *Izendatze Boston Testa*

CAR: Classification Accuracy Rate, *Sailkapenaren Doitasun Tasa*

CE: Cumulative Error, *Errore Metagarria*

CER: Classification Error Rate, *Sailkapenerako Errore-Tasa*

CERAD: Consortium to Establish a Registry for Alzheimer's Disease , *Alzheimerren Gaitzaren Erregistroa Ezartzeko Partzuergoa*

CF: Classic Features, *Ezaugarri Klasikoak*

CFD: Castiglioni Fractal Dimension, *Castiglioni Dimentsio Fraktala*

CI: Confidence Interval, *Konfiantza Tartea*

CL: Convolution Layer, *Geruza Konboluzionala*

CNN: Convolutional Neural Network, *Neurona-sare Konboluzionalak*

CR: Control, *Kontrola*

CSS: Cascading Style Sheets, *Jauzi Estilo Orriak*

CST: Cryptographic And Security Testing, *Kriptografia eta Segurtasun Probak*

CVF: Categorical Verbal Fluency, *Hitz-jario Kategorikoa*

CVFD: Castiglioni Voice Fractal Dimension, *Ahoskatutako Castiglioni Dimentsio Fraktala*

CVLT: California Verbal Learning Test, *Kaliforniako Ahozko Ikaste Testak*

DL: Deep Learning, *Ikasketa Sakona*

DN: Deconvolutional Network, *Neurona-sare Dekonboluzionala*

DNC: Differentiable Neural Computer, *Konputazio Neurona Diferentziagarria*

EF: Emotional Features, *Emozio-Ezaugarriak*

EM: Experiment matrix, *Esperimentu-Matrizea*

ERA: Emotional Request Analysis, *Emozio Erantzunaren Analisiak*

ES: Early Stage, *Fase Arina*

ET: Emotional Temperature, *Emozio-Temperatura*

ETL: Extraction, Transformation and Loading, *Erauztea, Eraldatzea eta Kargatzea*

EWM: Emotional Working Memory, *Iraupen Laburreko Oroimen Emozionala*

FC: Fully Connected, *Guztiz Konektatua*

FCSRT: Free and Cued Selective Reminding, *Oroimen Selektibo Aske eta Kodetuaren Testa*

FD: Fractal Dimension, *Dimentsio Fraktala*

FIPS: Federal Information Processing Standard, *Informazioaren Prozesatzerako Estandar Federalak*

FP: False Positive, *Positibo Faltsua*

GAN: Generative Adversarial Nets, *Kontrako Sareen Sortzailea*

HFD: Higuchi Fractal Dimension, *Higuchi Dimentsio Fraktala*

HMAC: Keyed-Hash Message Authentication Code, *Gako-Hash Mezu Bidezko Baimen Kodea*

HNR: Harmonic to Noise Ratio, *Armoniko-Zarata arteko Erlazioa*

HTML5: HyperText Markup Language 5, *Hipertesturako Lengoaia Markatua 5*

HTTP: Hypertext Transfer Protocol, *Hipertesturako Transferentziarako Protokoloa*

HTTPS: Hypertext Transfer Protocol Secure, *Hipertesturako Transferentziarako Protokolo Segurua*

HVFD: Higuchi Voice Fractal Dimension, *Ahoskatutako Higuchi Dimentso Fraktala*

HVLT: Hopkins Verbal Learning Test, *Hopkinsen Ahozko Ikaste Testak*

ICC: Inferior Colliculus Coefficients, *Beheko Kolikulu Koefizienteak*

ID: Idea Density, *Ideia Dentsitatea*

IG: Information Gain, *Informazio Irabazia*

ILSVRC: ImageNet Large-Scale Visual Recognition Challenge, *ImageNet Eskala Handiko Ikuste-Ikuskapenaren Erronka*

IS: Intermediate Stage, *Fase Ertaina*

KFD: Katz Fractal Dimension, *Katz Dimentso Fraktala*

KVFD: Katz Voice Fractal Dimension, *Ahoskatutako Katz Dimentso Fraktala*

k-NN: k-Nearest Neighbors, *k-Bizilagun Hurbilak*

LF: Linear Features, *Ezaugarri Linealak*

LOOCV: Leave-One-Out Cross-Validation, *Bat Kanpoan Geratu Balioeste Gurutzatua*

LPCC: Linear Predictive Cepstral coefficients, *Aurreikuspenerako Koefiziente Lineal Cepstralak*

LPCT: Linear Predictive Cosine Transform coefficients, *Aurreikuspenerako Kosinu Koefiziente Eraldatze Lineala*

LTM: Long Term Memory, *Iraupen Luzeko Oroimena*

MCI: Mild Cognitive Impairment, *Narriadura Kognitibo Arina*

MFCC: Mel Frequency Cepstrum Coefficients, *Mel Eskalako Koefiziente Cepstralak*

MMSE: Mini Mental State Examination, *Buruko Egoeraren Mini Azterketa*

ML: Machine Learning, *Ikasketa Automatikoa*

MLP: Multi Layer Perceptron, *Multigeruza Pertzepriona*

MMSE: Mini Mental State Examination, *Buruko Egoeraren Mini Azterketa*

MSC: Modulation Spectra coefficients, *Espektro Modulazioen Koefizienteak*

NFC: Near Field Communication, *Komunikazio Eremu Hurbila*

- NNHL:** Neuron Number in Hidden Layer, *Ezkutuko Geruzaren Neurona Kopurua*
- NIST:** National Institute of Standards and Technology, *Estandarren eta Teknologiaren Nazio Institutua*
- NLF:** Non-Linear Features, *Ezaugarri Ez-linealak*
- NLP:** Natural language processing, *Lengoia Naturalaren Prozesatzea*
- NHR:** Noise to Harmonic Ratio, *Zarata-Armonikoaren arteko Erlazioa*
- NSA:** National Security Agency, *Nazio Segurtasunerako Agentzia*
- OASIS:** Organization for the Advancement of Structured Information Standards, *Informazio Estandarren Egituratuaren Aurrerapenerako Antolakundea*
- OSI:** Open System Interconnection, *Sistema Irekiaren Interkonexioa*
- PAN:** Personal Area Network, *Eremu Pertsonalerako Sarea*
- PD:** Picture Description, *Irudien Deskribapena*
- PF:** Perception Features, *Pertzepzio Ezaugarriak*
- PGA:** Gipuzkoa-Alzheimer Project, *Gipuzkoa-Alzheimer Projektua*
- PLP:** Perceptual Linear Predictive coefficients, *Aurreikuspenerako Pertzepziozko Koefiziente Lineala*
- RAVLT:** Rey Auditory Verbal Learning Test , *Reyren Entzute-Hitzezko Ikastearren Testa*
- RBNT:** Revised version of the Boston Naming Test, *Boston Izendatze Test Eraberritua*
- ReLU:** Rectified linear unit, *Unitate lineal Arteztua*
- REST:** Representational State Transfer, *Irudikapenezko Estatu Transferentzia*
- RMS:** Root Mean Square, *Media Koadratikoa*
- RNN:** Recurrent Neural Networks, *Neurona-sare Atzerakariak*
- RPC:** Remote Procedure Call, *Urrutiko Prozedura Deia*
- SaaS:** Software as a Service, *Software-a Zerbitzu moduan*
- SHA-256:** Secure Hash Algorithm 256, *Hash Algoritmo Segurua 256*
- SL:** Supervised Learning, *Gainbegiratutako Ikasketa*
- SMS:** Short Message Service, *Mezu Laburretarako Zerbitzua*
- SOAP:** Simple Object Access Control, *Objektu Simpleetarako Sarbiderako Kontrola*
- SS:** Spontaneous Speech, *Bat-bateko Hizketa*
- SSF:** Spontaneous Speech Features, *Bat-bateko Hitz-jarioaren Ezaugarriak*
- SSL:** Secure Sockets Layer, *Sockets Geruza Segurua*
- SSSF:** Selection of Spontaneous Speech features, *Bat-bateko hitz-jarioaren ezaugarrien hautaketa*
- ST:** Standard Deviation, *Desbiazio Estandarra*
- STN:** Spatial Transformer Networks, *Espazio Eraldaketarako Sareak*
- SVFD:** Selection of Voice Fractal Dimension, *Ahoskatutako Dimentsio Fraktalaren Hautaketa*
- SVM:** Support Vector Machine, *Euskal Bektoreen Makina*
- TLS:** Transmission Layer Security, *Transmisorako Geruza Segurua*
- TS:** Training Step, *Entrenamendu Pausoa*
- VAD:** Voice Activity Detection, *Ahots Jarduera Hautematea*
- VFD:** Voice Fractal Dimension, *Ahoskatutako Dimentso Fraktala*
- VM:** Validation Matrix, *Balidazio-Matrizea*

W3C: World Wide Web Consortium, *Munduko Sarerako Patzuergoa*

WM: Work Memory, *Laneko Oroimena*

WRAT-R: Wide Range Achievement Test-Revised, *Tarte zabalekin egindako Lorpenen Probaren Test Eraberritua*

WRAT4: Wide Range Achievement Test 4, *Tarte zabalekin egindako Lorpenen Probaren Testa 4*

WS: Window Size, *Leihoa-Tamaina*

WS-I: Web Services Interoperability Organization, *Web Zerbitzuen Barne Eragiketetarako Antolakundea*

XML: eXtensible Markup Language, *Lengoaia Markatu Hedagarria*

XSS: Cross-Site Scripting, *Guneen Arteko Scripting-a*

ZCR: Zero-Crossing Rate, *Zero-gurutzatzeko abiadura*

1. KAPITULUA: SARRERA

1.1 Sarrera

2016. urteko munduko Alzheimer Txostenak nabarmenzen duenez, adineko populazioaren gehienak garapen-bidean dauden herrialdeetan bizi dira, eta bakarrik Txinan, 200 milioi pertsona har daitezke adineko populaziotzat. Herrialde horretan bakarrik, 2050. urtean, 60 urtetik gorako biztanleria 490 milioikoa izatea aurreikusten da [1]. Are gehiago, txostenak dioenez, bizi-itxaropenak luzatzen jarraitzen du eta heriotza-tasa etengabe ari da murritzen munduko eskualde gehienetan.

Ondorioz, jendea luzeago bizi da, eta dementziak nahasteak eta gaixotasun kronikoak gero eta prebalenteago bilakatzen ari dira bizimodu eta portaera ez osasuntsuak direla eta. Hori nabarmena da erdi-mailako eta maila altuko herrialdeetan eta munduko populazioa dementzia-izurritako bidean dago, zeinak eragin lazgarria izan lezakeen epe luzean [1].

Egoera hau dela eta, Alzheimer gaitzak eragiten dituen defizit kognitiboen diagnostiko goiztiar, unibertsal eta merkeak ahalbidetuko dituen teknologia garatzeak berebiziko garrantzia dauka, gaixoen bizi-baldintzak hobetzeko bidean, gaitza hasierako etapan atzeman eta eutsi nahi badugu. AD-ren diagnostiko goiztiarra eta zehatz garrantzi handikoa da gaixoek eta beren familiek etorkizuna planifikatu ahal izateko, eta gaitzaren zantzuak tratatzeko aukerarik hoherenak bilatzeko.

1.1.1 Alzheimerren Gaitza (AD)

Alzheimerren Gaitzak (Alzheimer's Disease, AD), zahartzaroan dementziaren arrazoi nagusia denak [2][3], izugarrizko kostu sozioekonomikoak ekartzen ditu, eta uste denez, goraka joango da etorkizun hurbilean [1][4]. Alzheimerren eragina handituz doa adinarekin baina 60 urte baino gutxiago dutenen artean ere prebalentea da.

Nariadura kognitibo progresiboa eta atzeraezina da AD-ren ezaugarria, oroimenaren galera eta hizketaren eta judizioaren nahasmenduak barnean hartuta, beste zenbait gabezia kognitibo eta portaerazkorekin batera. Hitzezko mintzairak endekatzeak berehalako eragina du pazientearen gaitasunean bere gizarte-

ingurunearekin modu naturalean elkar eragiteko. Askotan, horrekin batera, aldaketak gerta daitezke bere erantzun emozionaletan [5][6][7].

Defizit kognitiboek eta portaerazko sintomek, orokorrean, pertsona baten gaitasunak eta eguneroko jarduerak lanean, gizartean zein familian mugatzen dituzte. Gaitzak aurrera egin ahala, erion gaitasun eza handituz doa, erabateko mendetasunean egon arte [5][6].

Hortaz, ondoriozta daiteke, AD, gizartean eta ekonomian eragin handia sor dezakeen eta izurri bilakatu daitekeen prebalentzia altuko dementzia-mota arruntena dela, eta eriek, trebetasun eza larriak garatzen ditutzela baita erabateko mendetasuna ere.

1.1.2 Narriadura Kognitibo Arina (MCI)

AD-ren lehen fasean Nahasmendu Kognitibo Arina (Mild Cognitive Impairment, MCI) delakoa agertzen da, akats kognitiboa alegia, baina ez da behar adina larria eguneroko bizitza edo gaitasun independenteak eragozteko.

Nahasmendu Kognitibo Arina (MCI) gaixotasun neurobegetatiboen hasierako agerraldietaraino hedatzen da, non pertsona aurreko errutina eta jarduerekin jarraitzeko gai den [8]. Orokorrean, MCI amnesikoa, AD goiztiar edo prodromaltzat hartzen da eta AD duten paziente askoren diagnostikoa MCI dutenean egiten dela kontuan hartu behar da.

1.2 Lanaren xede eta motibazioa

CEAFA-ren arabera, Spainiako estatuan, Alzheimerra 500.000 gaixori diagnostikatu diete. Hala ere, kopurua askoz handiagoa izan daiteke, eta 800.000ra iritsi. Gainera, biztanlerian zahartzea areagotzen ari denez, aurreikusiten da 2025. urterako Alzheimerak kaltetuak 1.200.000 izan daitezkeela. 5.000.000, gaixoen familiak kontuan hartzen badira.

Egun, patologia honen kontra borrokatzeko merkaturatuak dauden aukera terapeutikoek, bai farmakologiko bai terapeutiko bigunek (test bidezko estimulazioa, jokoak eta abarrek) ez daukate gaixotasunak sortzen duen jatorriari erasotzeko mekanismorik, hori ezezaguna baita, eta zantzuak arintzeko balio dute soilik. Terapia horien bidez, kasu askotan, gaixotasunaren areagotzea moteltzen da, funtzio kognitiboa kitzikatzen bada.

Terapia berriak bilatzen ari diren arren Spainiako estatuan dauden gaixoen artean tratamendua bakarrik % 4-ak jasotzen du, nahiz eta tratamenduan egiten ari den inbertsioa itzela den.

Bestalde, Alzheimerra duen pertsona batek zainketa-ordu asko eskatzen ditu eta gehienetan lan eskerga hori senitartekoek bere egiten dute. Horrek ere asaldura anitzak sor ditzake senitartekoengan egunerokotasunaren higadurak sortuta.

Diagnostiko goiztiarrak eta ondorioz ezarritako tratamenduak gaixotasunaren areagotzea atzeratzea ahalbidetuko luke, eta ondorioz, bai gaixoen bai bere senitartekoen bizitza-kalitatea hobeatzea izango litzateke ondoriorik argiena. Horrez gain, urteko ehunka milioi euro aurreztea ekarriko luke.

MCI-k eragiten dituen aldaketa kognitiboak ordea ez dira gehienetan behar bezala diagnostikatzen, nahiz eta MCI-k Alzheimer edo beste dementziaren bat garatzeko arriskua areagotu dezakeen.

Batzuetan, irristakorra izaten da, batik bat prodromo-fasean, gaitz kognitibo adierazgarriak identifikatzea. Zaila gertatzen zaie batez ere espezialistak ez direneei eta senideei AD goiztiarra edo Narriadura Kognitibo Arina identifikatzea [9][2].

Beraz, gaur egun, garaiz detektatzea da espezialista medikuen erronketako bat [2]. Gainbehera kognitiboa hasierako mailan identifikatzeak berebiziko garrantzia dauka, sintoma kognitiboen hautemate goiztiarra onuragarria izan baitaiteke kudeaketa hobe baterako eta lagungarri izan daitekeelako gaixoengan, senideengan eta gizartearen dituen eraginak gutxiagotzeko.

Aipatu behar da, zenbait medikuntza-arlok AD-ren diagnostikoa egiten dutela baina behin betiko diagnostikoak AD-ren aldaketa patologikoak autopsian frogatzea eskatzen duela [5][6][7].

Gaitz honek gizartearen sortzen duen asaldura apaltzeko bidean MCI-ren diagnostiko goiztiar, unibertsal, merke eta ez-inbasiborako ekarpena egitea da erronka nagusia. Lan honetan mahaigaineratzen den aportazioak eginkizun hori du xede, eta interes handikoa da, bizi dugun bilakaera soziodemografikoa eta AD-ren eragin sozial eta ekonomikoa dela eta. Hirugarren adineko pertsonen bizi-baldintzak hobetzea Eusko Jaurlaritzaren zientzia-politiken planaren lerro nagusi bat da.

1.3 Helburuak

1.3.1 Helburu nagusia

Lanaren helburu orokorra Alzheimerren eta beste gaitz batzuek dakarzkiten asaldura neurologikoen diagnostiko goiztiarren hobekuntzan laguntea da, hori guztia, hizketaren azterketa automatiko ez-inbasibo, unibertsal eta merkeen bidez eta osasun-guneen irizpide etikoen baitan.

Helburu hori lortzeko, hastapen-bertsioan izango den nahasmendu neuroendekapenezko antzemate goiztiarrean laguneko teknologia automatiko ez-inbasiboak garatu nahi dira.

Horrela, diagnostiko goiztiarrerako teknologia ez-inbasibo berri hauen garapenak, gaixoen inguruneari fidagarriak diren seinaleak jaso eta medikuei helarazteko aukera emango die.

1.3.2 Helburu orokorrak

- Narriadura Kognitibo Arina edo Mild Cognitive Impairment (MCI) prodromo-etapara bideratuta, dementziaren antzemate goiztiarrerako teknikak eta metodologiak garatzea.
- Hizkuntzarekiko independenteak diren parametroen azterketa automatikorako teknika eta metodologiak garatzea.
- Inguru erreal eta konplexuetara bideratutako teknika eta metodologiak garatzea.
- Erabilgarritasunaren estandarretan oinarria duten web-sistema integral merke, unibertsal eta ez-inbasiboaren garapena egitea.
- Ikasketa sakonean (DL) oinarria duten Machine Learning (ML) algoritmoak ikertu eta esperimentatzea.
- Datuen Erauzketa, Eraldaketa eta Karga (ETL: Extraction, Transformation and Loading) prozesu osoa bilduko duen ekosistema sortzea.

1.3.3 Helburu zehatzak

- Bioseinale-baliabideak sortzea osasun-guneekin lankidetzen eta horien irizpide etikoen baitan.
- Medikuntzaren ebaluaketa sendoari erreparatuz, medikuntza-laginen diseinu-metodologia berri eta normalizazioari buruz ikertzea.
- Medikuntza-hautaketan sostengatutako hautaketa automatikoen teknikak ikertzea.
- Seinalean izan daitezkeen patologien aldaketa azkarren hauteman goiztiarrerako ebaluaketa-erakusle berriak ikertzea.

- Hizkeraren disfluentzia, hots, hizketa jariakor batean gertatzen den edozein etendura, irregularitasun edo elementu ez-lexikoren azterketa automatikoa egitea.
- Disfluentzia ez ezik, erantzun emozionalaren azterketa automatikoa egitea.
- Komunikazio seguruetara bideratua dagoen bezero-zerbitzari informazio-transakzio zifratuak garatzea.
- ML algoritmo klasikoen eta ikasketa sakonean oinarritutako algoritmoen emaitzen arteko konparazio eta interpretazioa egitea.

1.3.4 Helburu gehigarriak

- Alzheimer eta antzeko beste gaixotasunen egoera goiztiar zein Narriadura Kognitibo Arinak ikertza.
- Inguru konplexuetara bideratutako kalitate desberdinak ahots-seinaleak erabiltzea.
- Ezaugarrien hautaketa automatiko optimizatu batetarako bideak ikertza.
- Parametro lineal, ez-linealetan oinarritutako metodologia eta parametro bioinspiratuak ikertza. Hau da, inguru konplexuen edo eta zaratatsuen sendotasuna lortzera bideratuak dauden parametroetan sakontza.
- Hizkuntzarekiko independenteak diren parametroak aztertza.
- Diagnostiko-emaitzak hobetzeko DL-en oinarria duten teknikak ikertza.
- Isilpeko komunikazioak lortzeko algoritmo zifratuak ikertza.
- Teknologia desberdinak plataforma bakarrean biltzea eta horien arteko komunikazio-protokoloak estandarizatzea.

1.4 Hipotesiak

- Diagnostikorako ez-inbasiboak diren teknika adimenduen erabilera oso baliagarria da dementzien hautemate goiztiarrerako.
- Gaixoen hizketan garunaren dementzia-zeinuen nabaritasun zientifikoa badago.
- Hizkeraren osagai linguistikoak ikerketak egun dauden hizketa zein biomekanikarekiko independenteak diren elementuetan oinarria duten azterketen metodologia hobe dezake.
- Zenbait atazaren bidez, hizketatik informazio oso garrantzitsua atera daiteke diagnostiko eta eboluzioaren jarraipena egiteko.
- Hizkeraren disfluentzia AD-ren prodromo-fasearen adierazle izan daiteke eta narriadura kognitiboaren zeinu argia izan daiteke.
- Hasierako fasetako andeatzea dela bide, erantzun emozionala ere kaltetu daiteke, giza gogoaren arkitekturarekin zerikusia dituzten prozesu kognitiboak baitira.
- Aurrez aukeratu eta aberastutako datuek Deep Learning sareei ezaugarri-mapak egiteko lana errazten diente.

- Ikasketa sakonak orain arteko Machine Learning algoritmoen diagnostiko-emaitzak hobetzeko gaitasuna izan dezake.
- Prozesu guzia web-teknologiarekin integratzeak eta hizkuntzarekiko independenteak diren parametroekin lan egiteak sistema asko merkeagotu eta bere erabilera unibertsalizatu dezake.

1.5 Metodologiaren alderdi orokorrak

Honako ikerketa-lanean, abiapuntua, artearen egoerari buruz egindako berrikuste sakonak finkatzen du. Ondoren, hainbat lerro metodologikori ekiten zaio ikerketa-lanak dituen fronte desberdinaren garapenari aurre egiteko:

- Aztertu nahi den problematikaren ikerketa eta prozesu guzia, hots, datuen Erauzketa, Eraldaketa eta Karga (ETL), bilduko duen sistemaren diseinua:
 - Datuen optimizaziorako metodoen garapena
 - Baliabide gabeziagatiko problematikari irtenbidea emateko modelatua
 - Injurune konplexuetara bideratutako parametroen moldaketa
 - Sailkapen-emaitzak hobetuko dituen ML algoritmoen erabilera
 - Erabilgarritasuna izpide eta prozesu guzia kontuan hartuko duten lanabes integralen garapena
- Aztertu nahi den ingurune konplexurako baliabideen sorrera:
 - Atazen aukeraketa, grabazio bidezko informazioaren erauzketa eta datu-basearen sorrera
 - Hizketa-ereduen aukeraketa
 - Hizkuntzarekiko independenteak diren ereduen modelatzea
 - Hizketa-ereduen ezaugarri lineal zein ez-linealen hautaketa eta erauzketa automatikoa
 - Atazen ezaugarri aipagarrienen hautaketa automatikoa
 - Ikasketa automatikorako algoritmoen garapena
 - Sistemaren komunikazio zifratuetarako script-en kodetza
- Ingurune konplexuetara bideratutako teknika berrien modelatzea
- Disfluentzia eta erantzun emozionalak aztertzeko teknika eta metodologien erabilera:
 - Ezaugarri ez-linealen modelatzea
 - Ezaugarri aipagarrienen hautaketarako tekniken (Mann-Whitney U-test ebaliuzio ez-parametriko eta Support Vector Machine-n ezaugarri-ebaliuzioaren bidez) erabilera
 - CNN algoritmoen txertaketa
 - Sistemaren errendimenduari begirako optimizazio-tekniken aplikazioa
- Ebaliuziorako metodologia klasikoen erabilera
- Lanaren garapenean zehar oinarrizko irizpide metodologikoak erabiliko dira:
 - Egungo testuinguruan sistema honen garapenak duen garrantzia

- kontuan hartzea
- Erabilgarritasuna eta unibertsaltasuna izpide izango duen sistemaren implementazioa burutza
 - Hizkuntzarekiko independentea den sistema eraikitza
 - Erabiltzaile errealen parte-hartze aktiboa bilatza

1.6 Egitura

1.6.1 Kapituluak

1. KAPITULUA: SARRERA

Kapitulu hau tesiaren memoriaren abiapuntua da, eta bertan, aztertu nahi den problematikaren azalpena, lanaren motibazioa, xede eta helburuak, lan-hipotesiak, metodologiarengako alderdi orokorrak eta memoriaren egiturari buruz hitz egiten da.

2. KAPITULUA: ARTEAREN EGOERA

Kapitulu honetan, artearen egoeraren azalpen sakona egin eta ikertuko den problematika hobeto ulertzeko 4 atal nagusitan banatzen da: AD gaitzak giza komunikazioan eragiten dituen arazoak, MCI/AD diagnostikatzeko egun dauden eskuko metodologiak, teknika automatiko aurreratuenak eta Deep Learning algoritmoen azken bost urteetako garapena.

3. KAPITULUA: MATERIALAK

Sistema egoki modelatzeko lehendabizi datuak behar dira. Horretarako hiru atazetan (AN, PD eta SS) osatutako datu-baseak sortu dira. Ataza horien bidez lortutako informazioaren deskripzioa egingo da kapitulu honetan. Atal hau sakonago ulertzeko, B.1 eta B.3 eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira.

4. KAPITULUA: METODOAK

Erabilitako metodologiari buruz hitz egiten da kapitulu honetan. Hasieran, ezaugarri lineal eta ez-linealen hautaketa eta horien azalpenari buruzko sarrera egiten da. Ondoren horien erauzketa eta ezaugarri aipagarrienak aukeratzeko metodologiari buruz hitz egiten da. Bukaeran, emaitzak sailkatzeko ikasketa sakonaren teknikak nabamentzen ditu. Atal hau sakonago ulertzeko, B.1, B.2, B.3, C.1, C.2, C.3, C.4, D.1, D.2 eta D.3 eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira.

5. KAPITULUA: ALZUMERIC

Mediku espezialistikak zein familiak ahots-laginak metodo ez-inbasiboen bidez hartzeko eta horien sailkapen binomiala (MCI/AD edo CR) egiteko sortutako web-

1. KAPITULUA: SARRERA

plataformaren deskripzioa egiten da kapitulu honetan. Atal hau sakonago ulertzeko, B.1, B.2, B.3, C.3, C.4 eta D.2 eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Laborategi-ingurunea ardatz, esperimentazioak modelatze klasikoa du oinarri eta aurreko kapituluetan garatutako metodologien integrazioaren bidez lortutako emaitzen ebaluazioa egiten du. Atal hau sakonago ulertzeko, B.1, B.2, B.3, C.1, C.2, C.3, C.4, D.1, D.2 eta D.3 eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira.

7. KAPITULUA: ONDORIOAK

Kapitulu honek, tesiaren garapenaren ondorioz eratorritako ondorio eta etorkizunerako ikerketa-lerro berriei buruzko deskribapena egiten du.

1.6.2 Tesiak sorturiko argitarapenak

A ERANSKINA: SISTEMA ERREALAREN ANALISIAK HIRU ATAZETARAKO (SS, PD, AN)

B ERANSKINA: JCR ARGITARAPENAK

1. K. Lopez-de-Ipiña, J.B. Alonso, C.M. Travieso, J. Solé-Casals , H. Egiraun, M. Faundez-Zanuy, A. Ezeiza, N. Barroso, M. Ecay , P. Martinez-Lage, U. Martinez de Lizardui, On the Selection of Non-Invasive Methods Based on Speech Analysis Oriented to Automatic Alzheimer Disease Diagnosis, SENSORS, 13(5), 6730 -6745, 2013, DOI: 10.3390/s130506730, ISSN: 1424-8220 IF ISI JCR (2013) Q1: 2.245, Instruments and Instrumentation; SNIP: 1.818, SJR: 0.66; 5-Year Impact Factor: 2.457 (2013), (WoK), Scopus: dblp, Google Scholar, kanpoko zitak: 6.
2. K. López de Ipiña, J. Sole-Casals, M. Faundez-Zanuy, P. Calvo, E. Sesa, U. Martinez-de-Lizarduy, P. De-la-Riva, J. F. Martí-Masso, B. Beitia, A. Bergareche, Selection of Entropy Based Features for Automatic Analysis of Essential Tremor, Entropy, DOI: 10.1007/s12559-012-9169-9, ISSN, 1866-9956, IF ISI JCR: 1.440, Q2 Computer Science Artificial Intelligence (681123); SNIP: 2.035; SJR: 0.53; 5 Year, impact factor: 1.359, (WoS), Scopus: dblp, Google Scholar.
3. K. López-de-Ipiña, U. Martinez-de-Lizarduy, P. M. Calvo, J. Mekyska, B. Beitia, N. Barroso, P. Gómez-Vilda, A. Estanga, M. Tainta and M. Ecay-Torres, Advances on automatic speech analysis for early detection of Alzheimer Disease: a non-linear multi-task approach, Current Alzheimer Research, Onartua. DOI: 1.1007/s12559-012-9169-9, ISSN, 1866-9956, IF ISI JCR: 3.12, Q2 Clinical Neurology, Scopus: dblp, Google Scholar. 1-1-22, 2017, Bentham Science Publishers, USA (accepted).

C ERANSKINA: ARGITARAPEN INDEZATUAK

1. K. Lopez-de-Ipiña, H. Eguiraun, J. Sole-Casals, M. Ecay, A. Ezeiza, N. Barroso, P. Martinez-Lage, U. Martinez-de-Lizardui, Feature Extraction Approach Based on Fractal Dimension for Spontaneous Speech Modelling Oriented to Alzheimer Disease Diagnosis, Advance in Non-linear Speech Processing, Lecture Notes in Computer Science, Springer, Verlang, Berlin (Alemania) 10.1007/978-3-642-38847-7_19, ISBN 978-3-642-38846-0, ISSN: 0302-9743, ISI Web of Knowledge (WoK), Scopus, SJR (SCImago Journal Rankings) 2012: 0.332, SNIP (Source Normalized Impact per Paper) 2012: 1.190, dblp, Google Scholar, 7911:144-151, 2013.
2. K. López-de-Ipiña, U. Martinez-de-Lizarduy, M. Ecay-Torres, P. Martinez-Lage, F. Torres, N. Barroso, M. Zaundez-Zanuy, Automatic analysis of Categorical Verbal Fluency for Mild Cognitive Impairment detection: a non-linear language independent approach, 4th IEEE IWOBI, Proceedings de IEEE, Donostia-San Sebastian, (Spain) 2015, Xplore, ISI WoK.
3. K. López-de-Ipiña, U. Martinez-de-Lizarduy, P. M. Calvo, B. Beitia, J. García-Melero, Analysis of disfluencies for automatic detection of Mild Cognitive Impairment: a deep learning approach, Proceedings de IEEE, Xplore, 5th IEEE IWOBI, Funchal, (Madeira, Portugal) 2017, ISI WoK (accepted).
4. K López-de-Ipiña, J Solé-Casals, U Martinez de Lizarduy, PM Calvo, J Iradi, M Faundez-Zanuy, A Bergareche, Non-invasive Biosignal Analysis Oriented to Early Diagnosis and Monitoring of Cognitive Impairments, Converging Clinical and Engineering Research on Neurorehabilitation II, 867-872, Springer International Publishing.

D. Eranskina: Bestelako argitarapenak

1. K. Lopez-de-Ipiña, J.B. Alonso, J. Solé-Casals, N. Barroso, P. Henriquez, M. Faundez-Zanuy, C. Travieso, M. Ecay-Torres, P. Martinez-Lage, U. Martinez-de-Lizardui, H. Egiraun, A. Ezeiza, Analysis of Spontaneous Speech and Emotional Response oriented to Alzheimer's Disease Diagnosis, I Jornadas Interdisciplinares de Voz, Habla y Canto 2013, Proceedings, Las Palmas de Gran Canaria (Spain) 2013.
2. U. Martinez de Lizarduy, K. López de Ipiña, P. Calvo, P. Gómez-Vilda, M. Ecay-Torres, ALZUMERIC: a decision support System for diagnosis and monitoring of cognitive impairment, Loquens, CSIC, 2017 (accepted).
3. Karmele López-de-Ipiña, Harkaitz Egiraun, Jordi Sole-Casals, Miriam Ecay, Aitzol Ezeiza, Nora Barroso, Pablo Martinez-Lage, Unai Martinez-de-Lizardui, Feature extraction approach based on Fractal Dimension for Spontaneous Speech modelling oriented to Alzheimer Disease diagnosis, NOLISP June 2013, Mons Belgica.

2. KAPITULUA: ARTEAREN EGOERA

2.1 Sarrera

Dudarik gabe, sintoma kognitiboen hautemate goiztiarra onuragarria da. Horren ondorioz, gaitzaren kudeaketa hobetze aldera, beharrezko da sintomak hautemateko bitartekoak merketzea eta horien erabilera orokortzea.

Testuinguru honetan, egun, medikuntza-azterketa zenbaiten (adib. FMRI, PET) baldintza teknologikoak eta kostuak direla kausa, ezinezkoa da markatzaile horiek gaixo guztiei aplikatzea eta, gainera, prozedura inbasiboak eskatzen dituzte (adib. zitzako lunbarra).

Horrez gain, gaurko irizpide eta teknikekin, dementzia agertzen denean eta gainerako kausa posibileak baztertzen direnean, AD-ren diagnostikoa zenbait segurtasun-mailatan adierazten da (litekeena da izatea...). AD-ren behin betiko diagnostikoa egiteko, post-mortem azterketa ezinbestekoa da, burmuinean izan diren aldaketa patologikoen analisia alegia [5]. AD-ren diagnostikoa klinikoa da eta, batetik, dementzia-sindrome progresiboaren berresprena eta, bestetik, osasun-txostena dela bide, gainerako dementzia-motak baztertzea eskatzen ditu.

Diagnostikoa burutzeko honako teknikak erabil daitezke besteak beste: osasun orokorra aztertzea, odol-analisi zorrotza, test neuropsikologiko sakonak, neuroirudietako teknika garestiak eta zitzada lunbarreko teknika inbasiboak [2].

Hala ere, hasierako faseetan diagnostikatzeak zaila izaten jarraitzen du. Izan ere, hala gaixoek nola senideek lehen agerpen klinikoak kontuan ez hartzeko/ezkutatzeko edota adinarekin zerikusia duten ohiko aldaketa kognitiboei leporatzeko [4] joera dute. Ondorioz, pazienteak askotan fase ertainetan edo aurreratuetan daudenean diagnostikatzen dira, eta horrek, sendabide-estrategiak eta horien eraginkortasuna zaitzea [4][6] dakar.

Horrez gain, gaitza aurrera joan ahala, sintoma horiek guztiekin errendimendua gutxitzea ekartzen dute eguneroko jardueretan. Azken urteotan, diagnostiko goiztiarra egiteko aurrerapen nabarmenak egin dira, biomarkatzaile kliniko fidagarriak eta diagnostiko/screening edo bahetze-tresna sendoak garatzeari esker. Edonola ere,

markatzaileen baliagarritasuna gorabehera, ezinezkoa da test horiek oroimen-hutsegiteak agertzen dituzten gaixo guztiei edo populazioari orokorrean egitea, dakartzaten kostuak eta eskakizun teknologikoak direla eta. Hortaz, soil-soilik, lehen hautaketan hartutako gaixoei aplikatzen zaizkie, kostu urriko bahetza egin eta gero AD patologia izan dezakelakoan [2][87][19].

Testuinguru orokorra hau hobeto ulertzeko artearen egoeraren azalpen sakona egiten da eta 4 azpiataletan banatu da:

Alzheimerrak komunikazioan sortzen dituen defizitetatik hasten da **2.2 Komunikazio-defizitak AD-n** atalean. Giza komunikazioak eguneroko bizitza duen garrantzia eta aztertzen ari garen AD gaitzak eragiten dituen defizitak, batez ere ahozko komunikazioari eta erantzun emozionalari dagokienez.

2.3 Eskuko metodologiak atalean, eskuzko metodologiei buruz hitz egiten da. AD detektatzeko tresna kliniko klasikoei buruz sakontzen da, ahozko komunikazioak balioztatzeko ataza eta screening test klasikoei buruz.

Ondoren, **2.4 Teknika automatikoak** atalean, azken proposamen automatiko berriak azaltzen dira. Test kliniko sendoetatik hasi eta hizkuntzarekin loturarik ez duten metodologia aurreratuetaraino. Hizketa automatikoaren hautemate lineal eta ez-linealen inguruko gaurko tekniken egoerari buruz sakontzen da atal honetan.

Bukatzeko, eta besteak beste, ikerketa honetan erabiliko diren sailkapenerako Deep Learning (DL) algoritmoen inguruko aurrekariei buruz hitz egingo da, **2.5 Neurona-sare Konvoluzionalak (CNN)** atalean. Azken bost urteetako ekarpenen azterketa egiten da. Azpiatala eskaini zaie, etorkizunari begira ikerketa-lerro berri oso interesarriak irekitzen dituztelako.

Mintzamenaren analisi automatikoan izandako aurrekarien zerrrenda egiteko, database garrantzitsuenak hartu dira erreferentziazko iturritzat, hala nola: PubMed, Scopus edota ISI Web of Knowledge.

2.2 Komunikazio-defizitak AD-n

Komunikazioa ezinbestekoa da gizakiok garatu eta bizirik irauteko. Gizakiok elkar eragiten dugu ahozkoa eta ahozkoa ez den osagaiez osatutako prozesu baten bidez. Ahozkoa ez den informazio horrek (gorputz-hizkuntza, jarrerak, ahots-modulazioak, aurpegi-adierazpenak barne) zerikusi handia du prozesu horrekin eta zehatzago hizketaren ulergarritasunarekin [10][11]. Hala ere, ahozko komunikazioa da, dudarik gabe, gure eboluzioa beste espeziekiko hoberen definitzen duen gaitasuna, eta eguneroko bizitzan gizarte-elkarrekintza gidatzen duena.

Hori dela eta, ahozko hizkuntza da pertsona baten adimena, gizarte-bizitza eta nortasuna definitzeko elementurik garrantzuenetako bat. Haren bidez, komunika gaitezke, baina aldi berean gure ezagutzak parteka ditzakegu eta gure nortasun pertsonala eta kulturala adierazi. Hortaz, jendearen arteko harremanetarako modurik intuitiboena eta eraginkorrena da. Gai gara mezuek dakartzaten hotsak ekoizteko, gure desirak, ideiak edota emozioak eta gure izatasunaren zatia ezkutatzen dituen bioseinale direnak. Oso prozesu konplexua da, gaitasun kognitiboen multzo zabala berarekin dakinrena. Prozesu horretan, burmuinak ezagutza, oroimena, hizkuntza eta informazio semantikoa kudeatu behar ditu. Aurreko ataletan aipatu bezala, lagin biologiko horiek oso erraz erregistra daitezke tresneria inbasibo eta garestirik gabe.

2.2.1 Alzheimerren Gaitza (AD)

Gaitza aurrera joan ahala, giza komunikazioarekin zerikusi zuzena duten zortzi arlo kaltetzen dira [12][13]: Oroimena, hizketa, pertzeptzia, arreta, eraikuntza-gaitasuna, aholkatze-gaitasuna, problemak ebazteko gaitasunak eta gaitasun funtzionalak.

Beraz, oroimena galtzearen ondoren, AD-ren arazo handienetako bat mintzamengaitasunaren galtzea da. Galera horren isla besteekin hitz egiteko eta ulertzeko zailtasunetan antzematen da. Ondorioz, inguruarekin eta gizarte-interakzioarekin komunikazio naturala zailago bilakatzen da, eta horrek, AD dutenen baztertza eragiten du eta oso eragin ezezorra du hala eriengan nola horien senideengan [14].

Komunikazio-defizit desberdinak ager daitezke mintzamen-gunean [15][16], besteak beste: afasia, hitz egin eta ulertzeko zailtasuna, afasia anomikoa, gauzak ezagutu eta izendatzeko zailtasuna. Gainera, pazientearen komunikazio-arazo zehatzek gaitzaren fasearekin lotura estua dute [6][8][15][16]:

- Hasierako fasean edo fase arinean (Early Stage, ES), gaixoari zaila egiten zaio hitz egokiak aurkitzea bat-bateko hizketan, eta hori, askotan, ez da detektatzen.
- Bigarren fasean edo fase ertainean (Intermediate Stage, IS) hizketa eta hiztegia pobretu egiten dira eguneroko jardunean.
- Hirugarren fasean edo fase aurreratuan edo larrian (Advanced Stage, AS) erien erantzunak oso hitz guxitara murrizten dira.

2.2.2 Narriadura Kognitibo Arina (MCI)

Nahasmendu Kognitibo Arinari dagokionez, AD-an bizi diren aldaketa horiek sotilak izan daitezke eta, hortaz, gehienetan ez dira detektatzen. Mintzamen-zailtasunak, ordea, komunikatzeko ezintasun hori, gaitza honen hasierako faseetan agertzen da.

Hasierako sintomak batik bat, mintzamen-zailtasunaz gain, hurbileko gertaeren ahazte progresiboa eta ikasteko gaitasuna endekatzea dira, baina badira beste zenbait

seinale adierazgarri batzuk: kognizio-gune batzuen nahasmendua, batez ere hizketa-nahasmendua [17] eta oroimen-narriadura da, dudarik gabe, hasierako sintomarik nabariena.

Azken hamarkadotan, hizketan, mintzamenean eta portaeran izandako zenbait aldaketa jaso dira. Ikerketa askok agerian jarri dute komunikazio-defizita nabarmena eta progresiboa dela, eta gaitzaren fase guztieta nabamentzen dela. Ulermena eta ahozko diskursoan, elkarrizketan, irakurketan eta idazketan [17][18] eragiten duela nabarmendu dute.

2.2.3 Mintzamenean defizita

Mintzamen-defizitak AD duten gaixo askorengan agertzen dira, eta seinale adierazgarritzat jo daitezke hasierako fasetan. Azken hamarkadotan, dokumentatu eta berretsi ahal izan da hizketaren disfuntzioa Alzheimer gaitzaren garapenean goiz azal daitekeen sintoma bat dela, eta biomarkatzaila erabilgarria izan daitekeela prebentzio eta detekziorako [2][19][14][20][21]. Lan horietan lantzen diren defizitak honako hauetakoak dira: adierazteko eta jasotzeko trebetasunak, izendatu eta ulertzeko akatsak, maila fonologikoan [20] zein sintaktikoan [22] artikulazio mugatua, zalantza semantiko edota diskurtsiboak, disfluentziak edo hitz-jarioaren narriadurak [21][23].

Izendatzea eta hitz-jarioa beste zenbait alderdi baino lehenago kaltetzen dira, eta dokumentatu denez, jario semantikoa (kategoriarik izendatzea, adibidez, animaliak) kaltetuago dago jario fonemikoa baino (letra batez hasten diren hitzak izendatzea) [6][24][25][26][27]. Hortaz, izendatzeko gaitasuna lehen mailako korrelatzailea da hala identifikazio goiztiarrerako nola AD-ren kontrolerako [28][29].

Anomia da gaitzaren aurreko fasean garatzen hasten den hizkuntza-sintomarik nabariena [30]. Ikerketa-sorta zabalak frogatu egiten du defizit hori; alabaina, izendatzeko akatsen tipologiari eta gaitzaren eboluzioan defizit horrek izaten duen eboluzioari buruz eztabaidea handiak daude oraindik ere [31][32].

Egile batzuen ustez, defizit horrek oroimen semantikoaren endekatzearekin zerikusia du [31]; beste batzuen iritziz, ordea, arazoa hitzaren forma fonologikora iristeko hutsegiteetan datza [33][34] edota, areago, beste azpisistemetan dauden arazoei leporatzen diete, eta burmuin osoaren atrofiarekin antz handia ez ote duen planteatzen dute [35].

Beste ikertzaile batzuek honako alderdi hauei begira azterzen dituzte defizitok: mintzamen-konplexutasuna (ataza mugatuak, hizketa literalak, imitazio-hizketa, parafrase literalak, izenordeak, neologismoak, anbiguotasuna erabakitzea, hizkuntzen ulermenaren edo bat-bateko hizketa) edo eleaniztasun-gaitasunak [19][36].

Ikerketa berriek, MCI-n, defizit horiek berresten dituzte [37][38], mintzamen-defiziten eta endekatze kognitibo progresiboen [22] arteko konexioak aztertzen dituzte eta eragile fisiologikoetan oinarritutako analisi berriak proposatzen dituzte [39].

2.2.4 Emoziōn eragina

Alzheimerdun gaixoengan, mintzamena ez ezik, erantzun emozionala ere kaltetu egiten da, eta, ematen duenez, zenbait fase ditu [40]. Emoziōak giza gogoaren arkitekturarekin zerikusia dituzten prozesu kognitiboak dira eta honako prozesu hauekin lotuta daude: erabakiak hartzea eta oroimenaren kudeaketa edota arreta, zeinak hertsiki lotuta dauden komunikazioarekin, ikasi eta ulertzearekin [41][42].

Bestalde, inguruneak, pertzepzio-sistemak eta inguru indibidualeten esperientziatik sortutako emozio-oroi menak eragin zuzena dute giza emozioetan [43][44]. Gainera, hasierako faseetako andeatzea dela bide, gizarte-desinhibizioa eta portaeraaldaketak gertatzen dira [45][46]. Hala ere, oroimen emozionalak mantendu egiten dira.

Fase aurreratuagoetan, gaixoak lotsati eta apatiko azal daitezke; sintoma horiek oroi men-galtzeari edota komunikatzeko zailtasunei eta pertzepzio aldatuari egozten zaizkio. Horrez gain, baliteke emozioak sentitzeko gaitasun-urritze horrek oroi men-galerarekin zerikusia izatea eta horrek apatia eta depresioaren itxura eragitea [47][46].

Irauen laburreko oroi men emozionalaren (Emotional Working Memory, EWM) eta AD-aren arteko harremanean arreta jartzen duten beste lan berri batzuek azpimarratzen dutenez, EWM osorik izatea lagungarri izan daiteke jarduera orokorraren mailak, motibazioa eta beste gaitasun garrantzitsu zenbait indartzeko eta, ondorioz, AD dutenen bizitza-kalitatea hobetzeko. Hortaz, emozio-gaitasunen endekatzea honako alderdi hauetan nabari daiteke: mantenuan, besteekiko loturan, inhibizioan [48].

Aipatu bezala, erantzun eta kudeaketa emozionalak ere badira gaitzaren hasierako fase horietan nahasten diren beste komunikazio-elementu batzuk eta Mammarrela et al.ek ondorioztatu zutenez, emozio handiko gertaerak hobeto gogoratzen dira gertaera neutroak baino. Hori bera agertzen da adineko pertsona osasuntsuengen [49][50], eta informazio emozionalaren kodetzea AD duten erien emaitzak ere tankerakoak dira [50]. Berez, zahartze osasuntsuari buruzko ikerlanek [51] agerian jarri dute informazio ezkorra beharrean, informazio baikorra gogoratzeko joera kontrol-prozesuen biltzean datza eta, ondorioz, estimuluek eragin zuzena izan dezakete oromenean garrantzi emozionalaren garrantziaren arabera. Are gehiago, emozioen eta oroi men emozionalaren (Work Memory, WM) arteko interakzioa AD-n hobeto argitzeko, egileek ikerlan bat aurkeztu dute WM-ren funtzioei, mantentzeari, loturei eta inhibizioari dagokienez [52][53].

Ezagutza- eta komunikazio-defizit eta portaera-sintoma horiek guztiak oso faktore baliagarriak izan daitezke AD ebaluatzeko.

2.2.5 Disfluentzian eragina

Disfluentziak ere hizketa-elementu interesgarriak dira, eta oso baliagarriak izan daitezke MCI behar bezala detektatzeko. Hala isiluneek nola disfluentziek informazio baliagarria izan dezakete ahozkatutako mezua deskodetzeko. Hori dela eta, ikerlan berrieik agerian jartzen dute bien garrantzia bat-bateko hizketan MCI eta AD identifikatzeko.

Iradokitzen denez [19], grabaketa-denbora motzetan AD duten gaixoek pertsona osasuntsuek baino ahalegin handiagoa egin behar dute hizketaldi bat burutzeko: AD-ren eriek polikiago hitz egiten dute geldialdi luzeagoekin, denbora gehiago behar dute hitz egokia aurkitzeko eta, ondorioz, hizketa-disfluentzia edo mezu hautsiak izaten dira. Hizketa-disfluentziatzat hartzen dira hizketa arinean gertatzen diren edozein etete, irregularitasun edota hitz ez-lexikal, hizketa hori hasi edo eten dezaketenak. Horien artean, aipa ditzakegu: hasiera faltsuak, behin eta berriro hasi edota errepikatzen diren perpausak, errepikatzen diren silabak, makulu-hitzak edota purrustadak eta hiztunek beraien *lapsus linguaeak* edo ahoskatze okerrak zuzentzea [54].

Elementu horiek helbururik edota esanahi formalik gabeko hizketaren zatitzat jotzen dira. Batzuetan, akatsak zuzentzeko edota ondorengo adierazpenak aurreratzeko erabiltzen dira. Maiztasun handiz agertzen dira hizketan, eta erregularki errepikatzen dira eguneroko elkarritzetan. Ikerketa batzuek nabarmendu dute bat-bateko hizketan izaten diren nahasteetan kontuan hartu behar direla jaioterriko hizkuntzen ereduak [55]. Elementu horiek guztiak hizketa hutsarekin batera eboluzio kognitiboaren isla dira ahozko komunikazio-prozesua bitartean, eta beren maiztasuna handiagoa da bat-bateko hizketan. Are gehiago, disfluentzia ez-patologikoek oso informazio aberatsa izan dezakete emoziozko egoeraz edota hizkuntza-planteamentuaz.

Disfluentzia horien handiagotzeak nahaste kognitiboaren isla nabarmena izan daitezke, eta batzuetan, AD-ren gaixoengan, barne-prozesu kognitiboaren hitzezko ahoskatzea bilakatu daitezke, barne-solasketa moduan: “Zer da hori”, Nola du izena?”, /um/, ez naiz gogoratzen”.

Disfluentziak eta isiluneak ugaritzeak gaitzaren okertzearen isla izan daitezke, eta komunikatzeko gaitasun eza nabarmena eragin ditzakete. Hitz batean, komunikatzerako unean, disfluentziak prozesu kognitiboaren isla dira, eta balio handikoa izan daitezke nahaste horiek detektatzeko.

2.2.6 Egitura biomekanikoan eragina

AD batez ere gaixotasun kognitibo den arren, fonazio- zein artikulazio-asaldura biomekanikoak erdietsi ditzake. Hori ezin zaio transmisio- edo modulazio-arazoei egotzi, baizik eta distonia orokor bati. Fonazio disprosodiko eta astenia zein artikulazioen ahultasuna bezala adierazten da. Fenomeno horiek inflexiorik gabeko eta asteniadunahots monotono baten antzera jasoko da, baita airepean eroritako itxiera glotiko defizitarioa bezala ere [39][56]. Artikulazioen ahultasunak, batez ere kontsonante plosiboetan, bokalaren hasiera bigundu eta urtua izango ditu ondorio baita hipernasalitate areagotua ere. Garapenaren ondorengo faseetan, laringeko erreflexua aldatua egon daiteke, eta horrek, disfagia eta disfonia zorrotza sor ditzake. Dena den, ia ziur, gaixoak ahoz komunikatzeko gaitasun osoa galdua izango du etapa horretara iritsi orduko.

2.3 Eskuko metodologiak

2.3.1 Sarrera


Ezagutza-ebaluazioak, AD detektatzeko tresna kliniko baliagarrietako bat denak, testak egiteko oso eremu zabala irekitzen du eta ez ohiko zahartze-prozesu baten hasierako faseak ezagutzeko erabil daitezke. Honako hauetan atxikitzen dira: screeningean, jatorriaren diagnostiko diferentzialean, nahastearen larritasuna aztertzean, depresioa detektatzean eta gaitzaren progresioa monitorizatzean [57].

Ebaluatze kognitiboa egitean, hizkuntza eta hizketa dira azterketaren elementu garrantzitsuak, giza komunikazioaren prozesuaren zati ezinbestekoa baitira. Komunikazio-gaitasunen andeatzea honako faktore hauek kontuan hartuta aztertzen dira gehienetan: oroimenaren nahastea, izendatzea, gogoratzea, hitz-jarioa eta emozioen kudeaketa.

2.3.2 Ahozko komunikazio-gaitasunen ebaluaketa

2.3.2.1 Hitz-jario kategorikorako atazak

AD-ren hasierako fasean, oroimenaren nahastearen ondorioz agertzen den lehen sintometako bat izendatzeko defizita da. Ildo horretan, izendatzeko akats motak eta haien eboluzioa gaixotasuna aurrera egin ahala ikertzen ari dira; izendatzeari dagokionez, gehien ikertu diren akatsak honako hauek dira: ahozko parafasia semantikoa, ahozko parafasia fonemikoa, erantzunik eza (anomia garbia), izenaren falta, zirkunlozioa eta loturarik gabeko ahozko parafrasia [17].



Irudia 2. 1: Atazetara mugatutako proba klinikoa [39]. Animalien izenak. Iraupena 10 segundu kasu bakoitzean. Hizkeraren azterketa BioMetroLing-en bidez. a) Goiko aldean kontrolerako subjektu emakumezkoa. b) Beheko aldean AD duen gaixo gizonezkoa. Zian: hizketaren arrastoa. Gorria: energiazorroa. Zuria: f0. Beltza: lehen formantea. Urdina: bigarren formantea. Alderdi garrantzitsuak: Kontrolatutako subjektuak f0 egonkorra sortzen du eta espektroak maiztasun-laginketa muga arteko armonikoak erakusten ditu. Formanteak ahoskuntza-prozesu biziak erakusten dituzten zoliak dira. Ahoskuntza-segmentuak luzeak dira; isiluneak gutxi batzuk eta motzak. Ahoskuntza asteniko eta aireztatuaren ondorioz, AD duen gaixoak f0 oso ezegonkorra sortzen du. Armonikoak ia ez dira ikusten. Formanteak trakets mugitzen dira, eta horrek, hondatutako ahoskuntza-prozesu nagia erakusten du. Ahoskuntza-segmentuak laburak dira eta etenaldiak luzeak. Denbora bitarte berean, kontrolerako pertsonak hamar animaliren izenak esan dituen bitartean (txakurra, katua, arratoia, untxia, behia, zaldia,

idia, mmmm ... ahatea, antzara) gaixoak hiru besterik ez ditu esan (txakurra... eeeh...otsoa...eeeh...ardia). Denbora-eskalak fitxategiaren edukiari dagozki.

Beste sintoma argia eta goiztiarra hitz-jarioaren nahasmendua da. Oroimen semantikoa ebaluatzeko ataza edo ariketa neuropsikologikoen bidez neurten da (hitz-jarioaren testak, hitz-zerrendaren sorrera azeleratua). Ariketa horiek erabilitako hizketa murritzutegiak dute lotura semantikoak kontrolatu ahal izateko. Haien artean, AD detektatzeko gehien erabiltzen den testa kategorien araberako hitz-jarioarena da (CVF) [58][59]. Test horrek laneko oroimenarekin zerikusia duten hitz-jarioaren bi azpiko osagai aztertzen ditu: clustering-a (azpikategoria batean segidako hitzak sortzeko gaitasuna) eta switching-a (azpikategoria batetik bestera aldatzeko gaitasuna).

Gehienetan, test hauetako ondoriozko aldagai primarioa ekoitzitako hitzen kopuru osoan oinarritzen da. Diagnostikoaren arabera ia ziur AD duten pertsonen fonema- eta kategoria-jarioen hitz-errrendimendua okerrera jotzeko joera du [58][59]; kategoria-jarioaren nahasmendua, ordea, nabarmen larriagoa da fonema-jarioa baino [60][61], nahiz eta ez egokitze horri buruzko lanetan kontraesanak dauden.

Esperimentaziorako erabiliko den Animalien Izendatze (AN) ataza hemen taldeka daiteke.

2.3.2.2 Hizketa irekiagoko atazak

Azken urteotan, aztertzen ari dira hizketa irekiagoan oinarritutako hizketa-egintza konplexuagoak:

- a) Sidtis-ek eta Landker-ek sorterriko hiztunen forman eta esanguran ezagunak zaizkien esapide ez literalen burmuin-prozesatzea ikertu dute [62]; besteak beste, esamoldeak, atsotitzak, biraoak eta hizketaren formulak. Hizketa literal ezagunaren ezaugarriak eta hizketa ez literalenak bereizi egiten dira. Berez, afasian mantendutako hizketa automatikoak eta beste zenbait gaitz neurologikotan narriatutako hizketa ez proposisionalak iradokitzen dute hizketa mota horiek burmuinean gordetzen eta prozesatzen direla, sortu berriko hizketan ez bezala.
- b) Chand *et al.*-ek Ideia Dentsitatea (ID) aplikatu zuten AD detektatzeko [63]. Hasieran, ID proposatu zen narratibetako oroimenaren karga neurteko, testuaren edukiaren irudikatze semantikoaren bidez, proposizioak edo ideiak deituriko unitate semantikoen segida moduan, alegia.
- c) Gilmore *et al.*-ek ahozko irakurketaren abiadura balioztatu zuten subjektu osasuntsuekin eta AD dutenen eriekin egindako kontrasteko estimuluen maila-sorta zabala zela bide. Ondorioztatu zutenez, AD-ren gaixoen erauzketa-ezaugarrien abiadura eta dementziarik gabeko heldu zaharrenarena alderagarriak dira, baina bakar-bakarrik beren arteko kontraste handia duten estimuluen aurrean [64].
- d) Ostberg *et al.*-ek hitz-segida automatikoen atzeranzko oroitzapenari buruzko

ikerketa bat aurkeztu zuten, non hitz-segidaren produkzioa aztertzen den. Hiru kategoria ikertzen dira: nahaste kognitibo subjektiboa, nahaste kognitibo arina eta dementzia arina Alzheimerren gaixotasunean.

Kasu horretan, diagnostikatzea helburu, hilabeteko izenak erabili ziren atzeranzko versus aurreranzko hitzen segidaren ekoizpena ikertzeko, dementzian hala abiadura nola zehaztasuna nahastuta daudela kontuan hartuta. Ondorioztatu zutenez, hitzen segidaren ekoizpenak (batez ere atzeranzkoak) informazio garrantzitsua eskaintzen du kostu baxuko dementziaren diagnostikorako [77].

Esperimentaziorako erabiliko den Irudien Deskribapena (PD) ataza hemen taldeka daiteke.

2.3.2.3 Hizketa ez-murritzuko atazak

Berrikitan, zenbait ikerketa berrik konplexutasun handiko egoerak aztertu dituzte, hizketa ez-murritzuko atazetan edo ariketetan oinarritura (bat-bateko hizketa, elkarriketak edota hizketaldi librea). Hizketa-egintza konbentzionaletako testek komunikazio-osagai espezifikoak ikertzen dituzte (izendatzea edota hitz-jarioa), baina ez dira kontuan hartzen diagnostiko goiztiarra egiteko garrantzitsuak izan daitezkeen oinarrizko komunikazio-gaitasunak, besteak beste, faktore emozionalak edota hizketaren hitz-ekoizpen erreala. Are gehiago, pertsonak heziketa-maila jasoa duenean, baliteke hizketa murritzuaaren testak MCI detektatzeko gai ez izatea, eriak behar adina baliabideak baititu izendatze-arazo hipotetikoak saihesteko eta, hortaz, gaitzak ezkutatuta jarraitzen du.

Hori dela eta, gizarte-markatzaile baliotsu bat, adibidez, hizketaldi libre batean ahoskatutako hitzen proportzioa, gaixotasunaren zantzu goiztiarra izan daiteke. Biomarkatzaile berri horiek kognizio normaletik MCI-rako trantsizioekiko sentikor izan daitezke, eta biomarkatzaileei buruzko ikerketak osa ditzakete arriskupeko parte-hartzaileak aukeratzerakoan edota identifikatzerakoan lehen sintomak agertu aurreko fasean [38][65].

Esperimentaziorako erabiliko den Bat-bateko Hizketa (SS) ataza hemen taldeka daiteke.

2.3.3 Screening test klasikoak

Ikertzaileak urte luzeetan ibili dira hautemate-teknika garesti eta inbasiboei alternatibak bilatzen. Mintzamen-gaitasunetan edo emoziozko egoeren aldaketetan izaten den andeatzea sakon analizatu dira screening test tradizionalak direla bide.

Ondoren zehaztuko dira gehien erabiltzen diren screening test klasikoak, ahozko komunikazio-analisiarekin batera egiten direnak.

2.3.3.1 Hizkuntza-gaitasuna hautematea

Woodford-ek eta George-k [66] ahozko komunikazio-defizita hautematearen bidez nahaste kognitiboak ebaluatzeko gehien erabiltzen diren tekniken berrazterte zehatza egin dute. Deskribatutako screening test klasikoak era askotakoak izan daitezke: oso iraupen laburreko (minutu bat baino gutxiagoko) screening tresna laburretik zenbait ordu behar dituzten hautemate neuropsikologikoetara. Gehienak oroimen-nahastea edota hiz-jarioa detektatzera zuzenduta daude, oso egintza mugatuen bidez. Test klasiko horien artean, gehien erabiltzen direnak honako hauek dira:

2.3.3.1.1 MMSE

Buruko Egoeraren Mini Azterketa (Mini Mental State Examination, MMSE) [67] edo Folsteinen testa eta bere aldaerak 30 puntuo galdeketa da zeina zabal erabiltzen den klinika- eta ikerketa-testuinguruetan nahaste kognitiboa neurtzeko. Gehienetan, dementzia aztertzeko erabiltzen da eta egoki korrelazionatzen da beste kognizio-screening testen emaitzakin eta test neuropsikologikoekin. Are gehiago, test horren bidez neurtu daiteke nahaste kognitiboaren larritasuna eta progresioa, eta jarraitu daiteke aldaketa kognitiboen bilakaera luzetarako hautemateen bidez edota tratamenduei izandako erantzunaren bidez. Testak gutxi irauten du, 5-10 minutu, eta baliagarria da zenbait funtzio aztertzeko, besteak beste: erregistroa, arreta eta kalkulatzea, gogoratzea, mintzamena eta agindu simpleak betetzeko eta orientatzeko gaitasuna [3].

2.3.3.1.2 BNT

Izendatze Boston Test Eraberritua (Revised version of the Boston Naming Test, RBNT) [68] beste erreferentzia klasikoa da. Izendatze Boston Testa [57][68] funtzionamendu kognitiboa hautematen lagundu dezakeen screening tresna da. Test horren bidez diagnostikatu daiteke hitzak aurkitzeko gaitasuna eta egintza horrekin zerikusia duten funtzioak. Jatorrizko testean, 60 lerro beltzen marrazkiak daude, errazenatik zailenera antolaturik, eta testa egiten duenak identifikatu behar ditu. Testaren aurkezleak ordenean aurkezten ditu, eta eriak 20 segundu ditu identifikatzeko. Test hori Alzheimerren Gaitzaren Erregistroa Ezartzeko Partzuergoa (CERAD) izeneko testen bildumaren parte bat da [69].

2.3.3.1.3 CERAD

Alzheimerren Gaitzaren Erregistroa Ezartzeko Partzuergoaren (CERAD) beste testak, CERAD-ren Saila Neruopsikologikoa [70], CERAD-ren Oroitzapen Atzeratuetako Hitzen Zerrenda [69], Kaliforniako Ahozko Ikaste Testak (California Verbal Learning Test, CVLT) [71], Hopkinsen Ahozko Ikaste Testak (Hopkins Verbal Learning Test, HVLT) [72], Hitz-zerrendak Ikastea edota Tarte zabalekin egindako Lorpenen Probaren Test Eraberritua (Wide Range Achievement Test-Revised, WRAT-R) [73] dira.

Alzheimerren erregistroa ezartzeko partzuergoarentzat garatutako test neuropsikologikoak, gaitz horren ikerketa klinikoetan erabiltzen dira, nahaste kognitiboak neurtzeko gehienbat [66][69]. Gaitzaren zenbait agerpen hautemateko, CERAD-ek tresna estandarizatu batzuk garatu zituen, besteak beste: klinikoa/neuropsikologia, neuropatologia, dementziatan portaera sailkatzeo eskala, familiako historiari buruzko elkarritzak eta zerbitzuen beharra detektatzea [70].


Zehazki, Tarte zabalekin egindako Lorpenen Probaren Testa 4 (WRAT4 ingelessez) [74] errendimendu-proba bat da eta modu eraginkorrean ikasteko, komunikatzeko eta pentsatzeko oinarrizko gaitasun akademikoak neurzen ditu: irakurtzea, letraka esan/irakurtzea, funtsezko eragiketa matematikoak egitea.

2.3.3.1.4 RAVLT

Reyren Entzute-Hitzezko Ikastearen Testa (RAVLT) delakoa baliagarria gertatu da ahozko ikastea eta oroimena balioztatzeko, honako hauetan barne: inibizio proaktiboa, inibizio retroaktiboa, gogoan atxikitzea, kodetza versus berreskuratzea eta antolatze subjektiboa.

AD-ren kasuak detektatzeko, elkarritzak eta bat-bateko hautematea Reyren Entzute-Hitzezko Ikastearen Testa dela bide [75][76] sentipen-markatzale hoherenetarikoak dira. RAVLTek funtzio asko ebaluatzen ditu: entzute-hitzezko oroimena epe motzean, ikasteko gaitasunaren indizea, ikasteko estrategiak, interferentzia retroaktiboak eta proaktiboak, nahastea agertzea oroitze-prozesuetan, informazioa gogoan atxikitzea, eta ikastearen eta berreskuratzearen arteko aldeak.

Parte-hartzaileei elkarren artean ahaidetasunik ez duten hitzen zerrendak ematen zaizkie, zenbait probatan behin eta berriro agertzen direnak, eta errepikatzeko eskatzen zaie, denboratxo bat igaro eta gero.



Irudia 2. 2: Atazari murriztutako test klinikoa [39]. Irudiaren deskribapena. Luzapena: 10 segundu inguru kasu bakoitzean. Hizketaren azterketa BioMetroLing-en bidez. a) Goiko aldean kontrolerako emakumezko. b) Beheko aldean, AD duen emakume gaixoa. Zian: hizketaldiaren arrastoa. Gorria: energia-zorroa. Zuria: f0. Beltza: lehen formantea. Urdina: bigarren formantea. Alderdi garrantzitsuak: kontrolatutako subjektuak segmentu fonatu bakoitzaren bukaeran inflexio prosodiko argiak erakusten dituen f0 sortzen du (\uparrow) eta espektroak armonikoen irudikatze ona erakusten ditu. Formanteak ahoskuntza-prozesu biziak erakusten dituzten zoliak dira. Ahoskuntza-segmentuak luzeak dira; isiluneak gutxi batzuk eta motzak. AD duen gaixoak f0-n inflexio prosodikoak sortzen ditu ere: armonikoen irudikatzea onargarria da. Formanteak pixka bat motelagoak dira. Fonazio-segmentuak laburragoak dira. Geldiune gehiago daude. AD duen gaixoaren narriadura, 1. irudikoarekin konparatuz, ez da hain gogorra. Denbora-eskalak fitxategiaren edukiari dagozkio.

2.3.3.1.5 CVF

Beste test baliagarri batzuk, atzeranzko oroitzapena eta Hitz-jario Kategorikoaren azterketa (Categorical Verbal Fluency, CVF) dira. Hitz-segida automatikoen ekoizpenaren atzeranzko oroitzapena honako hauetarako ere aspalditik erabiltzen den testa da: kognizio-nahasmendu subjektiboa, kognizio-nahasmendu arina eta dementzia arina Alzheimerren gaixotasunean [43][77]. Gehienetan, aurreranzko ekoizpena normal mantentzen da kategorietan zehar; atzeranzko abiadura eta zehaztasuna, ordea, nabarmen gutxitzen dira nahasmendu kognitiboan eta nahasmendu kognitibo arinean. Hortaz, atzeranzko produkzioak garrantzi handia du diagnostikatzerakoan.

CVF delakoa test batean oinarritzen da, zeinak nahaste kognitiboaren garapena neurtu eta kuantifikatzen duen gaitz neurodegeneratiboetan [37]. Test hori baliagarria da ere AD gaitzaren hasierako faseetan detektatzeko, prodromo-fasean, alegia [78][79]. Asko erabiltzen da mintzamen-gaitasunak, elkartze-oroimena eta funtzio betearazleak neurtzeko.

2.3.3.2 Emozio-egoera hautematea

Emozioek oroimena hobetu edo kaltetu dezakete hala iraupen laburreko oroimenari nola iraupen luzeko oroimenari dagozkien egintzetan. Harreman-oroimena erabiltzen denean, emozio-estimuluen presentziak eragin desberdina izan dezake, baita bi alde edo alde gehiagoren arteko harremanean ere.

Emozioen eragina oroimenaren kudeaketan zenbait testen bidez neurtu daiteke, NYUko (New York Unibertsitateko) istorioen bidez, adibidez [80], zeinak oroimen deklaratiboaren test estandarizatuak diren. Test horretan, sei hitzezko deskripzio daude, astearen egun jakin batean jazotako gertaera batekin zerikusia dutenak. Testa zuzentzen duenaren prozedura honakoa da: pazienteak gertaeraren deskripzioa ozen irakurtzen du, eta segituan eskatzen zaio ahoz gogoratzea jazoerari buruz gogoratzen duen guztia.

Kensinger *et al.*ek [81] egindako ikerketak nabarmendu du badirela semantikoki koherenteak diren ahozko estimuluak behar adina emozionalak direnak oroitzearen edertzea edo hobetzea eragiten dutenak heldu osasuntsuengen, gazteago edo zaharrago izan; AD dutenengan, ordea, ez da emozioarekin lotutako modulazio garbi hori hautematen [81].

Priming paradigma afektiboa dela bide, Padovan *et al.*ek aztertu zuten emozio-informazioaren aktibatze inkontziente eta automatikoa iraupen luzeko oroimenean. Haien ikerketan, *target* hitzak (gako-hitzak) aztertzen dira zenbait *primerekin*, positiboak zein negatiboak, batera. Egileek ondorioztatu zutenez, AD-ren eriengana bias edo joera negatiboa mantentzen zen; *target* positiboek, ordea, asaldatu egiten zuten *priming* eragin emozionala, baita hasierako faseetan ere. [82].

Emoziozko estimulu ez-neutroek eragin nabarmena dute oriomenean; adibidez, Giffard *et al.*ek iradokitakoaren arabera, emozio kontzeptuek, neutroek direnek bezala, beren nolakotasun bereizgarrietako batzuk galtzen dituzte AD goiztiarrean, eta emozio-prozesuak mantentzen direnez, antzekotasun handiagoa dago emozio kontzeptu itxien artean, kontzeptu neutro itxien artean baino [83].

Tapus *et al.*ek metodo terapeutiko oso interesgarria aurkeztu dute robotekin; izan ere, hori dela bide, dementzia dutenen portaera positiboa areagotu egiten da [84].

Henry *et al.*ek AD dutenen eta kontrol-subjektuen portaera eta emozioak aztertu zituzten. Esperimentu horretan, film-klipak ikusarazten zaizkie bi motatako pazienteei, emozioen bat-bateko adieraztearen, ezabatzearen edo areagotzearen egoerapean. Bi taldeek arazoak izan zituzten jokaera-areagotzearekin. Alabaina, nahita egindako ezabatzearen erabilera osorik mantentzen zen, baita AD dutenengan ere; hori bat dator zahartze-ereduekin, zeinen arabera emozioak kontrolatzeko prozesuak nahiko automatikoak diren zaharrengan [46].

Zhang *et al.*ek ere jakinarazi zutenez, AD-ren fase goiztiarrean dauden eriek emozio-kontrol automatikoko mota batzuk burutzeko gai dira, eta oso aldeko jarrera erakusten dute emozio-ezagutzaren eta emozio-oromimenaren aurrean, zeinak ezinbestekoak diren haien funtzionamendu sozio-emozionala mantenzeko, nolabaiteko moldatzearen laguntzaz. [85].

Bergmann *et al.*ek ikertu zituzten hala bi balentzien eraginak (neutroa versus positiboa versus negatiboa) nola kitzikapena (baxua versus altua) inter-item WM (Laneko Oromena) loteslea eta LTMren (Iraupen Luzeko Oromenaren, LTM ingeleset) ariketen bidez. Esperimentu horietan, hainbat etiketatutako irudi erakutsi ziren, eta WMri eta LTMri lotutako bi fasetako testak burutu ziren. Ikerketak agerian utzi zituen bi kasuen arteko desberdintasunak maila emozionalei dagokienez. Desberdintasunak txikiagoak ziren LTMren ariketetan [86].

2.4 Teknika automatikoak

Screening testen bidezko kognizio-hautemateak, zuzenean edo zeharka, hizketaren analisia, galderak, elkarritzetak, izendatzea, *clustering* semantikoa edota deskripzioak ekartzen ditu.

Hizketa oso erraz grabatu eta aztertu daiteke, eta oso informazio osagarri baliagarria eskain dezake honako hauen neurtze objektibo eta zehatza direla bide: iraupena, hizketaren ezaugarriak, faktore biomekanikoak edota hizketa-nahastearen maila.


Lortutako informazio hori lagungarri izan daiteke espezialistek zehatzago balioetsi dezaten gaixotasuna hasierako faseetan. Atal honetan, sistema-mota horren garapena deskribatuko da, eta, aldi berean ere, gaur dauden tresnak AD hautemateari begirako hizketa automatikoaren analisirako.

Duela gutxi arte, espezialistek eskuz egin zituzten test horiek; alabaina, azken urteotan, sistema eta tresna automatikoak gero eta gehiago erabiltzen ari dira baita jarduera klinikoan ere.

Gaur egun, aurrez aurreko hizketa-testak eta gaixoekin eta beren senideekin automatikoki egindako elkarrizketa grabatuak aztertzen dira, eta aukera horrek oso tresna baliagarriak eskainzen ditu erabilitako hizkuntza eta erantzun emozionalak aztertzeko. Teknika aurreratu hauen bidez, hiztunen bat-bateko hizketa edota hizketa murriztuaren azterketa egin daiteke, eta baita ahotsaren analisi biomekanikoa ere.

Hizketa automatikoa aztertzeko teknikok zehaztasun handiz neurtu ditzakete ahozko hizkuntzaren nahasteak eta emocio-erantzunetan izandako aldaketak; biak AD-k kaltetzen ditu fase goiztiarretan, eta gaixotasunaren larritasuna balioesten lagun dezakete.

Gainera, diagnostikatzeko prozedura horiek pazientearen ohiko ingurunean egin daitezke (anbulatorioan edo etxeen), hau da, giro lasaian eta teknikariak ez diren pertsonak edo senideak direla medio [87][19]. Pazienteek ez dute estresagarritzat jotzen bat-bateko hizketaren edo hizketa murriztuaren analisia [19][88]. Izan ere, patologia horiek diagnostikatu eta ezaugarritzeko teknika horiek ahozko test edo elkarrizketa simpleak baino ez dituzte behar. Azken urteotan, aurrerapen ugari izan dira AD edo MCI detektatzean eta monitorizatzean.



Irudia 2. 3: Bat-bateko hizketa [39]. Luzapena: 10 segundu inguru kasu bakoitzean. Hizketaren azterketa BioMetroling-en bidez. a) Goiko aldean kontrolerako emakumezkoa. b) Beheko aldean, AD duen gizonezko gaixoa. Zian: Hizketaldiaren arrastoa. Gorria: energia-zorroa. Zuria: f0. Beltza: lehen formantea. Urdina: bigarren formantea. Alderdi garrantzitsuak: kontrolatutako subjektuak segmentu fonatu bakoitzaren erdian eta bukaeran inflexio prosodiko argiak erakusten dituen f0 sortzen du (\uparrow) eta espektroak armonikoen irudikatze ona erakusten ditu. Formanteak ahoskuntza-prozesu biziak erakusten dituzten zoliak dira. Ahoskuntza-segmentuak luzeak dira; isoluneak gutxi batzuk eta motzak. Ahoskuntza asteniko eta aireztatuaren ondorioz AD duen gaixoak ez du f0 egonkorra sortzerik lortu. Armonikoak ia ez dira ikusten. Formanteak trakets mugitzen dira, eta horrek, hondatutako ahoskuntza-prozesu nagia erakusten du. Ahoskuntza-segmentuak laburrak dira eta etenaldiak luzeak. AD gaixoaren narriadura gogorragoa da [39] kasuan bezala. Denbora-eskalak fitxategiaren edukiari dagozkio.

2.4.1 Hizketa automatikoaren hautematea

Espinoza-Cuadros *et al.*ek hitz egiteko hiru estilo aztertu zituzten: hizketaldiak elkarritzeta estrukturaletan, pasarte motz baten irakurketak eta irudien ahozko deskripzioak.

Ondoren, *Random Forest* sailkagailua aplikatu zuten solasetik ateratako zazpi prosodia-neurritan. Esperimentazio-esparru horrek argi utzi zuen identifikazio automatiko eta objektibo horrek adineko helduengan duen potentziala MCI-ren hasierako sintomak azalerazteko. Hizketaren laginak biltzen joaten dira nahaste kognitiboari buruzko screening testak bitartean. [89].

Gonzalez-Moreira *et al.*ek prosodia automatikoki aztertu zuten dementzia arina dutenei eta adineko pertsona osasuntsuei eginiko irakurketa-ataza batean. Emaitzek erakutsi zuten proposaturiko hizketaren analisi konputazionala aukera alternatibo bideragarria dela dementzia-ezaugarriak adineko jendearengan automatikoki identifikatzeko [90].

Romerok eta Kurz-ek luzetarako ikerketa egin zuten, zeinak, Alzheimerra duten gaixoengen bat-bateko hizketaren okerragotzearen ratioa neurtu eta faktore kliniko eta demografikoengen eragina ratio horretan zehaztu zuen.

Horrez gain, beste zenbait eredu aztertu ziren: bat-bateko hizketaren nahasmendua komunikazio- eta semantika-alterazio nabarmenekin, hizketa automatikoaren alterazio arinak baina gogoan gordetako egitura fenomenikoekin.

Ikerketak ondorioztatu du dementziazk historia familiarra duten pazienteek bat-bateko hizketa azkarrago txartzeko joera dutela. Bat-bateko hizketa txartzearen ratioaren eta beste faktore kliniko eta demografikoengen arteko zerikusia hasierako bat-bateko hizketa-nahastean bakarrik antzeman zuten [91].

Thomas *et al.*ek metodo automatiko eta objektibo berritzaleak pazienteak diagnostikatzeko bat-bateko hizketaren azterketa dela medio aztertu zituzten, AD detektatu eta neurtzeko arazoarekiko zenbait hurbilketa lexikalez baliatuta. Hurbilketa horiek gramatika-faktoreak ikertu zituzten batez ere metodologia estokastikoen, n-gramen, bidez [92].

Hizketa eta mintzaira aldarazten dituzten zenbait gaixotasun neurodegeneratiboren diagnostiko automatikoari dagokionez, Peintner *et al.*ek oso emaitza akuilagarriak lortu zituzten ikasketa automatikorako paradigmak erabiltzeari esker. Egileok bereizgarriak atera zituzten audio-seinaleetatik eta hitzak lortu zituzten transkripzioko teknologia automatikoak erabilita. Horrela, automatikoki ikasitako ereduek iragartzen dute AD duen pazientearen diagnostikoa [93].

Verucci *et al.*ek testu batetik automatikoki atera zuten ID identifikagarria. Atariko emaitzak aztertu zituzten ondo garatutako kazetaritza-testu batean eta dementziadun pertsonen hizketa-transkripzioetan oinarrituta [94].

Roark *et al.*ek MCI-ren pazienteek azterketa neuropsikologikoetan emandako ahozko erantzunak aztertu zituzten. Adineko subjektu osasuntsuen eta MCI duten pazienteen arteko diskriminazioa egiteko ohiko hautematean, ahozko kontakizun-oritzapena grabatu zen. Ondoren, hizketa-markatzaile automatiko batzuk, besteak beste, hizketa-ezaugarriak (maiztasuna eta etenaldien iraupena) edota konplexutasun linguistikoaren neurriak, atera zituzten irarketaren audiotik eta transkripziotik. Emaitzek agerian jarri dute neurri automatiko osagarri horien baliagarritasuna MCI-rako [95].

Martinez-Sanchez *et al.*ek tresna erdiautomatikoa aurkeztu dute hizketaren denbora-antolaketa ikertzeko ahozko irakurketa-ataza batean, Alzheimerdun pazienteen test neuropsikologikoetan integratuta. Esperimentu horietan, AD dutenek hizketa- eta artikulazio-ratio murriztuta izaten dute fonazio-denboraren eraginkortasun txikiagorekin eta etenaldien kopuru eta proportzio handienekin batera. Hortaz, seinaleak prozesatzeko algoritmoak irakurketa-jarioarekin erabiliz gero, erabilgarriak izan daitezke hizketa-urritasunen ikerketarako AD-n [96].

Orlandi *et al.*ek metodo berri, automatiko, azkar eta fidagarri berri bat aurkeztu dute ahots-kandidatu delakoak aukeratzeko iraupen luzeko audio-irarketetatik hala klinika- nola etxe-aplikazioetarako [97].

Khodabakhsh *et al.*ek diagnostiko-hurbilketa automatikoa ikertu zuten, hizketa-bereizgarrien erabilera oinarrituta, egoera informaletan subjektuekin egindako bat-bateko elkarrizketak direla medio. Hizketa prosodikoa eta bereizgarri linguistikoak azterzen dituzte, AD detektatu eta monitarizatzeko ikasketa automatikorako paradigmak erabiltzearen bidez [98][99].

Garrard *et al.*ek honako teknikaren ahalmena esploratu zuten: klinika-saiakuntzen barruan transkribatutako hizketa-ereduak sailkatzea, hiztegi-datuak soilik erabilita. Informazio aberatsena duten hiztegi-bereizgarriak identifikatzeko, informazio-irabazia (Information Gain, IG) delakoaren erabilera azterzen da maiztasun apaleko edukidun hitzak, hitz generikoak eta adierazpen metanarratiboen osagaien bidez [100].

Rudzicz *et al.*ek Alzheimerdun pazienteen eta roboten arteko interakzioak eguneroko lanak direla bide ikertu dituzte, etxeko ingurune simulatu batean. Hizketa Ezagutze Automatikoa (Automatic Speech Recognition, ASR) ebaluatu egiten da, solasean nahasteak edota arazoak adierazten dituzten ahozko portaeren indizeekin batera [101].

Hitz-jarioaren kalitatea ebaluatzen duten hizkuntza-bereizgarrien neurketa edota indize semantikoei dagokienez, sistema automatiko berri hauek emaitza azkarragoak eta errazagoak eskain ditzakete eskuzko gainerakoekiko [102][103].

López de Ipiña *et al.* lengoaiarekiko independenteak diren metodologien integrazioa AD hizketan detektatzeko aztertu zuten, Hitz-jario Kategoriko (Categorical Verbal Fluency, CVF) delakoari buruzko ataza baten bidez [38]; zehatzago, Animaliak Izendatzeko (Animal Naming, AN) ataza zen, honako helburua duen luzetarako ikerketa baten barruan: funtziaren, garun-egituraren eta osasun-egoeraren biomarkatzaileak aztertzea, eta baita arrisku-faktoreak ere Alzheimerra goiz diagnostikatzeko, prodromo aurreklinikoan bereziki.

Ikerketa horretan, inklusio-irizpideak talde bakoitzaren ezaugarrietan oinarritzen dira [67][104][9].

Berriki, Ahmed *et al.* [105] saiatu ziren identifikatzen luzetarako aldaketak profil-nahastean aztertzeko erabilgarriak izan zitezkeen hizketa-bereizgarriak. Ikerketa horrek agerian utzi zuen hizkuntza-osotasunean disruptzio progresiboa detekta daitekeela maila prodromaletik aurrera.

Meilan *et al.* [106] isiluneak edota ahotsik gabeko segmentuak aztertu dituzte, eta haien eragin nabarmena test neuropsikologikoan lortutako puntuazio orokorraren dibergentzian erakutsi dute.

Beste lan berri batek [107] agerian jartzen du ASR-ren sendotasuna MCI-ren hautemate klinikoen; egileek erabili dituzten hizketa murriztuaren test klinikoko beren aurreko lanetan jarraitutako bide berak jorratzen dituzte. Konsulta arrunt batean, parte-hartziale bakoitzak lau ahozko ataza egin zituen: atzeraka kontatzea, esaldiak errepikatzea, irudiak deskribatzea eta hitz-jarioaren testa. Lortutako emaitzak etorkizun handikoak dira.


Dodge *et al.* [65] gizarte-hizkuntzari buruzko ikerketa interesgarri bat egin dute, nahiz eta laginaren tamaina nahiko txikia izan. Hizketaldian erabilitako formatua urrutiko bideo-hizketaldi bat izan zen, non parte-hartzialeak etxearen ziren eta entrenatutako elkarritzetzaileak estudioan. Ideia hori aurretik egindako ikerketetan oinarritzen da; izan ere, ikerketok erakutsi dute urrutiko teleosasun-komunikazioko formatuak eraginkorrik izan daitezkeela adindunen zenbait antzematarako [108].

MCI definitzeko erabili diren irizpide neuropsikologikoek [109] barne hartu dute gutxienez bi test klasikoren nahasmenduaren proba objektiboa (BNT, CVF eta CERAD testak). Egileek azpimarratzen dute Alzheimerren gaixotasunean, Hitz-Jario Kategorikoa proportziorik gabe nahastuta dagoela; irakurtzeko trebetasuna, ordea, ez da hain nahastuta [110][111], nahiz eta ikerketa guztiak ez dauden ados aurkikuntza horrekin [112].

Hizketaldian oinarritutako formatu sintetiko bati erabateko onura ateratzeko, batbateko erantzunetan jarri zuten arreta gehiago, egituratutako erantzunetan baino. Hizketaldi horiek grabatu eta transkribatu ziren, elkarritzetaztaleek versus parte-hartzaleek ahoskatutako hitzen zenbaketak neurtzeko. Esperimentu horrek agerian jarri du plataforma birtual horien garrantzia nahaste kognitiboa detektatzeko.

2.4.2 Hizketa automatikoaren hautemate ez-lineala

Test zehatzen analisiaren automatizaziotik harantzago, oraingo ikerketek aurrerapauso garrantzitsuak eman dituzte hizketa askea aztertzerako bidean, batbateko hizketa barne, eta baita hizketa-prozesatze ez-lineala ere kontuan hartuta (dimentsio dinamiko, fraktal konplexuaren analisia).



Irudia 2. 4: Ahozko analisi vs analisi automatikoa. Ahozko komunizazio-elementuen konplexutasunaren azterketa vs analisi automatikoa. Honako eskeman, ahozko komunizazio-elementuen konplexutasunaren azterketa gizakien arteko hitzezko komunikazioan parte hartzen duten oinarrizkoak diren hainbat elementu kontuan hartuta aurkezten da. Adibidez: 1) Konplexutasun txikiko eszenatokia: azterketa emozionalik gabeko ingelesezko izen zerrendatzerako proba klinikoa. 2) Konplexutasun handiko eszenatokia: azterketa emozionala eta hizketa askea dakarren bat-bateko elkarritzeta elebiduna Skype bidez.

Bat-bateko Hizketaren Azterketa Automatikoa (BHAA) (Automatic Spontaneous Speech Analysis, ASSA, ingelesez) eta Emozio-Erantzunaren Analisia (EEA) (Emotional Response Analysis, ERA, ingelesez) [19][21][38][40] beste bereizgarrien artean honako hauek aztertzen dituzte: enuntziatuen luzapena, betegarrien tipologia, disfluentziak eta soinudun segmentu eta ahotsik gabekoak

Lan horretan, EEA (ERA) aztertu da hala bereizgarri klasikoak nola Emozio-Temperatura (ET) (Emotional Temperature, ET, ingelesez) direla medio, beti ere kontuan hartuta ET bereizgarri sendoa dela ingurune errealetan. ET bereizgarri prosodiko eta paralinguistiko gutxi batuetan oinarritzen da, zeina hizketa-seinalearen denborazko segmentaziotik lortzen den.

Bereizgarri hasiberri eta ez-lineal horiek emandako informazio gehigarria bereziki erabilgarria izan daiteke entrenamendu-datuak murriztuak direnean. Lan horretan, frogatu egiten da hizketa aske lineala eta ez-lineala konbinatzeak duen garrantzia. Egileek maila altuko zehatzasuna lortzen dute AD-rako eta, aldi berean, pazienteak kontrolatzen dituzte kostu konputazionala kontrolatuta denbora errealean eta inguruko baldintza errealetan.

Azken ikerketek hobetu egin dute metodologia hori eta MCI-n ere erabiltzen hasi dira [38]. Bi test horiek eta bat-bateko hizketa-metodoek frogatu dute ahalmen ikaragarria dutela Alzheimer gaixotasunaren hasierako diagnostiko-testei dagokienean.

Hizketa-prozesatzean edota portaera-aldaketetan oinarritutako metodoek beste abantaila bat dute, gainera: hizkuntzarekiko independenteak izatearena, eta hortaz, modelatuak izan ez diren edo minorizatuak diren hizkuntzak darabilten hiztunekin erabiltzeko aukera ematen dute.

Hizkera-analisi automatikoa erabiltzeak etorkizun handikoa izan daitezkeen beste ikerketa-lerro batzuk ireki ditzake, jarduera neuromotorearen zenbatetsi alderantzizkoaren bidez ahoskuntz eta artikulazio-disfuntzioa antzemateko hizketa exekuzioaren azterketa zinematikoaren bidez. Azken aurrerapenetan, analisi dinamikoak, sentsore anitzeko analisiak, elkarlaneko sistemak, ingurune birtualak, autoikasketeen bideko sistemak edo Deep Learning-en oinarrituriko hurbilpenak, besteak beste, agertzen dira [113].

2.5 Neurona-Sare Konboluzionalak (CNN)

Badaude egun informazioa automatikoki sailkatzeako erabiltzen diren algoritmoak. Adimen Artifizialaren (AI) adar hau Machine Learning (ML) izenez da ezaguna.

Gure kasuan, interfaze ez-inbasiboaren bidez, MCI/AD edo CR gizabanako ahots-laginak jaso, eta behin prozesatuak, horien ezaugarrien erauzketa- eta hautaketa-

Ianaren ondoren dagokion algoritmoari sartzen dio horrek sailkapena (MCI/AD edo CR) egin dezan.

Egun, informazioa sailkatzeko, hainbat algoritmo estatistiko daude baina horietako batzuek (Convolutional Neural Network, CNN) garrantzi handia hartu dute, azken urteetan erakutsi dituzten gaitasunak medio. Gure kasuan, CNN-ak erabiliko dira besteak beste, sistema unibertsal eta ez-inbasibo honek sailkapena egin zezan egokiak zirela otu dugulako. Arrazoi hori dela eta, atal honetan, CNN-ek azken bosturtekoan Machine Learning-aren diziplinan ekartzen ari diren iraultzari buruz arituko gara.

Memoria honen ikerketa-lerroa, eta beti ere, osasun-guneen irizpide etikoen baitan, AD goiz detektatzeko ekarpna egitera bideratua dago. Algoritmo-mota hauek, ordea, beste hamaika ikerketa-lerro bustitzen dituzte. Horregatik, teknikoki CNN-en arkitekturan mahaigaineratzen ari diren aurrekarietan sakonduko dugu eta ez hainbeste horiek osasunaren sektorean izaten ari diren puntako aplikazioetan.

Machine Learning-en (ML) ataza ohikoenak sailkatzea, erregresioa, clustering-a eta abar dira, baina baldintza batzuetan muga handiak dituzte orain arte erabilitako algoritmoek. Azken urteetan, ordea, Ikasketa Sakonerako (Deep Learning, DL) trebreak diren Neurona-Sare Konboluzionalak (Convolutional Neural Network, CNN) orain arteko ML algoritmoek zitzuten mugak gainditzera eterri dira ataza-mota batzuetan, sarreradatuetako ezaugarriak hierarkikoki antolatu eta hauetatik ikasteko iaiotasuna handia erakutsi baitute. CNN-ak sarrerako datuak modu sakonagoan aztertzen dituzten (horregatik Deep Learning terminoarekin oso lotua dago) neurona-sareak besterik ez dira, baina badituze desberdin egiten dituzten hainbat ezaugarri.


Adimen Artifizialaren (AI) adar honek, eta bereziki CNN-ek, aurrerapen handiak ekarri dituzte, besteak beste, hizketaren azterketan [114], bideoen ezaugarriztan [115], Lengoia Naturalaren Prozesatzean (NLP) [116] eta irudiak aztertzeko [117] atazetan. Abilezia berezia erakutsi dute datuak ezaugarritu eta ulertzeko. Ekarri duten iraultza dela eta zenbait sektore ekonomikotarako DL aplikazioak asko ugaldu dira: osasun-sektorean irudien azterketa konputazionalean [118], automozio-industrian [119] eta ahotsaren hautematean [120].

2.5.1 ILSVRC aurrekariak

Neurona-sareek azken urteetan bizi izan duten iraultzarekin zerikusi handia dute neurona-sare konboluzionalek (CNN). Nahiz eta argitalpen aintzindaria Yann Lecun-i [121] atxikitu, Alex Krizhevsky, Ilya Sutskever, Geoffrey E. Hinton-ren [122] argitalpenak eremu honetan izan duen eraginagatik garrantzitsuenentzat hartzen da.


CNN bat erabili zuten 2012. urteko ILSVRC [123] (ImageNet Large-Scale Visual Recognition Challenge) irabazteko. Konputagailuen bidez irudiak taldekatzeko

txapelketa honek eta berarekin dakartzan argitalpenek punta-puntako ikerketa-lerroak irekitzen ditu eremu honetan. Hori dela eta, artearen egoeran nahitaez urtetik urtera txapelketa honetan parte hartu duten argitalpen interesgarrienei erreferentzia egingo zaie, bereziki 2012. urtetik aurrera, hots, Alex Krizhevsky *et al.*ek erabilitako Deep Learning algoritmotik aurrera.



Irudia 2. 5: ILSVRC-en errore-tasa baxuena lortu duten algoritmoen emaitzak. Honako irudian errore-tasa baxuena lortu duten algoritmoen emaitzak ikus daitezke 2010etik 2015 urterea bitartean. Bereziki aipatu behar da, 2012. urteko txapelketako sarea, horrek ekarri baitzuen inflexio-puntuak lortutako errore-tasa beherakada handia zela eta. Emaitza horiek lortzeko, Alex Krizhevsky-k *et al.*ek CNN-a erabili zuten. Ordutik aurrera, Neurona-Sare Konboluzionalak izan dira ILSVRC-en protagonista nagusiak [124].


Alex Krizhevsky-k *et al.*ek erabilitako teknika ez da ezaguna egin txapelketa hau irabazteagatik, baizik eta irudien taldekatzean lortutako errore-tasa baxuarengatik. Ordutik aurrera, irudien konputazio-ulermenerako CNN-ak ikerketa-lerro berrien oinarri bihurtu ziren. Erabilitako sarea ez zen oso konplexua AlexNet izeneko CNN-ean.




Irudia 2. 6: AlexNet. 5 geruza konboluzional (Convolution Layer) eta guztiz konektatutako (Fully Connected) 3 geruza besterik ez zituen AlexNet izenez ezaguna egin zen CNN-ak. ReLU (Rectified Linear Unit) aktibazio-funtzioak erabili zituzten, sare neuronal sakonek geruza ezkutuetan sarearen pisu eta ereduak azkarrago ikasten dituelako eta datuak ugaltzeko teknikak zein dropout izenez ezagutzen den teknika ereduaren parametroak gutxitzen laguntzeko eta overfitting arriskua txikitzea. Erabilitako bi GPU-ak sei egunez egon ziren entrenatzen [122].

AlexNet-etik aurrera, CNN-en erabilera eta Deep Learning izenez ezagutzen diren ML algoritmoek bultzada handia izan zuten. Ordutik aurrera, ILSVRC txapelketa CNN egituren arteko txapelketa bilakatu zen. Baino ez hori bakarrik, espektrogramen azterketetarako aurrez entrenatutako AlexNet sarea ere erabiltzen da egun. Kasu honetan [125] ahots bidezko emozioen ezagutzarako sistema gisa. Alzheimer gaixotasuna taldekatzea ere [126] Krizhevsky *et al.*ek entrenatutako sarea erabili da hainbat ikerketa-lerroetan.

Hurrengo urtean Matthew Zeiler eta Rob Fergus-en ZFNet CNN-a izan zen garaile, % 11.7-ko errore-tasarekin. Haren arrakasta CNN-en doikuntzan baino, horiek hobeto ulertzeko egindako lan didaktikoan datza. Iragazki eta pisuak ikusteko teknikek komunitate zientifikoaren arreta sortu zuten bereziki [127]. Lan horrek, 2013. urteko ILSVRC txapelketa irabazteaz gain CNN-en funtzionatzeko modua hobeto ulertzeko ekarpen handia egin zuen eta honen errendimendua eta egiturak hobetzeko hartu beharreko bideari buruz ere arrastoak utzi zituen. Barne-geruzen funtzionamendua ikusteko, Deconvolutional Network (DN) bezala ezaguna egin den teknika garatu zuten [128].



Irudia 2. 7: Deconvolutional Network. Deconvolutional Network-en helburua ezaugarri-mapak zein motatako egiturek kitzikatzen dituzten ulertzea da. Horretarako ezaugarien aktibazioak jaso eta CNN-en iragazki berak dituen DN batetara sartzen dira. Honako irudian lehen geruzan maila baxuko ezaugarria antzematen duen DN-a ikus daiteke eta geruza sakonagoetan sartu ahala, horrek antzematen dituen formak konplexuagoak dira [127].



Irudia 2. 8: Geruzen irudikapen grafikoa. *ImageNet Classification with Deep Convolutional Neural Networks* argitalpenetik hartutako irudi honetan geruzen irudikapen grafikoa ikus daiteke. Horrek CNN-ak hobeto interpretatzen asko lagundu zuen. Entrenatzeko AlexNet-ek baino irudi gutxiago erabili zituen eta iragazkiak ere txikiagoak izan ziren ezaugarri-mapak jatorrizko informazio gehiago gorde zezaten. GPU-ak hamabi egunetan zehar egon ziren sarea entrenatzentzat [127].

2014. urtean irabazlea GoogleNet izan zen arren VGGNet [129] sareari buruz hitz egitea gomendagarria da, horrek ekarri zituen berrikuntzak direla eta. Eredu horrek xalotasuna eta sakontasuna ekarri zizkien CNN-ei. Dimentsio txikiko kernel eta pooling iragazkiak gehitu zizkion geruza kantitate desberdinako CNN-ei. Sare horretatik arnasa hartzut duten argitalpenak ugaldu dira soinu-araketarako [130] hau bezala.


Taula 2. 1: Dimentsio espazial urritu eta sakontasuna handitzeko CNN-a. 3x3-ko iragazki txikiak erabili ziren eta horrek parametro gutxiago eskatzen ditu. Iragazki-kopurua gehitu zuten maxpool geruza bakoitzaren ondoren sakontasuna emateko, nahiz eta dimentsio espazial txikiak erabili. Kontzeptu berria ekarri zuen, hots, dimentso espazial urritu eta sakontasuna handitzen duten CNN-en erabilera. Datuak gehitzeko teknika eta ReLU aktibazio-funtzioak ere txertatu zituzten eta, azkenean, Nvidia 4 GPU hiru astetan zehar ibili ziren entrenatzetan [129].

ConvNet Configuration					
A	A-LRN	B	C	D	E
11 weight layers	11 weight layers	13 weight layers	16 weight layers	16 weight layers	19 weight layers
input (224 × 224 RGB image)					
conv3-64	conv3-64 LRN	conv3-64 conv3-64	conv3-64 conv3-64	conv3-64 conv3-64	conv3-64 conv3-64
maxpool					
conv3-128	conv3-128	conv3-128 conv3-128	conv3-128 conv3-128	conv3-128 conv3-128	conv3-128 conv3-128
maxpool					
conv3-256 conv3-256	conv3-256 conv3-256	conv3-256 conv3-256	conv3-256 conv3-256 conv1-256	conv3-256 conv3-256 conv3-256	conv3-256 conv3-256 conv3-256 conv3-256
maxpool					
conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512 conv1-512	conv3-512 conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512 conv3-512 conv3-512
maxpool					
conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512 conv1-512	conv3-512 conv3-512 conv3-512	conv3-512 conv3-512 conv3-512 conv3-512
maxpool					
FC-4096					
FC-4096					
FC-1000					
soft-max					

GoogleNet-ek, 2014. urteko ILSVRC irabazteaz gain ikuspuntu berria eman zien CNN-ei eta memoria- eta energia-erabilera nabarmendu zuen. Christian Szegedy *et al.* [131] argitalpenak Inception izeneko teknika gehitu zien sareei baliabide informatikoak modu optimizatuagoan erabiltzeko. Teknika horrek CNN-en geruzak sekuentzialki pilatzeko monopolioa zalantzan jarri zuen eta sormenezko geruzen egituraketa on batek konputazionalki eraginkortasun hobeak lor dezaketela agerian jarri zuen. AlexNet-ek baino hamabi bider parametro gutxiago erabili zituen eta GPU gutxi batzurekin astebetez entrenatu zuten sarea.

Microsoft-ek, ResNet [132] izeneko sarearen eskutik, 152 geruzako CNN-a aurkeztu zuen 2015. urteko txapelketara. Geruza asko behar zituen baina lortutako errore-tasa % 3.6-koa izan zen; gizakiek horrelako atazetan dugun batez besteko errore-tasa baino txikiagoa. Hondar-blokeen teknika txertatu, eta honen bidez datuen tamaina espaziala asko txikitzea lortu zuten. Badira ahotsa aztertzeko ResNet, GoogleNet, VGGNet eta abar

erabili dituzten ikerketa-lerroak, adibidez bideo doinuen ezagutza, ezpainen irakurketa edo hizketaren ulermenarekin zerikusia duten hamaika aplikazio.



Irudia 2. 9: ResNet sarea. Lerro gorriak gizakiak irudiak taldekatzerako orduan dugun errore-tasa adierazten du. ResNet sareak errore-tasa txikitu zuen, tarteko geruza asko gehitu eta hondar-blokeen bidez tamaina espazialak txikituz [133].


2016. urtean, ILSVRC, CUIImage-k [134] irabazi zuen arren, irudiak taldekatzerako orduan Trimpss-Soushen taldeak % 2.991-ko errore-tasa-ko CNN-a eraikitzea lortu zuen. CNN-ak eta teknika hainbat bertsio gehituz errore-tasa hobetzea lortu da nahiz eta portzentualki asko hobetzea zaila den. Gogoan hartu behar da gizakien errore-tasaren azpitik taldekatzen ari direla konboluzio teknika horiek eta lortzen duten doitasuna oso handia dela.

2.5.2 Beste aurrekariak

ImageNet-ek urtero antolatutako txapelketak argitarapen oso interesgarriak ekarri ditu. Horretaz gain, badaude irudien prozesatze eta horien ulermen konputazionalean iraultza ekarri duten hainbat ekarpentz.


Aipatzekoak dira, adibidez, R-CNN-ek konputagailu bidezko objektuen taldekatzean eta horien kokalekuaren zehaztapenean ekarritako aurrerapenak. Ross Girshick *et al.*-ek [135] objektuen antzematearen buruhaustea ebattea dute helburu eta erabilitako prozedurak desberdinak diren bi etapa argitu ditu: irudiaren eskualdea proposatu eta ondoren eskualde hori taldekatu.

Lehen etapan, R-CNN-ek objektuek izan ditzaketen eskualdeak proposatzen ditu. Ondoren, eskualde horiek, jadanik entrenatua dagoen CNN batetara sartzen dira. Jakina, eskualdeak, CNN-ak sarrerak jasotzeko egituratuak dauden dimentsiotara desitxuratu beharko dira. CNN berriak, adibidez ResNet-ek, eskualde bakotzaren ezaugarri-bektorea erauzi, eta bukatzeko, sailkapena egiten du.



Irudia 2. 10: Eskualdeak erauzi, desitxuratu eta CNN-an sartu. Eskualdeak erauzi, desitxuratu eta CNN-an sartu, taldekatzea egin dezan. Argitarapen honek zurrubilo handia sortu zuen, eta horren ondoren, prozesu konputazionala lasterragotzeko beste proposamenak mahaigaineratu ziren [135].

Fast R-CNN [136] eta Faster R-CNN [137] abiaduraren arazoa konpontzeko gai izan ziren. Jakina, Faster R-CNN-a bertsio azkarrena da. Irudietako aurpegiak adierazten duten espresioa erauzteko [138], Faster R-CNN-a erabili dute Jiaxing Li *et al.*ek. Kalkulu-abiadura handitzeko bi teknika erabiltzen dituzte: batak, geruza konboluzionalen kalkulu konputazionala partekatzen du, eta bigarrenak, geruza konboluzionalen azken ezaugarri-mapa begiratuta taldekatzea egiten du.



Irudia 2. 11: CNN-en hitz deskriptiboak aurkitzeko gaitasuna. Kasu honetan, “lasto”, “txanoa” eta beste hitz deskriptiboak aurkitzeko gaitasuna du sare honek [139].


Kontrako Sareen Sortzailea (GAN) Ian J. Goodfellow eta haren ikerketa taldeak [140] proposatutako sare honen helburua sarea berari ziria sartzea da. Jatorrizko irudi eta perturbazio txikia duen jatorrizko irudiaren kopia sartzen zaizkio entrenatutako sareari, GoogleNet-i adibidez. Nahiz eta gure begientzako irudi bera izan, gerta daiteke algoritmoak irudi bakoitza ezberdin taldekatu dezakeela. Teknika horrekin sareak aztertzen dituen datuen egitura irudikatzeko gai da, benetako irudi eta horren kopia artifizialaren arteko desberdintasunak aurkitzeko entrenatua izan baita. CNN batek erabili ahal izango dituen funtzioen erauzgailua da nolabait.

Stanford Unibertsitateko Andrej Karpathy-k eta Li Fei-Fei-ek [139] hainbat sareren nahasketa proposatu zuten Lengoia Naturalaren Prozesatzearen (NLP) bidez irudien eskualdeen deskripzioak egiteko. Horretarako, CNN-ak eta Neurona-sare Atzerakariak (RNN) konbinatu zituzten. CNN-ek irudien taldekatzerako etiketa argia badute; kasu honetan, etiketa horiek esaldiak dira eta sareak esaldiaren eta deskribatu nahi duen irudiaren arteko erlazioa ondorioztatzen du. NLP eta konputagailu bidezko ikusmen-

teknikak nahasten ditu eta ikerketa-erro berriak irekitzen ditu, hainbat jakintzagai erabiltzen dituen teknika baita.

CNN-ei txertatzen zaizkien teknika berrien eremuan, 2015. urtean Max Jaderberg *et al.* [141], Londreseko Google DeepMind taldeko kideek, Espazio Eraldaketarako Sareak (STN) izeneko proposamen berria mahaigaineratu zuten. Kasu horretan, CNN egitura aldatu baino, datuak sarera sartu aurretik horiek maneiatzentzituzte, sare konboluzionalari lana kentzeko helburuarekin. Ohiko CNN-ek entrenamendu datu asko behar dituzte eskala eta biraketa desberdinak dituzten irudiekin taldekatze ez aldakorrik egiteko.

Teknika horren bidez CNN-ari ezaugarri-mapak eraldatzen irakasten dio entrenamenduaren kostua txikitzeko, baina hori baino garrantzitsuagoa den ideia bat gehitzen du Ikasketa Sakonaren (Deep Learning, DL) ikerketen eremuan: ez da beharrezkoa CNN-en egitura konplexua eraikitzen ibiltzea, errore-tasa eta konputazio-abiadura txikitzeko. CNN-ei lana erraztu besterik ez diegu egin behar, irudiak aurretik eraldatu eta sareen beharretara moldatuz.




Irudia 2. 12: Irudia eraldatu eta aipagarria den eskualdea aukeratu. Ikus daiteteen bezala, CNN-ra irudi gordina sartu baino, lehenago irudia eraldatu eta aipagarria den eskualdea aukeratzen du. Ondoren, CNN-an txertatzen du sarrerako datu gisa, horrek taldekatu dezan [141].

Ikasketa sakonarekin paradigma eta alternatiba berriak zein neurona-sareekin lan egiteko arkitektura berriak mahaigaineratzen ari dira. Nature-n [142] Alex Graves *et al.* argitaratu zuten Differentiable Neural Computer (DNC) handitutako memoria duen neurona-sarea aurkeztu zuten. Bere memoria erabiltzeko gaitasuna erakutsi zuen, datu egituratu eta konplexuei erantzuna bilatzeko. DNC kodea eskuragarri dago DeepMind-en GitHub-ean [143].

3. KAPITULUA: MATERIALAK

3.1 Sarrera

Atal hau sakonago ulertzeko, **B.1** eta **B.3** eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira. Ikerketarako erabilitako materialak ahots-laginen datu-baseek osatzen dituzte. Horiek lortzeko, zenbait ataza eta baldintza izan dira eta datu-base oreaktuak lortzena bideratu dira. Laginak sortzeko hiru ataza-mota erabili dira hizketa-konplexutasunaren maila desberdinez baliatuta: Hitz-Jario Kategorikoaren (CVF) Animalien Izendatzea (Animal Naming, AN), hizketa irekian oinarria duen Irudien Deskribapena (Picture Description, PD) eta hizketa ez murritzuko bat-bateko Hizketa (Spontaneous Speech, SS) desberdin erabili dira. Orokorrera, laginak ez dira asko baina oreaktuak daude.



Irudia 3. 1: Ataza bakoitzaren ezaugarriak. Ataza bakoitzak ezaugarri propioak ditu eta honako irudian AN, PD eta SS atazen ezaugarrien hurbilpen bat egiten da. Berdez AN, gorriz PD eta urdinez SS atazak. Ezaugarrien artean zein inguneatan egin diren, hizketa-mota, hizkuntzarekiko mendetasuna, emozio-eratzuna aztertzeko balioa eta abar azaltzen dira.

3.2 Datu-baseak

Laginen bilduma guztia proiektuan implikatutako erakundeen arau etikoak kontuan hartuta egin da eta grabazioak hainbat gunetan egiteaz gain, parte-hartzaileak desberdinak izan dira hiru atazetan.

Taula 3. 1: Erabilitako 3 ataza nagusiak. Laginen erauzketarako erabilitako 3 ataza nagusien inguruko informazioa jasotzen da taula honetan: zein ingurunetan egin diren eta bakoitzean parte hartu duten gizabanakoena ezaugarriak hain zuzen.

Ataza	Grabazio gunea	Parte hartzaileak
AN: Categorical Verbal Fluency (CVF) edo Hitz-jario Kategorikoaren ataza (Animal Naming, AN, animaliak izendatzeko jarioaren bidez).	Ingurune klinikoan	MCI-ren pazienteak vs CR-ren pertsonak aztertzeko balioko dute.
PD: Picture Description (PD), irudien deskripzioaren ataza.	Ingurune klinikoan	AD-ren gaixoak vs control group (CR) pertsonak aztertzeko balioko dute.
SS: Spontaneous Speech (SS), hizketa espontaneoaren ataza.	Etxeko ingurunean	AD-ren gaixoak vs control group (CR) pertsonak aztertzeko balioko dute.

Ataza bakoitzetik datu-base desberdina sortu da eta horiek esperimentazio-lerroetan erabili dira. Guztira, esperimentaziorako, 4 datu-base sortu dira.

Taula 3. 2: Sortutako datu-base bakoitzaren datu demografikoak. Laginei esker sortutako datu-base bakoitzaren datu demografikoak taulan ikus daitezke zehatz-mehatz.

Datu-baseak	Emakumea	Gizona	Adin-maila	Batez besteko adina	SD Adina
PGA-OREKA. AN ataza-azpimultzoa (CR/MCI)	36/21	26/17	39-74/42-79	56.73/57.15	7.8/8.9
MINI-PGA. PD ataza-azpimultzoa (CR/AD)	8/5	4/1	53-73/62-78	61.51/67.97	7.02/5.2
AZTIAHORE. SS ataza-azpimultzoa (CR/AD)	9/12	11/8	47-80/69-88	57.80/79.90	11.92/5.3
AZTITXIKI. SS ataza-azpimultzoa (CR/AD)	2/2	3/3	80-90/75-95	85.70/87.60	10.2/10.5

3.3 Atazak


3.3.1 Animaliak izendatzeko jarioaren ataza (CVF)

Hitz-jario Kategorikoaren ataza edo Categorical Verbal Fluency (CVF) Animaliak Izendatzeko ataza (Animal Naming, AN) gaitz neurobegetatiboetan izaten den nahaste kognitiboaren progresioa neurtu eta kuantifikatzen duen test bat da [144]. Maiz erabiltzen da hizkuntza-gaitasunak, oroimen semantikoa eta funtzio betearazleak balioesteko [145].

Definizioz, AN atazean, elkarriketatzailak pazienteari minutu batean ezagutzen dituen kategoria bateko (animaliak gure kasuan) izen guztiak azaltzeko eskatzen dio. Jardute klinikoan, bakar-bakarrik item-en kopuru osoa erregistratzen da. Hala ere, index espezifikoagoak defini daitezke, zeinek pazientearen egoera kognitiboan izandako aldaketa ñimiñoak detekta baititzakete eta, horrela, gaitz degeneratiboen arteko bereizketa bereiztuagoa lor baitaiteke [5][12].

Laginean 187 pertsona osasuntsuk eta MCI duten 38 pazientek parte hartzen dute, CITA-Alzheimer Fundazioko Gipuzkoa-Alzheimer Proiektuaren (PGA) [146] kohortean daudenak. PGA-k, Alzheimerren gaitza goiz detektatzeko, funtzioaren biomarkatzaileak, garunaren egitura, osasunaren egoera eta arrisku-faktoreak aztertzen ditu. PGA-ren helburu nagusia Alzheimerraren aldi aurreklinikoa eta prodromala ezaugarritzea da.

3. KAPITULUA: MATERIALAK



Irudia 3. 2: Hizketa murriztuaren test klinikoa. Hitz-jario kategorikoaren edo Categorical Verbal Fluency-ren (CVF) ataza (Animal Naming, AN, animaliak izendatzea). Ezkerrean, kontrol-subjektu bat; eskuinean, MCI duen pertsona bat. Tonua, lerro urdina; ozentasuna, lerro berdea; formanteak, lerro gorria.

Kontuan hartu behar da, hizketa murriztuaren testek komunikazio-osagai zehatzak aztertzen dituztela, baina ez dituztela kontuan hartzen diagnostiko goiztiarrerako egokiak izan daitezkeen beste zenbait funsezko komunikazio-trebetasun; adibidez, emoziozko faktoreak edota hizketaren ekoizpen espontaneoa. Bestalde, goi-mailako hezkuntza duen pertsona batekin gerta daiteke hizketa murriztuaren testak kalte sotilak detektatzeko gai ez izatea, pazienteak baliabideak baititu izendatze-arazo leunak saihesteko eta, era horretan, gaitzak ezkutuan jarraitzen du. Horren haritik, egokiagoa litzateke beste gizarte-markatzaile bat, adibidez, elkarrizketa askean edo hizketa espontaneoan jaulkitutako hitzen proportzioa, gaitzaren hasierako zantzuengatik adierazleak izan baitaiteke.

Markatzaile berri horiek sentiberak izan beharko lirateke kognizio normaletik MCI-rako trantsizioekiko, eta beste biomarkatzaileekin erraz integratzeko gai izan, arriskupean izan daitezkeen pertsonak identifikatzeko [38][65].

Azterketa klinikoa testuinguru batean egiten da eta talde bakoitzaren ezaugarrietan oinarritutako inklusio-irizpideekin.

3.3.1.1 Kontrol Taldea edo Control Group (CR)

- Parte hartzen dute tarteko adineko edo nagusiagoak, 39 eta 79 urteen artekoak, PGA-ren parte-hartzaile izateko adostasun informatua izenpetu eta gero.

- Oroimen-akatsik ez dute agertzen.
- Funtzio kognitibo globala mantentzen dute 24 ebaki-puntu kopuru altuenarekin Mini Mental State Examination (MMSE – Buruko Egoeraren Mini Azterketa) delakoan [67].
- Oroimen-testean errendimendu-maila normala dute. Puntuazioa 6 baino altuagoa ikaste eta ahozko gaitasuna balioesteko erabiltzen den Buschke-ren Free and Cued Selective Reminding Test delakoan (FCSRT – Oroimen Selektibo Aske eta Kodetuaren Testa) [104].
- Autonomia eguneroko jardueretan. Pfeffer-en jarduera funtzionalei buruzko galdeketan 6 baino gutxiago kalifikazio-eskalan [147].

3.3.1.2 Mild Cognitive Impairment (MCI) taldea

- PGA-n parte hartzeko baimena izenpetu zuten 39 eta 79 urteen arteko gizon-emakumeak.
- Aholkulariak adierazgarritzat jotako oroimen-akatsak.
- Funtzio kognitibo globala mantenduta. 24ko puntuaziorik altuena MMSE delakoan.
- Errendimendua batez bestekoa baina baxuagoa, adina eta hezkuntza-maila kontuan hartuta, oroimena (FCSRT), hizketa (Boston Naming Test [148]), ikuste-espazioari buruzko funtzioa (Judgment Line Orientation [149]), arreta (Letter Number Sequencing [150]) eta funtzio betearazlea (Trail Making Test, Part B [151]). Eskala-puntuazioa 6 edo sei baino gutxiago.
- Autonomia eguneroko jardueretan. Pfeffer-en jarduera funtzionalei buruzko galdeketan 6 baino gutxiago kalifikazio-eskalan.

3.3.1.3 Baztertze-irizpideak

- Dementzia agertzea (DSM-IV eta CDR 1).
- Dementziak edo nahasmendu kognitiboak eragin dezaketen edozein motatako gaitz neurologikoaren mediku-historia nabarmena izatea.
- Sintoma psikiatriko arinak (antsietatea, depresioa) dituzten pertsonak ez dira baztertzen.

3.3.1.4 PGA-OREKA datu-basea

Datu-base guztien datu demografikoak 3.2 taulan agertzen dira eta 3.3 taulan PGA-OREKA datu-basearenak ikus daitezke. Azkenean, 100 pertsonaren datu-base orekatua (PGA-OREKA) lortu da. Estatistikoki, adinaren araberako desberdintasun nabarmenak detektatu dira AD eta MCI dutenen artean.

3. KAPITULUA: MATERIALAK

Taula 3. 3: AN esperimentaziorako azpimultzoen datu demografikoak. Honako taulan Animal Naming (AN) atazaren esperimentaziorako aukeratutako azpimultzoen datu demografikoak.

Datu-baseak	Emakumea	Gizona	Adin-maila	Batez besteko adina	SD Adina
PGA-OREKA. AN ataza-azpimultzoa (CR/MCI)	36/21	26/17	39-74/42-79	56.73/57.15	7.8/8.9

3.3.2 Irudien deskripzioari buruzko ataza (PD)

Gipuzkoa-Alzheimer Proiektuak (PGA-k) eta CITA Alzheimer Fundazioak aurrera daramaten ikerketa-pilotu honek barne hartzen ditu Alzheimerra diagnostikatua duten sei subjektu eta hamabi pertsona osasuntsu (azpidatu-basea MINI-PGA), hau da, laginak 18 personak osatzen zuten, eta demografia-datuak ondoko taulan zehazten dira. Ataza irudi baten ahozko deskripzioan datza [152] 3.2 irudian ikus daitekeen moduan.


3.3.2.1 MINI-PGA datu-basea

Datu-base guztien datu demografikoak 3.2 taulan agertzen dira eta 3.4 taulan MINI-PGA datu-basearenak ikus daitezke. MINI-PGA, guztira, 18 pertsonek osatzen dute, 13 emakume eta 5 gizonezkok:

Taula 3. 4: PD esperimentaziorako azpimultzoen datu demografikoak. Honako taulan Picture Description (PD) atazaren esperimentaziorako aukeratutako azpimultzoen datu demografikoak.

Datu-baseak	Emakumea	Gizona	Adin-maila	Batez besteko adina	SD Adina
MINI-PGA. PD ataza-azpimultzoa (CR/AD)	8/5	4/1	53-73/62-78	61.51/67.97	7.02/5.2

Beste osagai batzuk, adibidez, erantzun emozionala eta emozioen kudeaketa, gaitzaren hasierako estadiotan kaltetuta dauden komunikazio-elementuak izan daitezke, eta baita analisirako faktore erabilgarri bilakatu ere. Osagai horiek antzemateko bidean, PD bezalako atazak lagungarri izan daitezke




Irudia 3. 3: Hizketa murriztuaren test klinikoa II. Irudien deskripzioari (PD) buruzko ataza. Ezkerrean, kontrol-subjektu bat; eskuinean, AD duen pertsona bat. Tonua, lerro urdina; ozentasuna, lerro berdea; formanteak, lerro gorria.

3.3.3 Bat-bateko hizketari buruzko ataza (SS)

AD goiz detektatzeari begira dagoen ikerketa hau etxeko ingurunean egin zen, eta haren helburua AD fase aurreklinikoan (lehen sintomak baino lehenago), eta baita prodromo-fasean ere (hasierako sintoma batzuekin baina dementziarik gabe) identifikatzea da. Lan hau atariko esperimentu osagarria da eta helburu du bat-bateko hizketarekin loturiko biomarkatzaile zenbaiten atalaseak definitzea. Ezaugarrien bilaketa-sistema ebaluazio aurrekliniko baterako diseinatua dago, AD diagnostikatzeko test egokiak definitzeko helburuarekin. Lortutako datuek osatuko dute pertsona bakoitzaren biomarkatzaile-multzoa AD diagnostikaterakoan. Lan honetan erabilitako datu-baseak PGA-ren proiektuarekiko independentea da.

Erantzun emozionala eta emozioen kudeaketa, kaltetuta dauden komunikazio-elementuak izan eta informazio baliagarria eman dezaketenez, horiek antzemateko bidean, SS bezalako atazak lagungarri izan daitezke.



Irudia 3. 4: Hizketa murritzaren etxeko testa. Hizketa espontaneoaren ataza (SS). Ezkerrean, kontrol-subjektu (CR) bat; eskuinean, AD duen pertsona bat. Tonua, lerro urdina; ozentasuna, lerro berdea; formanteak, lerro gorria.

3.3.3.1 AZTIAHO datu-basea

Sexu, adin, hizkuntza eta jatorri sozio-kultural desberdinako pertsona-multzo zabalari aplikatzeko metodologia berria sortzeko, datu-base berri bat garatu dugu, kulturanitza eta eleanitza dena, ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, euskaraz, txineraz, arabieraz eta portugesez, 50 pertsona osasuntsuren (12 ordu) eta 20 AD-ren pazienterentzako, hau da, AD-ren aurretikoa diagnostikoa dutenen (8 ordu), bideo-grabaketa daukana. Datu-base osoan, pertsonen adin-tartea 20-98 urtekoa da. Datu-base honen izena AZTIAHO da [19] eta SS atazaren bi laginen (CR/AD) arteko desberdintasuna ikus daiteke 3.4 irudian. Datu-base horretatik ondoko paragrafotan azaltzen den azpidatu-base bat definitu dugu dagozkion datu demografikoekin.

Bideo horietan, bat-bateko hizketak dira oinarria. Bertan, pertsonek istorio atseginak kontatzen zitzuten, sentimendu goxoak bergogoratzen zitzuten edota haien artean elkarrekintzan zebiltzan adiskidegiroko elkarrizketatan. Grabazioen giroa lasaia eta ez-inbasiboa zen. AD dutenekin grabatzeko denborak motzagoak ziren, paziente horien hizketa zailagoa edo traketsagoa baita pertsona osasuntsuena baino, isiluneak luzeagoak eta denbora gehiago behar baitute hitz egokia aurkitzeko eta hizketa-disfluentzia edo mezu hautsiekin moldatzeko. Gaitzaren fase aurreratuan, ahalegin hori oso nekagarri zaie eta, askotan, grabazioa eteteko eskatzen dute. Eskaera hori onartu egin zen.

3.3.3.2 Datu-basearen iragazketa

- Bideoa prozesatu egin zen eta audioa wav formatoan (16 bit eta 16 kHz) atera zen.
- Lehen urratsa aztertzeko ezinezkoak diren elementuak kentzea izan zen: barrea, eztula, zarata gogor eta motzak eta hiztunek batera hitz egiten duteneko segmentuak.
- Ondoren, hondoko zarata ezabatu zen denoiser adaptative filtering iragazkiaren bidez.
- Aurreprozesatze horren ondoren, kontrol-taldearen materialaren % 80 eta AD taldearen % 50 baliagarritzat jo ziren azterketarekin jarraitzen. Datu-baseko hizketa osoa 60 minutukoa da AD taldeari dagokionez, eta 9 orduko kontrol-taldeari dagokionez.
- Ondoren, hizketa ondoz ondoko 60 segunduko segmentutan zaitu zen, hiztun guztien segmentu egokiak lortzeko, eta bat-bateko hizketaren 600 segmentuko datu-basea lortu zen.

3.3.3.3 AZTIAHORE datu-basea

Bukatzeko, esperimentuak aurrera eramateko, azpimultzo bat aukeratu da parte-hartzaileen adinarekin eta emoziozko erantzun-mailarekin orekatua dagoena. Azpimultzo honek kontrol-taldeko 20 subjektu hartzen ditu (9 emakumezko eta 11 gizonetako) eta 20 AD paziente (12 emakumezko eta 8 gizonetako). Datu-baseko azpimultzo hau AZTIAHORE deritzo.

Taula 3. 5: SS esperimentaziorako azpimultzoen datu demografikoak. Honako taulan Spontaneous Speech (SS) atazaren esperimentaziorako aukeratutako azpimultzoen datu demografikoak.

Datu-baseak	Emakumea	Gizona	Adin-maila	Batez besteko adina	SD Adina
AZTIAHORE. SS ataza-azpimultzoa (CR/AD)	9/12	11/8	47-80/69-88	57.80/79.90	11.92/5.3

3.3.3.4 AZTITXIKI datu-basea

Hasierako etapan, atariko esperimentazioa AZTITXIKI multzoan oinarrituta burutu da. AD sintomekin zerikusia duten bat-bateko hizketaren ezaugarri zuzenak aztertu dira. Esperimentua, alde batetik, kontrol-taldea (CR) ezaugarritzen duten SS-n izaten diren aldaketak eta ezaugarriak antzemateko diseinatu da. Bestetik, AD-ren maila desberdinak aldaketak eta ezaugarriak antzemateko ere diseinatu da.

Datu-base honen azpimultzoa AZTIAHORE bera da. Hasierako esperimentu honetan, AZTITXIKI izeneko datu-basearekin egin da esperimentazioa. AZTITXIKI,

3. KAPITULUA: MATERIALAK

AZTIAHOREn azpimultzo bat da. Kontrol-taldeko 5 kidek eta AD diagnostikatuta duten baina gaitzaren faseetan (ES = 1, IS = 2, AS = 2) dauden 5 erik osatzen dute taldea. Kontrol-taldeko kideak tarteko adina (M) edo adin nagusikoak (E) diren 2 emakumezko eta 3 gizonzekok osatzen dute. AD diagnostikatutako pertsonak 2 emakumezko eta 3 gizonzeko dira eta guztiak adin nagusikoak (E).

Taula 3. 6: AZTITXIKI azpimultzoa.

Datu-baseak	Emakumea	Gizona	Adin-maila	Batez besteko adina	SD Adina
AZTITXIKI. SS ataza-azpimultzoa (CR/AD)	2/2	3/3	80-90/75-95	85.70/87.60	10.2/10.5

4. KAPITULUA: METODOAK

4.1 Sarrera

Atal honetan erabilitako metodoetan sakonduko da eta hobeto ulertzeko **B.1**, **B.2**, **B.3**, **C.1**, **C.2**, **C.3**, **C.4**, **D.1**, **D.2** eta **D.3** eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira.

AD-ren bereizgarri klinikoa eta adierazle goiztiarrena oroimen episodikoaren eta hizketaren nahasmendua dira. Etapa honetan, ordea, gaixoa bere aurreko errutina eta jarduerekin jarraitzea gai da [8].

Sintoma klinikoa agertzen direnean, gehienetan beste zenbait defizit kognitibo ere azaltzen dira, funtziotako beterazleen, orientazioaren eta pertzepcioaren gaitasunei dagokienez. Horiekin batera, zenbait sintoma konduktual eta psikologo hauteman daitezke: apatia, suminkortasuna, depresioa, antsietatea, eldarnioak, haluzinazioak, desinhibizioa, oldarkortasuna, jarduera motorretan desgaitasunak, ireNSTEKO zailtasunak eta jateko ohituretan aldaketak [153][24].

Hortaz, narriadura kognitibo arinaren (MCI-ren) hautematea egokia benetako erronka da komunitate zientifikorako Alzheimer's Disease-ren (AD) eragina arindu nahi bada. Azken hamarkadetan, aurrerapen baliagarriak izan dira hala balioztatze-teknika klasikoetan nola screening edo bahetze metodologia ez-inbasiboa. Metodo horien artean, mintzamenaren analisi automatikoa (AD dutenengan endekatzen den trebetasunetako bat) oso tresna merke eta erabilgarria da diagnostikatzekoan.

Dudarik gabe, aurreko screening sakona ezinbestekoa da eta monitorizazio-teknika adimendun ez-inbasiboa oso tresna baliagarriak izan daitezke gaitzaren hautemate goiztiarrerako, diagnostikoa osatzeko edota gaixotasunaren garapena balioztatzeko.

Test horiek ez dute langile espezializaturik behar, ezta laborategi-lanabes berezirik ere; hortaz, pazientearen senide eta ingurukoak, behar bezalako prestakuntza jasoz gero, horiek egiteko gai izan daitezke, eriaren gaitasunak aldatu edo blokeatu beharrik gabe [2][87][19]. Are gehiago, teknika horiek kostu txikikoak dira eta ez dute azpiegitura estentsiborik behar ezta medikuntza-baliabideak eskura izatea ere. Ondorioz, gauza dira informazioa modu errazean, azkarrean eta kosturik gabekoan [2][87][19] kudeatzeko.

4. KAPITULUA: METODOAK

Metodologia horiek erraz aplikatzen dira, merkeak dira eta protokolo mediku estandarretan txerta daitezke eguneroako atazak aldatu gabe. Bi ezaugarri dituzte:

- Gai dira modu ez-inbasiboa informazioa erraz, azkar eta merke emateko [87][19].
- Pazientearen ohiko inguruneko teknikariak ez diren pertsonen erabil ditzateke teknika horiek pazienteen trebetasunak aldatu edo blokeatu gabe, gaixoek ez baitituzte estresagarritzat jotzen. Oso baliagarriak dira hala balioztatze klinikorako nola etxeko/hasierako arretarako.

Alabaina, teknika horiek gaixoentzat estresagarriak ez direla uste bada ere, zenbaiten iritziz gerta daiteke zaintzaile ez-profesionalak ez izatea medikuntza-langileen doitasuna AD, Narriadura Kognitibo Arina (MCI) edota beste zenbait gaitz garaiz eta zehatz identifikatzeko.


Metodo ez-inbasiboen artean, mintzamenaren edo hizketaren analisi automatikoak (MCI/AD dutenengan endekatzen den gaitasun edo trebetasun lehenetako bat) oso tresna sendoa, naturala eta atsegina eskaintzen du.

Gizakiengan, ahozko komunikazioa da adierazpide garrantzitsuenetako bat eguneroako bizitzan izaten den gizarte-elkarrekintzarako. Prozesu konplexua da. Izan ere, berekin dakar trebetasun kognitiboen sorta oso zabala, zeinaren bidez gai garen mezu txertatua duten soinuak sortzeko. Bioseinaleak barne hartzen ditu gure desioak, ideiak edota emozioak, hots, gure izatasunaren zati bat. Prozesu horretan, garunak ezagutza, oroimena, hizkuntza eta informazio semantikoa kudeatu behar ditu.

Balioeste kognitiboak testen sorta zabala inplikatzen du, zahartze-prozesu anormal baten hasierako faseak kuantifikatu eta bereizteko [66]. Balioeste horretan, mintzamena eta hizketa analisiaren oso osagai garrantzitsuak dira, giza komunikazio-prozesuaren giltza-faktoreak baitira. Hortaz, komunikazio-trebetasunen andeatzea testen bidez neurten da, honako elementu hauek kontuan hartuta, alegia, oroimenaren nahastea, izendatzea, gogoraztea, hitz-jarioa edota kontrol emozionala [5][6][7]. Berrikitan, zenbait ikerketa berrikonplexutasun handiko egoerak aztertu dituzte, hizketa ez-murriztuko atazetan edo ariketetan oinarrituta (bat-bateko hizketa, elkarriketak edota hizketaldi librea) [38].

Bestalde, test horien lagin biologiko horiek badute abantaila bat, alegia, erraz jaso daitezke tresneria inbasibo eta garestirik gabe. Baino ez-inbasiboak izateaz gain, teknika horiek, automatikoak eta erabilerrazak izan behar dute. Lagina erauzitakoan, teknologia horiek gai izan behar dira gaixoak ikusiko ez duen prozesu guztia kudeatzeko: laginak ezaugarritu eta aberastu, diagnostikoak egin eta komunikazioak ahalbidetu, besteak beste.

Testuingurua horrela izanda, hizketaren analisi automatikorako ez-inbasiboak diren teknologiak garatzea ezinbestekoa da, eta lan honek horren aldeko ekarpena izan nahi du.



Irudia 4. 1: Sistema eta tresna automatikoak. Duela gutxi arte, espezialistek eskuz egiten zituzten testak; alabaina, azken urteotan, sistema eta tresna automatikoak gero eta gehiago erabiltzen hasi dira baita jarduera klinikoan ere. Testuinguru hori kontuan hartuta garatu da sistema ez-inbasiboa eta seinalea jasotzen denetik erabakia hartzen denerako prozesu osoa biltzen du: (1) Grabazio automatikoa, prozesatzea, ezaugarrien erauzketa eta hautaketa. (2) Sailkapen automatikoa medikuaren ikuskapenarekin eta ebaluketarekin batera. (3) Berrelkadura.


Azkenean, proposatzen den diagnostiko/neuroerrehabilitaziorako kontrol-sistemaren diagrama orokorra 4.1 irudian ikus daiteke. Eskeman, behar diren ezaugarri guztiak garatu ahal izateko, helburuetan oinarritutko hiru bloke nagusi aurki daitezke:

- Seinalearen prozesatzea (seinalearen aurreprozesatzea eta ezaugarrien erauzketa eta hautaketa).
- Azterketa/diagnostikoa (eredu automatikoa, test estatistikoak eta medikuaren metodología estandarrak).
- Erabakiak eta eragiteko elementuak.

Bigarren blokean eta hirugarrenean ez dira soluzio itxiak planteatuko baizik eta sistema malgua non osasun-espezialistik, azken erabiltzaileak eta laguntzaileak zenbait elementurekin elkar eragiteko aukera edukiko duten. Azken hori diseinu unibertsaleko kontzeptuan oinarrituta dago [154].


4.2 Ezaugarrien erauzketa eta hautaketa

Hizketa-eredu arruntenetako batzuen erabilera oinarritzen gara, hizketa osasuntsua eta patologikoa bereizteko [38][56][155] eta giza pertzepzioaren bidez diskriminatzeko. Haietako gehienak ezagunak dira hizketa-seinaleen prozesatzeko arloan. Parametro bakoitzerako deskripzio zehatzagoa eta gainerako informazioa aurrerago emango da. Atazen grabazioen datu-basea bildu eta gero, horiek automatikoki aztertzen dira ezaugarriak erauzteko helburuarekin. Bi ezaugarri-mota barne hartuko ditu azterketa automatikoak: linealak eta ez-linealak.




Irudia 4. 2: Ahots-laginen erauzketa linealak eta ez-linealak. Sistema automatikoak ahots-laginen ezaugarri-bektorea sortzeko erauzketa linealak eta ez-linealak biltzen ditu sistemak. Mintzamen automatikoen analisian oinarritutako multi-hurbilketa ez-linealak hizketa-analisisan erabiltzen diren denbora-serieen azterketarako eta denbora-serie dinamikoen konplexutasunaren neurte kuantitatiborako baliagarriak izan daitezke.

Bestalde, hurbilketa hori hizketa-patologien deskripzioan oinarritzen da, alegia: fonazio, artikulazio, hizketa-kualitate, giza pertzepzio eta sistemaren dinamika konplexuetan.



Irudia 4. 3: Fonazio-aparatuak [156]. Fonazioa, fonazio eta arnas aparatuak parte hartzen duten ekintza fisikoa da. Ezkerreko irudian, aparato honetan parte hartzen duten elementuak ikus daitezke. Eskuineko irudian fluxuak traktoan nola eragiten duen eta ondorioz sortzen den ahotsa ikus daitezke.



Irudia 4. 4: Fonazio-aparatu II. Fonazioaren eskema biomekanikoa ikus daiteke irudi honetan [39][157].

Modelatzeari buruzko ikuspuntu guztiz aldatu da eta fonazioa, artikulazioa, hizketaren kalitatea, giza pertzepcioa eta sistemaren dinamika konplexuaren arabera egiten da hizketaren patologiaren deskripzioa. Izan ere, hasieran, ahots patologikoek aldaketa txikiak eta ez-linealtasun finak dituzte. Beraz, ezaugarrien hautaketa ezinbestekoa da diagnostiko zehatza burutzeko. Aipatutako hizketaren azterketarako modelatze- ikuspuntu berri honek hizketa eta disfluentziak modelatzeko zenbait ezaugarri-mota txertatzen ditu: linealak eta ez-linealak.

4. KAPITULUA: METODOAK

Taula 4. 1: Ezaugarrien inbentarioa.

Espektro-arloko ereduak	Harmonizitatea, harmoniko/zarata ratioa (HNR), tonua (pitch), jitter, shimmer, anplitude-nahasmenduaren kozientea (APQ, amplitude perturbation quotient), espektro-zentroidea eta formanteak [38][56][158].
Ezaugarri klasikoak: Denbora domeinuaren ereduak	Ahostun/ahoskabe segmentuak, isiluneak, zero-crossing rate (ZCR, zero puntutik igarotzeko indizea) [38][56][159] eta horien aldaerak.
Ezaugarri klasikoak: Dinamikoak	Energia, intentsitatea, epe motzeko energia, anplitudea, intentsitatea [56][160][161].
Hautemate-ezaugarrak	Giza entzumenak iragazkiek bezala funtzionatzen du, alegia, frekuentzia-osagai jakin batuetan kontzentratzen da soil-soilik. Iragazki horiek modu ez-uniformean kokatzen dira maiztasun-ardatzean. Iragazki gehiago daude frekuentzia apaleko eremuan eta iragazki-kopuru txikiagoa go-frekuentziako eremuan. Hori dela eta, Mel eskalako maiztasunen analisia eta espezifikoki Mel Eskalako Koeficiente Zepstralena (MFCCrena) errendimendu-mota hori simulatzera bideratuta daude [56][160][161].
Ezaugarri aurreratuak	Modulation Spectra Coefficients (MSC) [160]. Perceptual Linear Predictive Coefficients (PLP) [162]. Linear Predictive Cepstral Coefficients (LPCC) [162]. Linear Predictive Cosine Transform Coefficients (LPCT) [66]. Adaptive Component Weighted Coefficients (ACW)[162]. Inferior Colliculus Coefficients (ICC) [163].
Ezaugarri ez-linealak edo Non-Linear Features (NLF)	Dimentsio Fraktala, Shannon-en Entropia eta Permutazio Entropia Multieskalarra kalkulatu dira [38][19][164].

4.2.1 Ezaugarri linealak

Hizkera osasuntsu eta patologikoa zein giza pertzepcioaren bidezko diskriminazioa bereizteko gehien erabiltzen diren ezaugarrietako batzuk erabiliko dira 4.1 Taulan [38][56][157][165]. Horietatik gehienak oso ezagunak dira ahots-seinaleen prozesatzearen eremuan. Ezaugarri guztiak gure ikerketa taldean garatutako software [38] [19], MATLAB [166], Praat [167] eta Alzumeric-en bidez kalkulatzen dira.

- Ezaugarri aurreratuen blokean ezaugarri berriak ageri dira. Besteetan artean:
- Adaptive Component Weighted coefficients (ACW): kanalen distortsioa gutxiago nabaritzen dute.

- Modulation Spectra coefficients (MSC): informazio osagarria ematen diete MFCC koefizientei.
- Perceptual Linear Predictive (PLP) coefficients: intentsitate bolumen handienekin egokitzapena kontuan hartzen dute.
- Inferior Colliculus coefficients (ICC): beheko Colliculusen eredu bioinspiratua erabiltzen dute.

4.2.2 Ezaugarri ez-linealak

Beraz, mintzamen-konplexutasuneko maila desberdinak dituzten hiru atazen azterketatik abiatuta, mintzamen automatikoaren analisian oinarritutako multi-hurbilketa ez-lineala egin da:

Dimentsio fraktala da sistema baten konplexutasuna ezaugarritzeko erabiltzen den neurketa erabilienetako bat. Sistema fraktal gehienek autoantzekotasuna deituriko ezaugarria dute. Objektu bat autoantzekoa da baldin eta bere hurbileko azterketak agerian uzten badu bere buruaren bertsio txikiagoz osatuta dagoela. Autoantzekotasuna kuantifika daiteke patroi bat osatzen duten oinarrizko osagai-kopuruaren neurtze erlatibo gisa, eta neurtze horri Dimentsio Fraktala deitzen zaio. Higuchi [168] eta Castiglioni [169] algoritmoak oso egokiak dira, besteak beste, hizketa-analisia erabiltzen diren denbora-serieen aztertarako.

Permutazio Entropiak eta Permutazio Entropia Multieskalarrak kontuan hartzen dute denbora-seriek daukaten denbora-informazioa. Gainera, simpleak eta sendoak dira eta kostu konputazionalaren aldetik kostu txikikoak [170][171][172]. Bandt-ek eta Pompe-k [173] metodo simple eta sendo bat ezartzen dute, Shannon-en entropia-neurketa delakoan oinarritura. Horrek denbora-kausalitatea hartzen du kontuan, denbora-serie bateko antzeko balioak konparatzea dela medio. Laburbilduz, Permutazio Entropiak zerikusia du denbora-serieen ordenaren egitura lokalarekin, zeinak konplexutasunaren neurtze kuantitatiboa eman dezakeen denbora-serie dinamikoetarako.

4.2.2.1 Fraktalak

Hizketa-seinaleen kuantifikazioa egin eta Alzheimerren sintomak hautemateko Dimentsio fraktalak (FD) erabilgarriak izan daitezke. López-de-Ipiña *et al.* [19][21] FD-ei buruzko honako deskribapena egiten dute:

Dimentsio fraktalak (FD) denbora-seinale baten garraztasuna kuantifikatu egiten du sinusoide-seinale konplexuaren eta zarata zuriaren artean eta bere askatasun-maila balioesten du, eta hortaz, bere fluktuazioak modelizatzeko tresna baliagarria izan daiteke. Hizketa-aerodinamiketako eremutik, Maragos-ek eta Potamianos-ek motibazioa eta justifikazioa eskaintzen dituzte dimentsio fraktala erabiltzeko turbulentzia-maila

kuantifikatzeko hizketa-seinaleetan [174]. Aldi berean, jardunbide artikulatzaileetan eta ozentasunean dauden desberdintasunak aztertzen dituzte. Ikerketa horretan, Dimentsio Fraktala (FD) eraginkorragoa da *zero-crossingak* (*zero* puntuik igarotzeko indizeak) baino. Bioseinaleetan (EEG eta MEGtan) oinarritutako AD-ren ahoskerari buruzko beste lanean bezala [175], metodologia hori erabilgarria izan daiteke Alzheimerren sintomak hautemateko, bestek bestea, zalantzak, etenaldiak edota isiluneak hizketa-seinaleetan.

Hurbilketa horrekin sistema hobetu nahi da [19][23], ereduak handiagotzen FD dela bide. FD oso eredu ezaguna eta erabilia da sistema baten konplexutasuna deskribatzeko, eta lagungarri izan daiteke diagnostiko goiztiarrerako erabilgarriak diren aldaketa ūimioak detektatzeko. Bestalde, eredu hau gai da sistemaren dinamikak antzemateko eta, hortaz, bariozio adierazgarriak agerian jarri ditzake hizketa-seinaleetan. Zehatzago esateko, Higuchi-ren, Katz-en eta Castiglioni-ren algoritmoen [168][176][169] implementazioak erabiltzen dira eredu berri hau modeloaren entrenatze-prozesua elikatzen duen multzoari gehitzeko.

FD-ren balioak izan beharko lukeen uhin-forma jakin bati buruzko erreferentzia zehatzik ez dago. Gainera, hizketaren uhin-formak ez dira geldikorrak. Hori dela eta, Hizketa Ezagutze Automatikoaren (Automatic Speech Recognition, ASR) teknika gehienek seinalearen zatiketa motzak erabiltzen dituzte uhin-formatik ezaugarriak ateratzeko. Horrek esan nahi du, fonema desberdinak ezagutu ahal izateko, hizketaren uhin-formetatik ezaugarriak ateratzeko teknika onargarri bat izan daitekeela seinalea zati txikitzen banazea eta zati bakoitzerako ezaugarriak kalkulatzea.

Beste hitzetan, uhin-formaren segmentu motzen dimentsio fraktala kalkulatu daiteke eta seinale osotik lortutako balioen eboluzioa behatu. Helburua, ahozko mezuaren osagaiaiak identifikatzen lagungarri izan daitezkeen ezaugarri fraktalak aurkitzea.

4.2.2.1.1 Higuchi-ren Dimentsio Fraktala

Deskribapena egiten da [21] lanean. Dimentsio fraktala neurtzeko badira zenbait algoritmo eta artikulu honetan [21], arreta denbora-serieen analisirako bereziki egokiak diren aukeretan jartzen du arreta, sistemaren aurretiko modelatzea eskatzen ez dutenetan. Algoritmo horietako hiruk beren egileen izena daukate, Higuchi (1988), Katz (1988) eta (2010). Higuchi eta Castiglioni aukeratu dira baliabideak urriak direnetan [177][178] zehatzagoak omen direlako nahiz eta Katz ere algoritmo sendotzat hartzen den dimentsio fraktala kalkulatzeko [179].

Higuchi-k (1988) denbora diskretuko sekuentzien dimentso fraktala neurtzeko eta denbora-serieetatik zuzenean $x(1), x(2), \dots, x(N)$ hartzeko algoritmo bat proposatu zuen. Algoritmoa, jatorrizkotik eraikitako denbora-serie berri batean, x_m^k oinarritzen da:

$$x_m^k = \left\{ x(m), x(m+k), x(m+2k), \dots, x\left(m + \left\lfloor \frac{N-m}{k} \right\rfloor k\right) \right\}, \\ \text{for } m = 1, 2, \dots, k \quad (4.1)$$

non $[a]$ -k a-rako zati osoa, m -k hasierako denbora-balioa eta k -k bi puntu arteko denbora-tarte diskretua adierazten duen. x_m^k eraikitako denbora-serie bakoitzerako, $L_m(k)$ batez besteko luzera horrela konputatzen da:

$$L_m(k) = \frac{\sum_{i=1}^{\lfloor \frac{N-m}{k} \rfloor} |x(m+ik) - x(m+(i-1)k)| (N-1)}{\lfloor \frac{N-m}{k} \rfloor k} \quad (4.2)$$

Ondoren, kurbaren luzera k denbora-tarterako definitzen da batura-balio bezala $L_m(k)$ ren k multzoen gainean, 3. ekuazioan erakusten den moduan:

$$L(k) = \sum_{m=1}^k L_m(k) \quad (4.3)$$

Azkenik, $\ln(L(k)) / \ln(1/k)$ kurbaren malda kalkulatzen da karratu minimoetako doitze lineal optimoa erabilita, eta emaitza Higuchi Dimentsio Fraktala da (HFD).

4.2.2.1.2 Katz eta Castiglioni-ren Dimentsio Fraktala

Bestalde, Katz-ek (1988) proposatu zuen dimentsio fraktalaren formula normalizatu bat (ikus 3. Ekuazioa) dimentso fraktal hori neurtze-unitate partikular horien mende baitago.

Kurba plano baten FD delakoa horrela definitu daiteke:

$$FD = \frac{\log_{10}(L)}{\log_{10}(d)} \quad (4.4)$$

Kasu horretan, L kurbaren luzera da eta d kurbaren diametroa (hedadura planoa). Denbora-serietan, zeinak puntu bikoitien multzo ordenadunak diren (x, y) , L luzera osoa ondoz ondoko puntu arteko distantziaren batuketa baino ez da 5. ekuazioan ikus daitekeen bezala:

$$L = \sum_{i=1}^n l_{i,i+1} \quad (4.5)$$

non $l_{i,j}$ adierazten duen bi puntu bikoitien (x_i, y_i) eta (x_j, y_j) arteko distantzia eukliдиra 5. ekuazioan agertzen den moduan, eta $n+1$ puntu bikoitien kopuru osoa den.

$$l_{i,j} = \sqrt{(y_i - y_j)^2 + (x_i - x_j)^2} \quad (4.6)$$

Denbora-serieen diametroa kalkulatu daiteke abiapuntuaren eta denbora-serieen edozein beste puntutako distantziaren (i puntu) arteko distantziarik urrutiena bezala, 6. ekuazioan adierazten den moduan:

$$d = \max\{l_{1,i}\} \quad (4.7)$$

FD-k konparatzen du kurba batean une horretan dagoen unitate-kopurua hedadura espazial bereko eredua erreproduzitzeo behar den unitate-multzo txikienarekin; eta, arestian esan bezala, horrek erabilitako neurte-unitateekin zerikusia izango du, FD kalkulatzen baita espazio diskretu batean eta ez jarraituan.

Katz-ek irtenbidea ematen dio arazo horri d eta L , a batez besteko urratsaren luzerakin normalizatzuz, ondoz ondoko puntuen arteko batez besteko distantzia, $\frac{L}{n}$ moduan definitua, non $n + 1$ puntu bikoitien guztizko kopurua den 5. ekuazioan agertzen den bezala. Hortaz, (4)n distantziak normalizatzean, Katz-en hurbilketa lortu dezakegu denbora-serie bateko FD kalkulatzeko (8):

$$FD = \frac{\log_{10}(n)}{\log_{10}(n) + \log_{10}\left(\frac{d}{L}\right)} \quad (4.8)$$


Hala ere, Castiglioni-k (2010) esaten du $X - Y$ planoan, zeinak uhin-forma deskribatzen duen, erabiltzen diren x eta y magnitudeak intrintsekoki desberdinak direla bat etortzen baitira seinalearen magnitudearekin (y) eta denbora-puntuekin (x). Ondorioz, kontuan izanik input seinalea uhin-forma monodimentionala dela, luzera eta hedadura berridatzi daitezke Mandelbrot-en hurbilketa dela medio. Hori egiteko bide erraza eta eraginkorra zera da, alegia, bi magnitude horiek zuzenean neurtea bakoitza bere dimentsioan. Bakoitzerako, y -ardatzaren gaineko hedadura y_k ren heina da:

$$d = \max\{y_k\} - \min\{y_k\} \quad (4.9)$$

eta L luzera gehikuntza guztiak batura da, modulutan:

$$L = \sum_{k=1}^n |y_{k+1} - y_k| \quad (4.10)$$

Non, beste behin ere, d da kurbaren diametroa, L kurbaren luzera eta $n + 1$ puntu bikoitien guztizko kopurua.



Irudia 4. 5: Higuchi-ren dimentsio fraktala. Higuchi-ren dimentsio fraktala (HFD) kontrol-subjektu bati dagokionez (goian) eta AD duen subjektu bati dagokionez (behean), leihotamaina desberdinatarako.

4.2.2.2 Entropia

Entropiak desordena-maila neurtzen du sistema fisikoetan eta, horrez gain, egoera espezifikoaren interpretazio asko dituen oinarrizko kantitatea da. Desordenarekin, egoera-espazioaren bolumenarekin edota informazio-faltarekin lotu izan dute [170][171][180][181]. Maiz, Shannon-en entropia modu klasiko eta naturalentzat jotzen da seinale batean informazioaren aurreikusitako balioa (babezbesteko) neurtzeko [172][181][182][183]. Richmanek *et al.*ek entropia hori aztertzen dute, eta sistema dinamikoen arabera izaten da informazio-produkzioaren tasa [184]. Egile batzuek azpimarratzen dute entropia kalkulatzek datu-multzo oso luzeak eskatzen dituela eta hori, biomedikuntzari dagokionean, oso zaila edo ezinezkoa dela. Bestalde, denboraserie batek adierazitako sistema baten entropia kalkulatzeko metodoak ez dira egokiak biomedikuntza-ikerketetan datu motz eta zaratatsuak aztertzeko [170][184]. Ondorengo azpiataletan, entropia kalkulatzeko erabilitako proposamenak aurkeztuko dira.

4.2.2.2.1 Shannon-en Entropia

X ausazko aldagai diskretu bakar baten entropia $H(X)$ bere batez besteko segurgabetasunaren neurria da. Shannon-en entropia [181][183] honako ekuazio honen bidez kalkulatzen da:

$$H(X) = - \sum_{x_i \in \Theta} p(x_i) \log p(x_i) = - E[\log p(x_i)], \quad (4.11)$$

non X -k adierazten baitu ausazko aldagai bat, Θ balioen multzo bat eta probabilitate-masaren funtzioa dituena $p(x_i) = P_r\{X = x_i\}, x_i \in \Theta$, eta E -k itxaropen-eragilea. Kontuan izan $p \log p = 0, p = 0$ bada.

Prozesu estokastiko baten irteera adierazten duen denbora-serie bati dagokionean, hau da, n ausazko aldagaien sekuentzia indexatuak, $\{X_i\} = \{X_1, \dots, X_n\}$, hurrenez hurren $\theta_1, \dots, \theta_n$, balioen multzo bat eta $X_i \in \theta_i$, dituenari dagokionean, honako honek definitzen du entropia konposatua:

$$H_n = H(X_1, \dots, X_n) = - \sum_{x_1 \in \theta_1} \dots \sum_{x_n \in \theta_n} p(x_1, \dots, x_n) \log p(x_1, \dots, x_n), \quad (4.12)$$

non $p(x_1, \dots, x_n) = P\{X_1 = x_1, \dots, X_n = x_n\}$ da probabilitate konposatua n aldagaietarako, X_1, \dots, X_n .

Ekuazioari katearen araua aplikatzen badiogu (2), entropia konposatua entropia baldintzatuen batura moduan idatz daiteke, non haietako bakoitza kantitate ez-negatiboa den:

$$H_n = \sum_{i=1}^n H(X_i | X_{i-1}, \dots, X_1), \quad (4.13)$$

Hortaz, entropia konposatua n -ren funtziola hazkorra da. Entropia konposatua n -rekin hazten den tasa, hau da, h entropia-tasa, horrela definitu daiteke:

$$h = \lim_{n \rightarrow \infty} \frac{H_n}{n}, \quad (4.14)$$

4.2.2.2 Gutxi gorabeherako Entropia vs Legin-Entropia

Gutxi gorabeherako entropia neurri estatistiko bat da, zeinak behin-behineko interferentzia moteltzen duen eta zarataren eragina saihestu dezakeen algoritmoaren parametroak behar bezala jarrita. Erabili daiteke seinale estokastikoetan eta baita seinale deterministean ere [185][186]. Hori erabakigarria da biologia-seinalei dagokienean, zeinak biologia-sare konplexuen irteerak diren eta deterministikoa, estokastikoak edo biak batera izan daitezkeen. Gutxi gorabeherako entropiak seinaleen irregularitasunaren neurketa eskaintzen digu, ereduarekiko independentea den neurketa. Algoritmoak denbora-serie bat zenbaki ez-negatibo batean sintezitatu egiten du, non balio handiagoek sistema irregularragoak adierazten dituzten [185][186].

Metodoak aztertzen ditu denbora-serieak antzeko mementuetarako [187]: mementu sarriagoek eta antzekoagoek gutxi gorabeherako entropiaren balio txikiagoak dituzte. ApEn(m, r, n) honako probabilitate baldintzatu hau neurtzen du, alegia, m

puntuetarako antzekoak diren n luzera duten bi segidek antzoko izaten jarraitzen dute hurrengo lagin-puntuauan, r tolerantzia baten barruan. Hortaz, gutxi gorabeherako entropiaren balio baxuak erregulartasunaren maila altua islatzen du. Gutxi gorabeherako entropiaren algoritmoak segida bakoitza kontuan hartzen du bere burua egokitutako balu bezala errakuntza-tartea gutxiagotzeko; lagin-entropia $\text{SmEn}(m, r, n)$ garatu zen autoegokitze horiek kontuan ez hartzeko.

Lagin-entropia definitzen da n puntuatko denbora-serie baterako. Hasteko, $\mathbf{x}_m(i) = \{u(i+k) : 0 \leq k \leq m-1\}$ $n-m+1$ bektoreak definitzen dira $u(i)$ -tik $u(i+m-1)$ -rako m datu-puntuatko bektore gisa. Horrelako bi bektoreren arteko distantzia $d[\mathbf{x}_m(i), \mathbf{x}_m(j)] = \max_k \{|u(i+k) - u(j+k)| : 0 \leq k \leq m-1\}$, i.e., bezala definitzen da, haien osagai eskalarren arteko diferentzia maximoa. $\text{SmEn}(m, r, n)$ lagin-entropia horrela definitzen da:

$$\text{SmEn}(m, r, n) = \lim_{n \rightarrow \infty} \{-\ln(A^m(r)/B^m(r))\} = -\ln(A/B), \quad (4.15)$$

non

$$A = [(n-m-1)(n-m)/2]A^m(r), \quad (4.16)$$

eta

$$B = [(n-m-1)(n-m)/2]B^m(r). \quad (4.17)$$

$B^m(r)$ bi sekuentzia m puntuatko probabilitatea da:

$$B^m(r) = (n-m)^{-1} \sum_{i=1}^{n-m} B_i^m(r), \quad (4.18)$$

non $B_i^m(r)$ da $(n-m-1)^{-1}$ bider $\mathbf{x}_m(j)$ bektore kopurua $\mathbf{x}_m(i)$ ren r tolerantzia baten barruan. Modu berean, $A^m(r)$ da bi sekuentzia $m+1$ puntuatko probabilitatea:

$$A^m(r) = (n-m)^{-1} \sum_{i=1}^{n-m} A_i^m(r), \quad (4.19)$$

non $A_i^m(r)$ da $(n-m-1)^{-1}$ bider $\mathbf{x}_{m+1}(j)$ bektore-kopurua $\mathbf{x}_{m+1}(i)$ ren r tolerantzia baten barruan. Ikerketa honetan, [187]ean: $m = 2$ eta $r = 0.2$ aholkatutako parametroak erabili dira, eta iturrietako desbideratze estandarra 1ean normalizatu egiten da. Lagin-entropia konplexutasunaren ahalmen handiko zenbatzailea da, adibidez, elektroenzefalografiaren (EEG) seinalei dagokienean [188], eta erabili daiteke markatzaile moduan tresnen presentziarako EEG irarketetan [189]. A/B kantitatea probilitate baldintzatua da non r tolerantziako puntuak barruko bi sekuentzia elkarrekiko r mantendu daitezten ondorengo puntuauan. Gutxi gorabeherako entropiak ez bezala, zeinak probabilitateak txantiloiz moduan kalkulatzeko dituen, lagin-entropiak

probabilitate baten logaritmo negatiboa kalkulatzen du oro har hartutako denbora-serie batekin lotuta.

4.2.2.3 Permutazio Entropia

Permutazio Entropiak (PE) zuzenean analizatzen du denbora-serieek duten behin-behineko informazioa; areago, azpimarratu behar dira eskaintzen dituen erraztasuna, sendotasuna eta kostu konputazional txikia [170][172][182]. Bandt-ek eta Pompe-k [173] Shannon-en entropia-neurketan oinarritutako metodo erraza eta sendoa garatu dute, zeinak kontuan hartzen duen denbora-kausalitatea hurbileko balioak erkatzen denbora-serie batean. Sekuentzia sinboliko egokia sortu egiten da denbora-serietatik era naturalean, aurreko ezagutza asumituarekin gabe [170].

Permutazio entropia denbora-serie jakin baterako $\{x_1, x_2, \dots, x_n\}$ kalkulatzen da, ϵ eskala-faktorearen funtzio gisa. X_j denbora berri baten permutazioa konputatu ahal izateko, $S_t = [X_t, X_{t+1}, \dots, X_{t+m-1}]$ sortzen da m dimentsio txertatua eta, ondoren, goranzko ordenean antolatuta: $[X_{t+j_1-1} \leq X_{t+j_2-1} \leq \dots \leq X_{t+j_{n-1}}]$. m balio desberdinak emanda, π $m!$ eredu posibleak izango dira, permutazio izenaz ezagutzen direnak. Baldin eta $f(\pi)$ -k bere frekuentzia adierazten badu denbora-serietan, bere frekuentzia erlatiboa $p(\pi) = f(\pi)/(L/s - m + 1)$ izango da. Hori horrela, permutazio entropia definitzen da:

$$PE = - \sum_{i=1}^{m!} p(\pi_i) \ln p(\pi_i), \quad (4.20)$$

Laburbilduz, permutazio entropia denbora-serieen ordena-estrutura lokalari dagokio, zeinak konplexutasunaren neurri kuantitatiboa eman dezakeen denbora-serie dinamikoetan. Adibidez, Bandt-ek eta Pompe-k [173] $m = 3, \dots, 7$ erabiltzea iradoki zuten, beti ere honako arau hau jarraituta:

$$m! < n. \quad (4.21)$$

Baldin eta m txikiegia bada (3 baino txikiagoa), algoritmoak ez du behar bezala funtzionatuko egoera desberdin gutxi baino izango ez baitu grabatzeko, baina datuen mende dago. Seinale luzeak erabiltzen direnean, egokiagoa da m -ren balio handiagoa, baina denbora konputazional zabalagoak beharko dira.

4.2.2.4 Eskala anitzeko Permutazio Entropia

Costa *et al.*ek proposatu zuten eskala askotariko entropia (Multiscale Entropy, MSE) [172] oso metodo sendoa dela frogatu da ondorio estrukturalak aztertzeko datu erreal

konplexuek dituzten askotariko denbora-eskaletan. Morabito *et al.*-ek azaldu dutenez EEG seinale-prozesatzerako beren aplikazioan [171], ohiko ale larriko (coarse-graining) prozedura honela implementatu daiteke:

- (i) Jatorrizko denbora-serieetatik, askotariko ale larriko bertsioak atera daitezke hurrenez hurren $y_j(\varepsilon)$, dela medio, non ε eskala-faktorea den. Hona nola kalkulatzen den ale larriko denbora-serietako elementu bakoitza:

$$y_j(\varepsilon) = \frac{1}{\varepsilon} \sum_{i=(j-1)\varepsilon+1}^{j\varepsilon} x_i. \quad (4.22)$$

- (ii) Eskala-serie bakoitzerako, PE kalkulatzen da.

Morabito *et al.*ek [171], bariazio eta eskala askotariko permutazio entropia (MMSPE) erabiltzen dute zehar-kanaleko aldakortasunarekin eta kanaleko korrelazioarekin zerikusia duen informazioa integratu ahal izateko. Egileok aipatzen dute askotariko eskaletako bariazioa kontuan hartu ez zuten Keller eta Laufer [190]. Ahmed-ek eta Mandic-ek [191] tankerako prosamena analizatu zuten, bariazio eta eskala askotariko entropia (MMSE), lagin-entropiari dagokionez.

Hortaz, zehar-kanalaren konplexutasuna $f_s = 1/T$ -rekin, PE (MPE) askotariko bariazioa adierazten duena, kalkulatu daiteke $s \in [f_s T - m]$ denbora guztiarako p_j -ren permutazio-entropia gisa:

$$H_{MPE}(s) = \sum_{j=1}^{d!} p_j \log_2 p_j. \quad (4.23)$$

Eta MMSPE algoritmoa implementatu egiten da honako bi urrats hauen arabera:

- (i) Handitz doan lutzerako denbora-eskala desberdinak definitzen dira jatorrizko bariazio askotariko denbora-serieak “ale larritzearen” bidez, hau da, *i.e.*, $\{x_i, t\}$, $i = 1, \dots, c$ -rako (non kanalen kopurua den) eta $t = 1, \dots, n$ -rako (non n denbora bakoitzeko serietako lagin-kopurua den). Eskala-faktore baterako, honela deribatu daitezke ale larriko denbora-serieak:

$$y_{i,j}(\varepsilon) = \frac{1}{\varepsilon} \sum_{t=(j-1)\varepsilon+1}^{j\varepsilon} x_{i,t} \text{ for } i = 1, \dots, c, \text{ and, } 1 \leq j \leq \frac{n}{\varepsilon}. \quad (4.24)$$

- (ii) MPE kalkulatzea, askotariko bariazioko permutazio-entropia alegia, askotariko bariazioko $y_{i,j}(\varepsilon)$ “ale-larriko” bakoitzerako eta batez besteko aldaera guztiarako.

4.2.2.3 Emozio-temperatura

Gogoratu, Alzheimerdun gaixoengan, mintzamena ez ezik, erantzun emozionala ere kaltetu egiten dela, eta, ematen duenez, zenbait fase ditu. Gainera, hasierako faseetako andeatzea dela bide, gizarte-desinhibizioa eta portaera-aldaaketak gertatzen dira [45][46].

Fase aurreratuagoetan, gaixoak lotsati eta apatiko azal daitezke; sintoma horiek oroimen-galtzeari edota komunikatzeko zailtasunei eta pertzepzio aldatuari egozten zaizkio.

Aipatu bezala, erantzun eta kudeaketa emozionalak ere badira gaitzaren hasierako fase horietan nahasten diren beste komunikazio-elementu batzuk. Ezagutza- eta komunikazio-defizit eta portaera-sintoma horiek guztiak oso faktore baliagarriak izan daitezke AD ebaluatzeko.

Emozio-temperaturaren bidez emozio-erantzuna ere aztertuko da. Temperatura emozionala kalkulatzeko estrategia mistoa erabiltzen da. Batetik, 2 ezaugarri prosodiko eta bestetik, 4 ezaugarri paralinguistiko, pitch eta energiarekin erlazionatzen dira. Ezaugarri horiek azkar eta erraz kalkulatzen direlako aukeratu ziren. Gainera, emozio-ezagutzan eraginkorrik eta segmentazio linguistikoarekiko [192] independenteak dira.

4.2.2.4 Disfluentziaren azterketa


Gure ikerketa AD hasierako fasean, prodromo-fasean alegia, detektatzen bideratua dago, eta hizkuntzatik independenteak diren metodologien integrazioa zuzenduta. Horrek guztiak CR zein MCI duten subjektuen disfluentzia aztertzen garamatza. Kontuan hartu behar dugu, memoria galtzearekin batera, AD-ren arazo handienetako hizkuntzaren ezagutzaren galera dela. Hitz egiteko eta beste pertsona batzuk ulertzeko zailtasunean islatzen da eta horrek komunikazioaren prozesu naturala zein elkarrekintza soziala are gehiago zaitzen du. Komunikatzeko ez gaitasun hori gaixotasunaren lehen etapetan azaltzen da, hizkuntzaren zailtasuna dela bide. AD dutenen bazterte soziala dakarte eta gaixoenganako zein beren familienganako eragin negatiboa [14]. Gainera, lan berrien arabera, disfluentziak MCI eta AD ezagutzeko garrantzia azpimarratzen dute. Ikerlan horien [19] arabera, adibidez, grabazio laburretan, hizketa sortzeko, AD duten gaixoek osasuntsu daudenak baino lan handiagoa egin behar dutela islatzen dute. AD duten gaixoek motelago hitz egiten dute etenaldi luzeagoz, denbora gehiago behar dute hitzak bilatzen, eta horrek disfluentziekin duen zerikusia eta apurtuta dauden mezuekin.

Hizkeraren disfluentzia hizketa jariakor batean gertatzen den edozein etendura, irregularitasun edo elementu ez-lexiko dira, eta hizketa eten dezakete. Besteak beste: hasiera faltsuak, esaldi errepikatuak, silaba errepikatu edo luzatuak, mar-marrik, betetze eta enuntziatu konponduak eta bakoitzaren mingain notak konpontzeko hizlarien instantzia edo mikroahoskatzeak [54].

Disfluentzia horiek areagotzea narriadura kognitiboaren zeinu argia izan daiteke eta gainera hizkuntzatik independentea da. Disfluentzia zein isiluneen gehiagotzeak gaixotasunaren okerragotzearen isla dezake eta komunikazioaren argitasunean eskasia ekar dezake. AD duten gaixoengan, batzuetan, barneko prozesu kognitiboaren hitzezko espresioan bilakatzen dira, hots, bakarrizketa: “Zer da hori?”, “Nola du izena?”, /Uhm/ “Ez dut gogoratzen”.

Ondoriozta daiteke, beraz, disfluentziak prozesu kognitiboaren isla zuzena direla komunikazioan zehar eta asaldura horiek antzematerako ukaezina den ezaugarria igortzen dutela, hizkuntzatik independentea izateaz gain. Ez dugu ahaztu behar AD-k, batez ere, gaixotasun kognitiboa izateaz gain, fonazio- eta artikulazio-aldekuntza biomekanikoak ekar ditzakeela. Hori dela eta, disfluentziak oso elementu interesgarriak dira eta MCI ondo detektatzeko erabilgarriak izan daitezke. Bai ahots isiluneek zein disfluentziek oso informazio garrantzitsua dute ahoskatutako mezuaren esanahia deskodetzeko.

Disfluentzia kalkulatzeko estrategia mistoa erabiltzen da, tenperatu emozionalarekin egiten den bezala. Ahots-laginak automatikoki ahots-seinale eta disfluentziaren segmentatu dira Voice Activity Detection (VAD) algoritmoaren bidez. Disfluentziaren segmentutik aterako diren parametroak seinalearen zatitik aterako diren parametro berak dira. Horrela, disfluentzia aztertzeko aukera egongo da eta laginaren narriadura-maila ezagutzeko ezaugarri gehiago eskuratu ahal izango dira.



Irudia 4. 6: Hitz-jario kategorikoaren (CVF) ataza. MCI gizabanakoa. (a) Hitz egiten, (b) Disfluentzia.

4.3 Ezaugarrien hautaketa automatikoa

4.3.1 Disfluentziaren segmentazio automatikoa (VAD)

Ezaugarrien azalpenean aipatu den bezala, hots-laginak, automatikoki, ahots-seinale eta disfluentziaren segmentatzen dira. Horretarako, VAD (Voice Activity Detection) [193] [194] algoritmoa erabili da.

Teknika hori hizketaldiaren prozesatzean erabiltzen da eta giza hizketaldia edo horren gabezia atzematen ditu. Ahotsaren kodetze eta horren araketarako erabili ohi da eta ahots-gabezia dagoen HTTP komunikazioetan prozesu batzuk gelditu eta konputazio zein banda zabalera aurrezteko oso erabilia da. Algoritmo horren bidez, AD/MCI/CR dutenengan izango duen eragina balioztatuko da.

4.3.2 Proba ez-parametrikoen bidezko ezaugarrien hautaketa automatikoa

Laginen normalitatea aztertzeko Kolmogorov-Smirnov proba ez-parametrikoa erabili da MATLAB-en [166] bidez, eta laginak normaltasun irizpidea betetzen ez duela ikusi da.

Lehen azterketaren ondoren eta laginak normaltasun-irizpidea betetzen ez dutela ikusita, proba ez-parametrikoak erabiliko dira ezaugarrien hautaketa automatikoa egiteko.

Hain zuzen ere, Mann-Whitney-en U testa t-Student probaren baliokidea da: bi proben arteko diferentzia bakarra probarako erabiltzen den estatistikoa da. Proba hori t-Student probaren antzekoa da baina lagin ez-parametrikoetarako.

Bestalde, bere zabalpena estatistikan, Kruskal-Wallis proba, k lagin homogenoak edo populazio berekoak diren erabakitzeko kontraste ez-parametriko da. Hautaketa automatikoa ohiko adierazleak diren ezaugarri hoherenak aukeratuko dira proba honen bidez.

Aukeraketa hori Mann-Whitney-en U probaren bidez egiten da, non p -balioa<0,1 izango den ezaugarri-talde handiagoa izateko helburuarekin, bigarren hautaketa-etapa izango baita []. Gogoan izan behar dugu, ezaugarrien hautaketa horren helburua adierazgarria den ezaugarri-bektorea lortzea dela. Horrela lortu nahi dena zera da, alegia, ML algoritmoei CNN-ak barnetik aberastua dagoen informazio atxikitzea, haien lana errazteko.

CNN-en kasuan, nolabait lehen ezaugarri-mapa bat txertatzen zaio, ondoren CNN-an, konboluzio-pooling geruza gehitu diezaion jadanik ezaugarritua jasotzen duen matrizeari. CNN-ari sartuko zaion informazioa ez da bektorea izango 2D-tara eraldatzen baitugu neurona-sarean sartu aurretik.

4.3.3 Ezaugarrien bigarren hautaketa automatikoa

Behin Mann-Whitney-en U edo Kruskal-Wallis-en (MATLAB) ezaugarrien hautaketa automatikorako metodoen bidez bektorea ateria denean, WEKA softwarea erabiliz, hautaketaren bigarren etapa egingo da. Oraingoan, programa honek eskaintzen duen metodoen bidez.

4.4 Sistemaren eredutzea: ezagutza automatikorako ereduak

4.4.1 Machine Learning paradigmak

Machine Learning-en ezagutza automatikorako lau sailkatzaile erabiliko dira klaseak etiketa desberdinetan (AD eta desberdinak, MCI eta CR) taldekatzen:

- K-NN: k-Bizilagun Hurbilak
 - SVM: Euskarri Bektoreen Makina
 - MLP: L geruzadun eta N neuronadun Geruza Aniztunadun Pertzeptroia
 - CNN: L geruzadun eta N neuronadun Sare Neuronal Konboluzionala cxc konboluzio eta pxp pooling-arekin. Hurrengo atalean neurona-sare horiei buruz hitz egingo da.

Eperimentazio hori egiteko erabili dira WEKA suite [195], emaitzak ebaluatzenko Taldekatzerako Errore-Tasa (CER%) eta entrenamendu eta emaitzen balioztapenerako K = 10 den K-fold cross-validation delakoak [196].

4.4.2 CNN-ak

CNN-ek AI-aren eremuan ekarri dituzten berrikuntzek ML-aren jakintzagaiaren eraldatu dute. Ahots-laginak sailkatzeako k-NN, SVM eta MLP-etaz gain CNN-ak ere erabili dira ikerlan honetan eta lortutako emaitzak itxaropentsuak dira. Hori guztiagatik, azpiatal osoa eskaini zaien neurona-sare mota horiei.

Gizakion garunak konplexutasun handiko mikroarkitektura dauka, eta bertan, eginkizun desberdinak burutzeko prestatuak dauden neurona-sareen nukleo eta eremuak aurkitu dituzte. Neurocientziak aurkitu du, bat-bateko garun-oinazeen kasu klinikoen azterketa eta irudien diagnostikoan izandako aurrerapenei esker, ikustearren ezaugarri desberdinak (lerroen makurdura, ertzak, simetria eta abar) hautemateko sare berezituak daudela.

Ikasketa automatiko sakonean oinarri duten eredu konputazionalek gizakietan gertatzen den jazoera hori errepikatzen saiatu dira, eta horretarako konfigurazio

zehatza duten neurona-sareak erabili dira. Arkitektura-aldeketa horretan, neurona-sare konboluzionalek edo Convolutional Neural Network-ek (CNN) zer esan handia dute, eta gainera, horrek hautemate konputazionalarekin zerikusia duten atazetan emaitzak nabarmen hobetzea ekarri du.

4.4.2.1 Deskripzioa


Neurona-sare konboluzionalak neurona-sare artifizialak dira eta datu egituratuak prozesatzeko bereziki diseinatu dira. 1 dimentsio, 2 dimentso eta 3 dimentsiotako (1D, 2D, 3D) datuekin lan egiteko prestatuak daude. Sare konboluzional horiek gizakien pertzepcio-gaitasunera hurbiltzeko trebezia handia erakutsi dute. Neurona-sareak direla bide, errealtitate biologiko horretara hurbiltzeko emandako urrats kualitatibo horren ondorioz, ikasketa automatiko sakona (Deep Learning) izeneko jakintzagaia garatzen hasi da.

Beraz, Deep Learning-ek ikuspuntu berria dakar, eta erabiltzen diren egitura logiko digitalek ugaztunen nerbio-sistematik oso hurbil daudenez, baditzte hautemandako objektuetatik ezaugarriak antzemateko gaitasuna duten barne-geruza bereziak, ugaztunek bezala. Barruko geruza berezi horietaz gain 2 tarteko geruza baino gehiago dituzten sareak ere sare sakon izenaz ezagutzen dira.

Zenbait eremutan erabiltzen hasi dira, batez ere ikusmen artifizialean [121] edo kortex sentsoriala hobeto ulertzeko lanetan [197], besteak beste. Gainera, badaude egun, GPU-eten [198] exekutatzeko garatu diren Deep Learning liburutegi funtzionalak, eta horrek prozesu konputazionala asko azkartzeko bertutea dauka.


4.4.2.2 Multilayer Perceptron

Multilayer Perceptron-a (MLP) edo pertzeptron multigeruza Deep Learning ere bada eta geruza bateko neurona guztiak hurrengo geruzako neurona guztiak elkarren artean konektatuak dituzten sareak osatzen du. Horrek parametro asko eskatzen ditu eta exekutatzerakoan prozesua asko moteldu daiteke.



Irudia 4. 7: MLP. Oinarritzko MLP baten konexioak geruza ezkutuak bateko neuronak hurrengo geruzako neurona guztiekin konektatzen dira [199].

Adibidez 64x64x3 RGB irudiekin lan egiteko 12.000 parametro berri gehitu beharko genizkiobe ereduari eta hori ez bideragarria. Horri irtenbidea bilatzeko aukera bat irudiaren erresoluzioa txikitzea da, baina informazio garrantzitsua gal daiteke. Konputazio-kalkuluak asko moteldu daitezke irudien informazio-matrizeekin lanean ari bagara, eta zer esanik ez RGB irudiei MLP sarea txertatzen badiegu.



Irudia 4. 8: Irudien datu-matrizeak. Ezkerreko adibidean 11x4x1 irudi txuri-beltza eta eskuineko adibidean luzera x zabalera x 3 RGB irudi baten matrizeen adibidea ikus daitezke [200].

4.4.2.3 Deep Learning: Neurona-sare Konboluzionalak (CNN)

CNN-k badauka konexio osoa duten pertzeprton multigeruza deritzegun neurona-sareekiko desberdintasun handia:

- Entrenamendurako parametro gutxiago behar ditu, beraz, bere entrenamendua azkarragoa da.
- Baino ez du ezaugarri horrek bereizten bakarrik, matrizeen ezaugarrien traslazioarekiko inbariantza aurkezten baitu, eta gaitasun horrek matrize-informazio sastraken artean ezaugarriak aurkitzeko gaitasuna ematen dio.

Teknika horrek hizketaren ikuskapenerako emaitzak nabarmen hobeto ditu [121] eta ikerketa-lerro berriak ireki ditu audio seinaleen ikerketarako [201][202]. Sare konboluzionalek irudi, bideo, ahots eta audioen azterketan aurrerapenak ekarri dituzte eta 2D eta 3D matrizeen azterketan trebezia berezia dutela erakutsi dute.

4.4.2.3.1 Sare konboluzionalen arkitektura

CNN-ak pertzeprton multigeruza ere badira, baina, tartean, desberdinak diren ezkutuko geruzak ere badituzte, eta geruza berezi horiei esker:


- Konexio-kopurua asko gutxitzen da, eta ondorioz, konputazio-kalkuluak asko azkartzen dira.
- Ezkutuko geruza horiek datuen arteko erlazioa aurkitzeko gaitasuna ematen diote sareari, hots, matrizearen ezaugarriak ezagutzeko gaitasuna eta trebezia.

Beraz, sare konboluzionalak xede desberdinetarako erabiliko diren arren, eta horrek CNN-ak desberdin konfiguratzea eskatuko duen arren, badaude sare konboluzional guzietan errepikatzen diren geruzak eta bestelakoak: geruza konboluzionala, pooling geruza, guztiz konektatutako geruza, normalizaziorako aktibazio-funtzioak eta dropout teknikak.

4.4.2.3.2 Geruza konboluzionala

Konboluzioa f_1 eta f_2 funtzi matematikoak f_3 -n eraldatzen dituen eragilea da eta f_3 -k nolabait f_1 -en magnitudea irudikatzen du. Geruza konboluzionalak sartutako informazio bektore/matrizearen gain eragiketa matematiko batzuk egiten ditu kernel izeneko iragazkiaren bidez, eta horren ondoren, ezaugarrien mapa osatzeko gaitasuna dute eta geruza konboluzional bat baino gehiago segidan badaude, geruza batek aurrekoaren ezaugarri-mapa izango du sarreran.

Ikerketa-lan batzuek konboluzio horien sakontasunak irteerako doikuntzan eragina izan dezaketela erakutsi dute [129]. Azkenean, sarearen diseinatzailak aukeratu beharko du konboluziorako erabiliko duen kernela eta sarearen sakontasuna.



Irudia 4. 9: Konboluzioa. Goian 1D-ko bektorea eta 1D-ko kernelaren arteko eragiketa matematikoa eta ondoriozko ezaugarri-mapa [203]. Behean 2D-ko matrize eta kernelaren arteko eragiketaren ondoriozko ezaugarri-mapa [204].

CNN-a konfiguratzeko bilatzen den helburuaren arabera, aurreko irudian ikus daitekeen bezala, erabiliko iragazkia desberdina izango da. Behoko irudian bi adibide ikus ditzakegu:


$$\begin{array}{|c|c|c|} \hline -1 & -1 & -1 \\ \hline 2 & 2 & 2 \\ \hline -1 & -1 & -1 \\ \hline \end{array}
 \quad
 \begin{array}{|c|c|c|} \hline -1 & 2 & -1 \\ \hline -1 & 2 & -1 \\ \hline -1 & 2 & -1 \\ \hline \end{array}$$

Irudia 4. 10: CNN-en kernelak. Lerro horizontalak eta lerro bertikalak ezaugarrizko kernelak [205].

Hurbil dauden pixelek ezaugarriak aurkitzen lagundu dezakete konboluzio eragiketaren bidez [206], baina bertute hori ondo kudeatzen jakin behar da overfitting-a ekiditzeko [207]. Eragiketak ezkerretik eskuinera irrist egiten dihoa eta ilara bukatzean berriro hasten da beherago dagoen ilaratik hasita. Prozesua bukatu ondoren jatorrizko matrizea baina txikiagoa den ezaugarri-mapa sortuko da. Irrist-pausoaren tamaina definitzea ere garrantzitsua da kernelaren desplazamenduaren tamaina jakiteko (Normalean 1-ekoia izango da, hau da, zutabez zutabe egingo du salto). Iragazkiak


aurreko geruzan zehar egiten duen eskaner mugimenduaren tamaina ere urrats izenaz ezagutzen da.

Irteerako maparen tamaina kernelaren tamainaren araberakoa izango da eta sarearen konexio-kopurua txikitzea lortuko da. 1×1 -eko baino handiagoa den edozein kernelek irteerako ezaugarri-mapa txikituko du. Kernel bat baino gehiago txerta daitezke ezaugarri desberdinak deskribatzeko gaitasuna eman nahi badiogu sareari.




Irudia 4. 11: Ezaugarri-mapa I. 3×4 matrize batetik 2×3 -ko ezaugarri-mapa sortzen da [208].

Batzuetan ordea tamaina mantentzea interesgarria izan daiteke eta horretarako zeroen bidezko bigungarria (zero padding) jar daiteke ertzetan (irudia zeroz inguratuta) edo ausazko ertza.



Irudia 4. 12: Ezaugarri-mapa II. Ezkerreko irudian ezaugarri-mapak tamaina mantentzen du konboluzioa posizio guztietan eginez. Hau da, sarrerako matrizeari behar adina gehitzen dizkio ertzetan irteerako ezaugarri-maparen tamaina mantendu dadin. Eskuineko irudian, ordea, ezaugarri-maparen tamaina txikiagotzen da. Sarreran 5×5 -eko matrizea izanik irteeran 3×3 -koa geratzen da [208][209].

Geruza taldekatzeak geruza konboluzionalen segida batek osatzen dute. Hauen helburua, aurretik definitutako ezaugarri-mapetako ezaugarriak finkatzea da. Ezaugarrien irudikapena orokortu edo eta konprimitzeko balio duen teknikatzat har daiteke. Horrela, eredu sortzeko erabilitako datuen gehiegizko doikuntza ekidituko da. Askotan geruza taldekatzeak sinpleak izaten dira eta beren ezaugarri-mapa propioak sortzeko sarrera-datuengatik besteko edo maximoak hartzen dituzte.




Irudia 4. 13: CNN-en sakontasuna. Lehen geruzan konboluzioa egin eta ezaugarrien mapa atera ondoren beste hiru geruza erabiliko dira kasu honetan ezaugarrietan sakontzeko [210].

4.4.2.3.3 Pooling geruza

Behin konboluzioa bukatu eta gero, ezaugarrien mapa pooling izeneko beste geruza batetik pasako da. Horrek, zonaldeka, *mean-pooling* edo *max-pooling* eragiketak egingo ditu aztertzen ari den ezaugarrien maparen gainean. Pooling iragazkiak tamaina desberdinak izan ditzake, nahiz eta 2×2 -koa erabiliena den. Pooling-arkitektura estatikoa da hori, baina badaude irudietara hobeto egokitzeko helburuarekin piramide bidezko taldekatze espazialerako pooling dinamikoagoak [211].

Pooling delakoaren geruzek ezaugarri-mapatik jasotako informazioa gehiago simplifikaten dute eta ezaugarrien bertsio laburbildua sortzen dute. Geruza konboluzionalak ematen digun informazioitik abiatuta eremukako (Adibidez 2×2) informazioa hartu eta pooling geruzaren puntu bakarrean sintetizatzen da:



Irudia 4. 14: Pooling-a CNN-eten. 2 kasuetan 2x2 pooling-a egiten da. Ezkerreko irudian zehazki max-pooling egiten du eta eskuineko irudian pooling-ak irudian duen eragina ikus daiteke [212].


Pooling-aren bidez ezaugarri bat aurkitutakoan, honek beste ezaugarriekiko duen gutxi-gorabeherako kokapena bere posizioa zehatza jakitea baino garrantzitsuagoa da.

4.4.2.3.4 Guztiz konektatutako geruza

Behin konboluzio-pooling (edo subsampling) geruza-segidak behar adina errepikatzuz gero (batzuetan konboluzio geruza bat baino gehiago segidan), sailkapenerako algoritmoetan (gure kasuan bezalaxe, hots, MCI edo CR) guztiz konektatua dagoen geruza (densely connected layer) gehitzen zaio.

Irteeran, softmax edo beste aktibazio-funtzio ez-lineala izan dezakete eta entropia gurutzatua (cross-entropy) bezalako optimizatzalea (ataza probabilistikoetarako hobeto lan egiten du errore koadratikoak baino) adibidez. Sailkapenerako Deep Learning sareetan, konbinazio horrek ondo lan egiten du baina badaude beste aukera batzuk.

Softmax, irteerako bektore erreala, probabilitate bektore bihurtzeko diseinatua dago (guztien artean 1 gehitzen dute), hots, datu-matrize bat klase baten kide izateko probabilitateaz ariko ginateke gure kasuan. Mendeko aldagaiak klase bateko kide izateko probabilitateaz ari gara, hau da, sailkapen-kasu bati buruz. Taldekatzerako neurona bat erabiltzen da mota bakoitzera. Gure kasuan bi neurona izango dira irteeran (MCI/CR). Probabilistikoa izan ordez *One-hot encode* motakoa izan daiteke (adibidez: [0 0 1 0 0] bost neuronatako irteera batean).



Irudia 4. 15: CNN-en egitura orokorra. Deep Learning sarearen bukaeran guztiz konektatutako geruza gehitzen da eta sailkapen ereduetarako bektore probabilistikoa sortuko duten funtziak, softmax besteak beste [213].


Guztiz konektatutako geruzak sarearen bukaeran erabiltzen dira behin ezaugarriak erauzi eta sendotuz gero. Haiek erabiltzen dira ezaugarrien bukaerako konbinazio ez-linealak sortzeko eta sareak aurreikuspenak egiteko.

4.4.2.3.5 Aktibazio-funtzioak

Sarrera batzuk emanda korapilo baten irteera definitzen duen funtzia da eta zenbait motatakoak daude. Sarrerako geruzan izan ezik beste guzietan burutzen da eragiketa hau. Sarrerako konexioetatik datozen balio guztiengi gehiketa jaso ondoren, beste balio batean eraldatzen du. Hainbat aukera daude (sigmoide, ReLU, ...) eta horien helburua neurona bakoitzak sortutako balioak arrazoizko eremu batean mantentzea da (0 eta 1 artean dauden balio errealak adibidez). Aktibazio-funtzioek ez-linealak izan behar dute baldin eta ebatzi nahi den kasuistika ez-lineala bada. Lineala zatekeen kasu bat pezetatik eurotarako bihurgailua zatekeen. Gure ikerketa-lerroa, ordea, ez-lineala da guztiz, hortaz, ez-lineala den aktibazio-funtzioa erabili beharko da baita ere.

ReLU (Rectified linear unit) aktibazio-funtzio ez-lineala oso erabilia izaten ari da neurona-sare sakonetako geruza ezkutuetan sarearen pisu eta ereduak azkarrago ikasten dituelako:

Aktibazio-funtzio ez-linealak erabiliko dira ondoren. Zenbait mota daude baina gure kasuan ReLU (Rectified linear unit) erabiliko dugu ikasketa sakonerako neurona-sareetan lan ona egiten baitute:




Irudia 4. 16: ReLU. ReLU oso erabilia da, entrenamendua bider 6 azkartzen baitu sigmoide eta tanh aktibazio-funtzioekin alderatuta [122].

Alabaina, gerta daiteke neurona batzuek lanik ez egitea entrenamenduan zehar gradienteak sortutako pisuek ahalbidetu baitezakete neurona batzuk ez aktibatzea. Neurona horientzat gradientea beti zero izango da. Arazo hori ekiditzeko badaude bide batzuk, adibidez, dropout.

4.4.2.3.6 Dropout

Garrantzitsua da ereduaren parametro-kopurua gutxitzea. Konboluzio eta pooling-aren bidez sarearen konputazio-abiadura handitu da baina bada *dropout* izeneko teknika bat ereduaren parametroak gutxitzen lagunduko digunak. Sareko neurona batzuk ezabatzen dira bere sarrera eta irteera arkuekin batera. Sarea osatzen duten neurona eta bere konexioen deuseztapena ausazkoa da.


Entrenamendurako nahikoa adibide ez badaude gerta daiteke neurona gutxi batzuek lan guztia egitea, eta gainerako neuronak, ordea, erredundanteak eta errendimendurako kaltegarriak izatea. Horretarako, erregularizazio-teknikak txertatzen zaizkie, ereduaren parametroei murrizketen bidez zarataren ikasketa ekiditzeko helburuz. Iterazio batzuetan, neurona batzuk ezabatu eta besteak lan egitera behartzen ditu, akatsak ekidin eta neurona gutxi batzuekiko mendetasuna desagerrarazteko.



Irudia 4. 17: Dropout. Ezkerreko irudian oinarrizko eta ezkutuko geruza bakarreko MLP sarea ikus daiteke. Eskuineko irudian iterazio batean Dropout-ak lan nola egiten duen ikus daiteke [214].

Teknika horrek bi ahalmen gehituko dizkio CNN-ari:

1. Kalkulurako abiadura konputazionala azkartuko da parametro gutxiago izango baitira iterazio bakoitzean.
2. Gehiegizko doikuntzaren arriskua txikiagotuko du. Oso adierazkorra diren geruza ezkutuak dituzten ereduetan gehiegizko doikuntza gertatzeko arriskua handitzen da eta ausazko zarata edo akatsaren zati bat modelizatu daiteke. Horri *overfitting* deitzen zaio, eta dropout-aren bidez sarearen aurreikuspen pobretze hori ekiditu nahi da. Gehiegizko doikuntza horrek orokortzeko gaitasuna mugatu dezake. Entrenamendurako erabilitako datu-taldeak ikasi (zarata barne) dezake modu ezin hobean baina azpian dakarren prozesua ulertu gabe.



Irudia 4. 18: Overfitting. Oraingoan, overfitting-a argia da. Ereduak entrenamendu datuei buruz dena ikasi du baina ez dauka orokortzeko gaitasunik. Oinarrizko erregresio lineal batek hobeto orokortuko luke [215].

4.4.2.3.7 Eredua entrenatu


Behin CNN-aren konfigurazioa modelizatuz gero, algoritmoa entrenatzen hasi daiteke. Etiketatuak dauden mendeko aldagaietako abiatuta, bilatzen den emaitza hobetzeko helburuz, geruza konboluzionalen parametroak doitzeko lan franko dugu. Horretarako, bai WEKA bai python erabili daitezke. Python-en kasuan, keras liburutegiak [216] modelizatzeko honako argumentu hauek eskaintzen ditu, besteak beste:

- batch_size: Entrenamendu adibide kopurua iterazioko
- num_epoch: Iterazio kopurua
- kernel_size: Geruza konboluzionaletako nukleoaren tamaina
- pool_size: Pooling geruzen tamaina

Entrenamendurako optimizatzaile batzuk daude (gradient descent, ADAM eta abar). Ondorengo Gradientea (Gradient Descent) erabiliena da erabiltzeko erraza delako. CNN sareetan ADAM optimizatzaileak abantailak eskaintzen ditu. Neurona-sareen ikasketa-prozesua errorearen minimizatze funtziotzat azaltzen da. Normalean funtzio horrek 2 zati izaten ditu:

- Erroreak zehaztea: Neurona-sarea zenbateraino doitzen den dauden datuetara.
- Erregularizatza zehaztea: Gehiegizko ikasketa ekiditzeko.

Noski, sareak izango duen akatsa zuzenki erlazionatua egongo da dituen sinapsien pisuekin. Normalean errore funtzioa ez da lineala eta iterazioen bidez errore hori minimizatzeko bidea bilatu behar da.



Irudia 4. 19: Overshooting. Ondorengo gradientearen iterazio bakoitzean sartuko dugun aldaketa α -k zehaztuko du. Handiegia bada overshooting-a izango da (dibergentzia) eta ez du errorea minimizatzeko balioko. Ezkerreko irudian ikus daiteke nola minimotik urrunten den. Eskuineko irudian, α txikiago batek minimorako bidea erakusten digu [217].


Behin doitu eta entrenatuz gero, sarearen gaitasunak ebaluatu beharko dira eta erabilitako beste algoritmoekin konparatu (SVM, k-NN eta MLP).

4.4.2.3.8 CNN ahotsa analisirako

Badakigu, azkenean, 100 pertsonaren datu-base orekatua (PGA-OREKA) lortu dela eta hori da neurona-sare konboluzionala entrenatzeko eta bere zehaztasun-maila neurtzeko erabiliko duguna.


MCI eta CR sailkatzeko orain arte SVM eta KNN bezalako sailkapenerako algoritmo klasikoekin egin dugu lan. Badakigu [122][127][129][131][132], CNN-ek oso erantzun onak ematen dituztela irudi matrizeen sailkapenekin eta gure 100 laginetako ahotsekin lortutako parametro bektoreekin ondo funtziona dezaketela ematen du.

Kontuan hartu behar da neurona-sare konboluzionalean sartuko diren datuak ez direla espektrogramen irudien pixelak. CNN-ra sartuko dugun informazioa lehen ezaugarri-mapa bat da, .wav fitxategietan egindako iragazketa-lanak seinale horiek parametrizatzeko balio izan baitu.



Irudia 4. 20: Datu gordinak CNN-ra. Aurreko iragazketa-lana egingo ez balitz espektrogramaren matrize-datu gordinak sartuko lirateke CNN-ra [218].

Deep Learning-ek bere trebezia erakutsi badu [122][127][129][131][132] datu-matrizeak ezaugarritzeko eta horiek konprimitzeko, sartzen diren datuak gordinak izan ordez, ezaugarri-mapak badira lor daitezkeen emaitzak hobeak izango direla espero daiteke. Horrek esan nahi du CNN-ra txertatuko den informazioa aberastua dela eta bektore parametrikoko direnak ezaugarrien bektoreak balira bezala ulertuko dituela sareak. Ezaugarrizte-lan handia egina ematen zaio sareari. Ikuspuntu guztiz berritzaile honek emaitza onak eman ditzakeela uste da.



Irudia 4. 21: Datu aberastuak CNN-ra. Irudi gordina sartu ordez, ahots-seinalea aurrez tratatu eta parametrizatzen da eta lagin bakoitzetik parametroen segida (bektorea) lortzen da. Behin segida horren balio adierazgarrienak aukeratuta (Mann-Whitney U-test ebaluazio ez-parametriko eta Support Vector Machine-n (SVM) bidez), segida hori CNN-ra sartzen da. Datu aberastuak sartzen dira, lehen ezaugarri-mapa balira bezala [218].

4.5 Sistemaren balioztatzea

Modelatzearren atal garrantzitsu bat bere ebaluazioa da. Hizketaren ezagutza automatikoaren lana neurtzeko era zuzen eta intuitiboena tasak dira: *Accuracy*, *Classification Error Rate* (CER) eta honen Errore-Tasa Metagarria edo *Cumulative Error* (CE). Bi kasuetarako 4.1 eta 4.2an, (TP = True Positive, TN = True Negative, FP = False Positive eta FN = False Negative).

$$Accuracy = \frac{TP + TN}{TP + TN + F + FN} \quad (4.25)$$

$$CER = \frac{FP + FN}{TP + TN + F + FN} \quad (4.26)$$

K-folds-etan oinarritzen den balidazio gurutzatuko teknika (*k-fold cross-validation*) Esperimentu-Matrizean (Experiment Matrix, EM) zuzenean aplikatzen den sailkatzailearen doitasuna estimatzeko balidazio-metodoa da. Kasu honetan, EM matrizea k zatitan banatu egiten da, tamaina bereko k zati lortuz (*k-folds*). Sailkatzailea k aldiz sortzen da, multzoetako bat baztertz k iterazio bakoitzean. Baztertzako multzoaren laginak Balidazio-Matriza (Validation Matrix , VM) osatuko dute. Aldi bakoitzean, EM-an geratzen diren laginak iragarle bat sortzen dute, eta iragarle hori VM-aren laginekin testeatuko da. Erroreen baturak teknikaren errore globala ematen digu.

Metodo hau oso eraginkorra da lagin-kopurua handia denean. Azken iragarlean lagin guztiak erabili ohi dira.

Bat-Soilik-Kendu teknika (*Leave-One-Out Cross-Validation*, LOOCV) EM-aren gainean aplikatzen den beste balidazio metodo bat da. Metodo hori oso erabilgarria da lagin-kopuru txikiekin lan egiten denean. Kasu honetan, n lagin duen multzo bat badugu, n iragarle sortuko dira $n-1$ laginekin, eta baztertutako laginak VM-a osatuko du (elementu bakarreko matrizea) errore-tasa kalkulatzeko. LOOCV k-fold cross-validation teknikaren kasu partikularra da, k-fold-etako k koefizientea eta n lagin kopurua berdina den kasua, alegia [43][195].

Bukatzeko, komenigarria da egiaztatzea sortutako iragarleak ausaz sortutako iragarle batek baino hobeto sailkatzen duela. Horretarako *Permutation p-value for cross-validated misclassification error rate* izeneko indizea erabiltzea egokia izan daiteke. Indize honek errore-tasa txikiagoa duen ausaz lortutako sailkatzale bat aurkitzeko probabilitatea kalkulatzen du [219][220][221].

4.6 Sistemaren konfigurazioaren hautaketa automatikoa

Azkenik, soluzio optimoa (ezaugarri-multzo hoherena) Helburu-Funtzio (HF) baten bitartez aukeratu egiten da.

Biz $X = \{x_i\}_{i=1,\dots,n}$ n dimensioko ezaugarri-bektore eta $Y = \{y_j\}_{j=1,\dots,p}$ p dimensiotsako aukeratutako ezaugarri-bektorea. Era berean helburu-funtzioa definitzen da:

$$HF(Y) = \sum_{i=1}^p \omega_i \cdot y_i \quad (4.27)$$

non ω_i y_i osagairi dagokion pisua da. Soluzio optimoa, helburu-funtzioa maximizatzen duen aukera izanik:

$$z = \max_k \{HF(Y)\} \quad (4.28)$$

Metodo horrek honako modelatze hauek kontuan hartuko ditu: Accuracy, klaseen True Positives, Positibo Faltsuak, eredu konplexutasuna, segurtasun-maila, denbora erreala, ROC area esperimentazioaren arabera, eta osasun-espezialisten interesen arabera egokituko da.

5. KAPITULUA: ALZUMERIC

5.1 Sarrera

Atal hau sakonago ulertzeko **B.1, B.2, B.3, C.3, C.4** eta **D.2** eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira.

AD-ren lehen fasean agertzen da patologikoa den Nahasmendu Kognitibo Arina (MCI), akats kognitiboa alegia, baina ez da behar bezain larria eguneroko bizitza edo gaitasun independenteak eragozteko. Aldaketa horiek ez dira gehienetan behar bezala diagnostikatzen. Are gehiago, MCI-k Alzheimer edo beste dementziaren bat garatzeko arriskua areagotu dezake, eta gaur egun, garaiz detektatzea da espezialista medikuen erronketako bat [2].

Mintzamen-defizitak AD duten gaixo askorengan agertzen dira, eta seinale adierazgarritzat jo daitezke hasierako faseetan. Azken hamarkadotan, dokumentatu eta berretsi ahal izan da hizketaren disfuntzioa Alzheimerren gaitzaren garapenean goiz azal daitekeen sintoma bat dela, eta biomarkatzaire erabilgarria izan daitekeela prebentzio eta detekziorako [2][19][14][20][21].

Nariadura Kognitibo Arinean (MCI-n) eta AD-n lehen kaltetzen den gaitasunetako bat denaren, alegia, hitzezko komunikazioaren, analisi automatikoa daukagu bahetze metodologia guztiz natural eta erabilgarria. Ahozko komunikazioaren azterketa automatikoak bahetze-metodologia erabilgarria eskaintzeaz gain, dudarik gabe, oso baliagarria izango da balioztatze klinikorako baina baita ere etxeko/hasierako arretarako.

Alzheimerdun gaixoengana, mintzamena ez ezik, zenbait fase dituela dirudien [40] erantzun emozionala ere kaltetu egiten da, eta hori, mintzamenaren bidez azter daiteke. Emozioak giza gogoaren arkitekturarekin zerikusia dituzten prozesu kognitiboak dira eta lotuta daude honako prozesu hauekin: erabakiak hartzea, oroimenaren kudeaketa edota arreta, zeinak hertsiki lotuta dauden komunikazioarekin, ikasi eta ulertzearekin [41][42].

Disfluentziak ere hizketa-elementu interesgarriak dira, eta oso baliagarriak izan daitezke MCI detektatzeko. Hizketa-disfluentziatzat hartzen dira hizketa arinean gertatzen diren edozein etete, irregularitasun edota hitz ez-lexikal, hizketa hori hasi edo

eten dezaketenak. Hala isiluneek nola disfluentziek informazio baliagarria izan dezakete ahozkatutako mezua deskodetzeko. Hori dela eta, ikerlan berrieik agerian jartzen dute bien garrantzia bat-bateko hizketan MCI eta AD identifikatzeko. Are gehiago, disfluentzia ez-patologikoek oso informazio aberatsa izan dezakete emoziozko egoeraz edota hizkuntza-planteamentuaz. Disfluentzia horien handiagotzeak nahaste kognitiboaren isla nabarmena izan daitezke.

Ikertzaileak urte luzeetan ibili dira hautemate-teknika garesti eta inbasiboei alternatibak bilatzen mintzamen-gaitasunetan edo emoziozko egoeren aldaketetan izaten den andeatzea sakon aztertzeko helburuarekin. Horretarako monitorizazio-teknika automatiko ez-inbasiboak oso tresna baliagarriak izan daitezke detekzio goiztiarrerako diagnostikoa osatzeko edota gaixotasunaren garapena balioztatzeko eta eriengan nola senideengen inpakta arintzeko eta gizartearen gaitzaren progresioa moteltzeko. Osasunaren adarretan jadanik garatzen hasi dira teknologia ez-inbasiboak [222].

Medrina klasikoak bitarteko teknologikoak bilatzearen arrazoia egin beharreko proba medikuen murrizketa eta osasun-baliabideen hobekuntzan dago. Espezialistei lagunza handia suposatzen die horrelako baliabideak eskuragarri izatea diagnostiko fidagarri bat egiteko beharrezkoak diren denborak murrizten baititu. Alzumeric-en kasuan, gainera, oso kostu baxuko teknologia da.

Gaur egungo teknologiarekin datu digitalen prozesatze abiadura geroz eta handiagoa da. Tabletak zein smartphoneak bezalako gailu adimendunak herrialde garatuetako gizartearen gehiengoarentzat eskuragarri badaude, teknologia merke eta ez-inbasiboak garatzea ekarpen interesgarria izan daiteke mediku zein erien senitartekoentzat. Bestalde, interneterako konexio abiadura hobetzen ari da egunetik egunera, eta honek, geroz eta denbora txikiagoan datu eskerga elkartrukatzeko aukera berriak irekitzen ditu.

Erabilera kliniko baterako mahai gaineko ordenagailu zein mugikorrak diren terminalen erabileraaren zabalpena handituko dela ondoriozta daiteke, azken urteotan, iraultza ekarri baitute sektore honetara [223]. Gainera, haien presentzia eta eskuragarritasuna orokortua denez, plataforma ikasketa-kurba oso laburra izan dezakeela aurreikusi daiteke.

Errealitate teknologiko berri honek orain arte pentsaezinak ziren bezero-zerbitzari arkitektura berriak garatzeko aukerak ireki ditu. Arkitektura berri hauek, konkurrentzia altuko eskaerak zentzuzko denboran prozesatzeko gaitasuna, eta gainera, erabiltzeko errazak eta ez-inbasiboak izan behar dute.

5.2 Alzumeric

Badakigu ahots-laginetatik ezaugarri-mota asko erauzi daitezkeela, linealak eta ez-linealak, eta horiek oso informazio aberasgarria eman dezaketela eriaren egoera hobeto ulertzeko. Alzumeric-ek prozesu guztia, atazaren grabaziotik hasi eta emaitzak bueltan bidali arte, automatikoki eta metodologia ez-inbasiboen bidez kudeatuko duen web-plataforma da.


Gainera, interneterako sarbide abiadura eta informazioaren bereizmena gogoan hartzekoak dira eta komunikazio-mota hauetan HTTP/HTTPS protokoloak dira nagusi. Alzumeric-en kasuan, zerbitzari eta bukaerako erabiltzailearen arteko informazio-elkartrukea artikulatzearen errudunak dira eta internetera sarbidea duten terminal guztietañ daude integratuak.

Testuinguru horretan, Alzumeric plataforma sortu da, hots, mintzamen-konplexutasuneko maila desberdinak dituzten atazen grabazioetatik abiatuta (AN, PD eta SS), hizkuntzarekiko independentea den mintzamenaren azterketa automatikoa egingo duen web-sistema ez-inbasibo, merke eta unibertsala.

Ataza (AN, PD edo SS) grabatu eta bukatzean ahots-lagina zerbitzarira bidaltzen da gailu adimenduaren (Smartphone, tablet, PC) bidez eta atazaren ezaugarrien laburbilduma (linealak eta ez-linealak) eta hautaketa (Mann-Whitney U-testaren bidez besteak beste) egiten du. Bukatzeko, laginaren sailkapena (MCI/AD edo CR) eta medikuekin adostutako parametroak bueltan bidaltzen ditu espezialistak aintzat har ditzan.

ETL prozesuko etapak kudeatuko ditu: laginak jaso, parametro adierazgarriak erauzi eta aukeratu, sailkapena egin eta bueltan makinaren ekarprena espezialista edo eriaren senitartekoei bidali.

5. KAPITULUA: ALZUMERIC



Irudia 5. 1: Teknika automatiko ez-inbasiboaren prozedura. Teknika automatiko ez-inbasiboen testunguruan garatu da Alzumeric sistema. (1) Interfazeak atazen grabazio automatikorako aukera esakintzen du metodo ez-inbasiboen bidez. (2) Erabiltzaile interfazeak, grabazioaren lagina entzun eta deskargatzeko aukera ematen du. (3) Seinalea digitalitzatu, ezaugarriak erauzi eta aipagarrienak direnekin ezaugarri-bektore aberastua sortu, eta ML algoritmoa (KNN, SVM, MLP edo CNN) ezarri ondoren, sailkapena egiten du. (4) Medikuaren diagnostikorako lagungarriak diren parametroak zein makinaren sailkapena bueltan bidaltzen dizkio erabiltzaileari.

Automatikoki erauziko duen informazio honek eriaren egoera hobeto ulertzeko aukera emango dio medikuari. Ataza grabatzeko eta emaitzak jasotzeko interfaze bera da, hortaz, behin grabazioa egin eta gero, segundu batzuk itxaron eta medikuekin adostutako parametroak zein laginaren sailkapena jasoko dira.

Alzumeric plataformak txertatua duen Machine Learning algoritmo ikuskatuen [224] bidez egiten du sailkapena, behin seinalea ezaugarritu eta iragazia dagoenean. Horretarako, Deep Learning [122][127][129][131][132] motako neurona-sare konboluzionalak erabiliko dira, besteak beste. Alzumeric-ek egindako sailkapena zuzentzeko aukera izango du medikuak eta sistemaren ikasketa-prozesuan lagundi.

Sistema honek hizkuntzarekiko ia independenteak diren parametroak kalkulatuko ditu, eta hortaz, modelatuak izan ez diren edo minorizatuak diren hizkuntzak darabilten hiztunekin erabiltzeko aukera ere eman nahi du.

Prozesu guztia denbora errealean monitorizatzen da eta bere funtsa TCP/IP [225] berak biltzen dituen protokoloetan dago. Pribatasun eta segurtasun alderdiak ere


kontuan hartu dira sistemak jaso ditzakeen erasoei aurre egiteko. Informazioaren pribatutasuna segurtatzeko helburuarekin komunikazio guztiak zifratuak daude.

Erabiltzaileak terminala (Smartphone eta tableta) besterik ez du beharko sistema erabili ahal izateko. Prozesu guztia anbulatorioan edo pazientearen ohiko ingurunean, etxeko giroan, kudeatu daiteke. Giro lasaian eta teknikariak ez diren pertsonak edo senideak direla medio. Ataza etxeko ingurunean egin bada, erieen senitartekoek informazio hori medikuari helarazi diezaiokete, honek eriaren jarraipena egin dezan. Ataza ingurune klinikoan egin bada, ordea, medikua bera izango da informazioa zuzenean jasoko duena. Osasun-guneen irizpide etikoak kontuan hartuz garatutako sistema da.


Alzumeric prototipoa ingurune kliniko zein etxeoa balioztatu da osasun-guneen irizpide etikoak kontuan hartuz eta sistemaren lehen bertsio hau balioztatzeko erabiltzaile tekniko, laguntzaile eta osasun-espezialista gutxi batzuek erabiliko dute.

5.2.1 Arkitektura orokorra

Erabiltzaileak zenbiat atazaren bidez sistema elikatzen duenek eta erantzuna jaso arteko bidean, arkitektura teknologiko hibridoa dago. Hori horrela bada, teknologien arteko informazio-transmisioaz eta horren uermenaz arduratuko diren protokoloek ere osatzen dute sistema.



Irudia 5. 2: Alzumeric-en arkitektura orokorra. Behin mediku edo erien senitartekoak modu seguruan saioa hasi duenean grabazioa egin diezaioke gaixoari. Grabazioa bukatu eta zerbitzarira bidaltzen da, honek seinalea parametrizatu eta bere sailkapena egin dezan (MCI/AD edo CR) dezan. Medikuak aurrez adostutako parametroak eta laginaren sailkapena jasoko ditu. Medikuak Alzumeric-ek egindako sailkapena zuzentzeko aukera izango du eta sistemaren ikasketa-prozesuan lagundi.



Irudia 5. 3: Sistema automatikoaren front-end-a eta back-end-a. Osasun-guneen irizpide etikoak kontuan hartu eta komunikazio guztiak zifratzen dira. Mediku zein eiren senitartekoek saioa hasterako orduan jazotzen diren komunikazioek segurtasun-geruza gehiago dituzte. Behin saioa hasi dutenean lagina jaso dezakete ataza desberdinak erabiliz. Lagin horiek zerbitzarira bidali eta honek, automatikoki, ezaugarri lineal eta ez-linealen azterketa, hautaketa eta laginaren sailkapena egin eta informazio guzta erabiltzaileari bidaltzen dio. Erien senitartekoek kasuan informazio hau medikuei bidaliko diete jarraipena egin dezaten.

5.2.1.1 NFC (Near Field Communication) txartela

NFC kablerik gabeko, irismen txikiko eta maiztasun handiko gailuen arteko datuen elkartrukerako komunikaziorako teknologia da. NFC estandarrak komunikazio-protokolo zein datuen elkartrukerako formatuak barne hartzen ditu eta ISO 14443 [226][227] eta Felica-n [228] dute oinarria. Egun, teknologia mota hau smartphone zein tabletetan modu orokortuan integratzen hasi da kontakturik gabeko diru-transferentziak egiteko.

Hurbileko datu-transferentziatarako protokolo honek 20 cm-tara gehienez dauden gailuen artean komunikatzeko gaitasuna eskaintzen du. Egungo smartphone zein tabletek integratua daramate NFC bidez komunikatzeko zerbitzua, erabiltzaileek modu erraz eta seguru batean dauden zerbitzuak erabiltzeko aukera izan dezaten. Tarte txikietan komunikatzeko aukera honek inplizituki segurtasun handiko komunikazioak ahalbidetzen ditu.

Gailuen arteko komunikazio hori posible egiteko erabiltzen diren terminalak desberdinak izan daitezke. Adibidez, gaur egun gailu elektronikoen txikiagotzea eta haien energia-beharak oso txikiak direla eta, osasun-egoerari buruz informazioa jasotzeko gorputzean itsatsirik (wearableak) [229] dihoazen gailu elektronikoak garatzen hasi dira. Sarean konektatzeko modu berri hau, Personal Area Network edo PAN [230] bezala ezagutzen da eta maiztasun baxuko eramailea erabiltzen da energia barreiatu ez dadin eta urrutiko zelatarien arriskua gutxiagotuz. Kasu honetan, terminalak pertsonak gara.

Alzumeric-en kasuan ordea, nahiz eta wearablesen integrazioak ikerketa-lerro berriak irekiko lituzkeen, lehen etapa honetan, NFC integratua duten txartelak erabiliko dira. Sistemak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili ahal izateko, aurrez programatutako NFC txartelak izango dira. Komunikazio-mota hau aukeratzeko arrazoia segurtasuna izan da. Erabiltzaileak NFC txartela gailura hurbildu ondoren gailuan instalatua behar duen App-a irekiko da.

5.2.1.2 Smartphone edo tablet-a

Bai Tablet edo Smartphone gailu adimendua. Honek NFC irakurgailua, HTML5 Audio API-a duen nabigatzailea, mikrofonoa eta plataformara sartu ahal izateko Alzumeric Sistemaren App-a dauzka.

5.2.1.3 App-a

Android sistema eragilea duten gailu adimenduetan instalatuko den eta .apk extensioa izango duen fitxategia da. Honek, erabiltzaile eta sistemaren artean komunikazioa irekitzeko zubi lana egingo du.

Medikuak NFC txartela gailura hurbiltzean App-a irekiko da. Horren betebeharra NFC-aren lehen segurtasun-geruza behin gaindituta, bigarren segurtasun-geruza bat gehitzea da, hots, saioa irekitzeko bigarren balidazioa.

Behin txartela gailu adimendura hurbilduta irekiko den app-ak Smartphone-aren datu batzuk jaso eta aplikazioa erabiltzeko baimenak dituen segurtatuko du.

```
element.innerHTML = 'Device Name: ' + device.name  
                  'Device Platform: ' + device.platform  
                  'Device UUID: ' + device.uuid  
                  'Device Version: ' + device.version
```

Irudia 5. 4: Smartphone-aren datuak jaso. Terminalaren izena, plataforma, identifikadorea eta bertsioa jasotzen ditu eta datu-basean erregistratua dagoen ikusi. Komunikazioak HTTPS (Hypertext Transfer Protocol Secure) bidez egingo dira eta zuzena bada formularioa betetzen utziko dio.

Dena zuzena bada bete beharreko bi eremu dituen formularioa irekiko da:

- Lehen eremurako, medikuak, NFC txartelaz gain, atxikitua doan pasahitza pertsonala eta simetrikoa [231] dauka. App-ak pasahitza eskatzen du, eta hori balidatu berri den NFC txartelaren izenari lotua dago. Pasahitz hori erabiltzaileari NFC txartelarekin batera beste segurtasun txartel batean emango zaio. Horrek ausazko metodo baten bidez sortutako 16 karaktere dituen (zenbaki + letra larri eta xehea + karaktere bereziak) pasahitza du.
- Bigarren eremua betetzeko, erabiltzaileak NFC telefona hurbiltzean, automatikoki, zerbitzariak NFC-aren identifikagarria (ID) jasoko du. Balidazio guztiak egin ondoren eta dena zuzena bada, erabiltzaileak lehen eremua betetzen duen bitartean, zerbitzariak SMS-a (*Short Message Service*) bidaliko dio (desberdina saio bakoitzean) txartel horretara lotua duen telefono zenbakira saio berrira egokitutako token-arekin. Patente asko daude eta oso desberdinak segurtasun-neurri horien inguruan [232][233][234]. Gure kasuan, token propioa garatuko dugu. Segurtasun token hori formularioaren bigarren eremuan txertatuko du.

Gako simetrikoa [231] eta tokena txertatuak daudenean, programatutako NFC txartelaren ID-a (identifikagarria, zenbaki eta letraz osatutako string-a izango da) gehituko zaio zerbitzarira bidaliko den string-ari. Hiru argumentuak string bakarrean HTTPS [235][236] bidez bidaliko dira. Saioa hasteko, HTTPS geruzaz gain, Alzumeric-entzat bereziki garatutako eta “bakarlari kuantiko” izena eman zaion bigarren segurtasun-geruza bat ere badu. Segurtasun-geruza horren funtsa informazioaren zifratrako algoritmo segurua [237] da, Bruce Schneier-ek Neal Stephenson-en *Cryptonomicon* (2000) [238] nobelarako sortutakoa da. GNU General Public License lizenziapean irekitako algoritmo horrek [239] legeria aldetik dituen mugei buruz honakoa aurkitu da [240].

Zerbitzariak ID-ari lotetsia doakion gako simetrikoa erabiliz string-aren deskodetzea egin eta dena zuzena dela balioztatu ondoren, saioa zertifikatu guztiekin hasteko oniritzia bidali eta gailuak, automatikoki, sistema erabiltzeko aukera emango dio. Plataforma ireki eta saio berria hasiko da.

5.2.1.4 Segurtasuna eta pribatutasuna

Datuenean pribatutasuna eta konfidentzialtasuna garrantzitsuak dira osasunari buruzko ikerketetan, eta horregatik, segurtasunari berebiziko garrantzia eman zaio plataforma honetan.

Alzumeric-entzat bada espreski sortutako zifratu algoritmoa hasierako balidaziorako erabiliko dena. Bakarlari kuantikoa du izena eta hurrengo puntuaren gehiago sakonduko da honi buruz.

Espezialistak txertatuko duen gako simetrikoaren zifratu eta deszifratuaren algoritmo hori Man in the Middle [241][236] motako erasoaldien aurrean zaurgarritasunak ekiditzeko sortu da. Bakarlari kuantikoak zutarria bakarlariaren algoritmoan du [237].

Datuenean segurtasuna gehiago babesteko, SSL zertifikatupeko HTTPS [235] komunikazioak gehituko zaizkio. Aplikazio-geruzan exekutatzen den bakarlari kuantikoa saio seguruak segurtatzeko garatu da. Garraio-geruzan ordea, komunikazio guztiak SSL (Secure Sockets Layer) segurtasun ziurtagiriaren bidez kodifikatzen dira. Horrek esan nahi du plataformaren komunikazioa guztiak HTTPS [235] bidez egiten direla.

5.2.1.5 Bakarlari kuantikoa

Alzumeric-en zifratrako algoritmo honen jatorria, Bruce Schneier-ek Neal Stephenson-en Cryptonomicon (2000) [238] nobelarako sortutako bakarlariaren zifratu algoritmoan [237] dago. Erwin Schrödinger fisikari austriarraren katuaren esperimentuaren paradoxarekin hitz-jokoa egin eta mekanika kuantikoaren gainjartze printzipioari [242][243] metaforikoki bere lekua eman diogu algoritmoan, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Zifratu eta deszifratuak simetrikoak dira. Gako sekretu edo kriptografia simetriko [231] izeneko metodo kriptografikoek gako sekretua erabiltzen dute informazioa zifratu eta deszifratzeko. Komunikatuko diren bi muturrak ados jarri behar dira erabiliko duten gakoari buruz. Behin gakoa dutela, igorleak informazioa gakoa erabiltzen zifratuko du eta hartzaleak alderantzizko prozesua egingo du, datuak irakurri ahal izateko.

Algoritmo horrek *keystream* deitutako zenbaki-segida sortzen du testua zifratzeko eta horrela funtzionatzen du:

- Zifratu nahi den informazioa hartu eta bere zenbaki-segida baliokidea idazten du. A = 00, B = 01, C = 02, ..., Z = 25;
- Alfabetoak 26 letra dituela kontuan hartuz eta gainjartze kuantikoaren [242][243] "metafora" bat eginez, 13 letrako 2 array birtual sortzen ditu. Horrekin hizki bakoitzak bi egoera posible dituela (A eta Z, B eta Y, eta abar) ezaugarritu nahi da, eta

5. KAPITULUA: ALZUMERIC

Schrödinger-ren paradoxa erabiliz, neurten den arte, bietako edozein balio behagarri har dezakeela islatu nahi da. Orduan, letra bakoitzak array-ean duen posizioaren baliokide simetrikoa bilatu eta balioa esleitzen dio (adibidez, A-k Z balio du). Pausoa hizki guziekin errepiatzen du, bai informazioa eta pasahitza simetrikorako.

- Pasahitza simetrikoarekin pauso bera jarraitzen da pasahitza zifratzeko.
- Informazioa eta pasahitzaren zenbaki-segidak gehitzen dira. 26 baino gehiago gehitzen badute emaitzari 26 kentzen zaio. Adibidez: $00 + 25 = 25$; $18 + 25 = 17$;

251400051321081723211223080110062122
+
2525250623252525252522070725252525252525
=

241325111020071622171904072609052021

Irudia 5. 5: Bakarlari kuantikoa. Informazioa eta pasahitza bi digituka gehitzen dira. Elkarren artean 26 baino gehiago gehitzen badute emaitzari 26 kentzen zaio. Adibidez: Ezkerreko lehen bi zenbakien batura $25 + 25 = 50$ da. 26 baino gehiago denez ken 26 eragiketa egiten da; beraz, $50 - 26 = 24$.

- Jadanik zifratua dagoen mezu baliokidea atera eta zerbitzarira bidaltzen da.

ZIFRATUA:

Hasierako mezua: **alzumericencrypted**

Mezuaren zenbaki baliokidea: 001125201204170802041302172415190403

Mezuaren superposizioa: zoafnvirxvmxibkgvw

Mezuaren superposizioaren zenbaki baliokidea: 251400051321081723211223080110062122

Pasahitza simetriko: **a_Ytc34%&dss\$\$\$\$44##**

Pasahitza simetrikoaren zenbaki baliokidea: 00001902000003181800000000

Pasahitza simetrikoaren superposizioa: **zzgzxzzzwhhzzzzzz**

Pasahitza simetrikoaren superposizioaren zenbaki baliokidea: 25252506232525252522070725252525252525

Mezu zifratuaren zenbaki baliokideak (baturak): 241325111020071622171904072609052021

Mezua zifratua: **ynzkuhqrtehajfuv**

Irudia 5. 6: Bakarlari kuantikoa II. Adibide honetan bidali nahi den mezua "alzumericencrypted" da eta pasahitza simetrikoarekin batera zifratu ondoren, garraio-geruzan zehar zerbitzarira "ynzkuhqrtehajfuv" mezua bidaltzen da.

- Zerbitzariak, jasoko duen mezuaren zenbaki baliokidea aterako du.
- Transmititu nahi den informazioa pasahitza simetrikoaren bidez zifratu da eta zerbitzariak pasahitza bera erabiliko du mezua irakurri ahal izateko. Komunikazioak Man in the Middle [241][236] erasoen aurrean gakoaz babestua egongo da. Zifratu

- sistema on batek segurtasuna pasahitzan zein algoritmoan jartzen du. Erasotzaileak algoritmoa jakin arren pasahitza ez badaki gauza handirik ezin dezake egin.
- Bi zenbaki segiden arteko kenketa egiten du. Emaitza negatiboa edo zero ateratzen bada 26 gehitzen dio mezua irakurri ahal izateko.
 - Bukatzeko, gainjartze kuantikoaren [242][243] “metafora” bat egin eta jatorrizko mezua lortuko du.

DESZIFRATUA:

Mezua zifratua: ynzkuhqrtehajfuv

Mezu zifratuaren zenbaki baliokideak (baturak): 241325111020071622171904070009052021

Pasahitza simetrikoa: a_Ytc34%&dss\$\$44##

Pasahitza simetrikoaaren zenbaki baliokideak: 0000190200000318180000000

Pasahitza simetrikoaaren superposizioa: zzzgxzzzwhhhzzzzzz

Pasahitza simetrikoaaren superposizioaren zenbaki baliokidea: 25252506232525252522070725252525252525

Mezu deszifratuaren zenbaki baliokideak (kenketak): 251426051321081723211223080110062122

Mezu deszifratuaren letra baliokideak: zoafnvirxvmxibkgvw

Mezu deszifratua: alzumericencrypted

Irudia 5. 7: Bakarlari kuantikoa III. Zerbitzariak pasahitza simetrikoa izan behar du jatorrizko mezua irakurri ahal izateko. Adibide honetan jasotzen duen mezu zifratua “ynzikuhqrtehajfuv” da eta pasahitza simetrikokoarekin “alzumericencrypted” mezua irakurtzea lortzen du.

Bakarlariaren algoritmoak poker karta-sortarekin sortzen du segida. 54! ordenamendu posible daude poker karta-sorta batean, 236 bit gutxi gorabehera.

Eredu kriptografiko batek FIPS 140-2 baldintzak bete beharko lituzke eredu kriptografiko balioztatu bezala ziurtagiria jaso dezan. Horretarako, arrakastaz bete behar du algoritmo kriptografikoen balioztatze-prozesu osoa [244].

5. KAPITULUA: ALZUMERIC

Taula 5. 1: Keyed-Hash Message Authentication Code. Adibidez, irudian ikus dezakegu Keyed-Hash Message Authentication Code (HMAC) algoritmoaren implementazioa balioztatzeko arrakastaz exekutatutako ezaugarriak. Proba horiek NVLAP ziurtagiria duen (Cryptographic And Security Testing , CST) laborategiek egin dute [245].

HMAC-SHA5 HMAC-SHA3X	HMAC with supporting SHA or SHA3 implementation.
KS	Key Size
BS	Byte Size
SHS: Cert.#[number]	Corresponding Secure Hash Standard validation number on the SHS Validation List .
SHS3: Cert.#[number]	Corresponding Secure Hash Standard 3 validation number on the SHA3 Validation List SHS Validation List .


5.2.1.6 HTTPS

Komunikazio guztiarako beste HTTPS [235] segurtasun-geruza bat gehitzen da. Horrek igorpen datu guztiak zifratzen ditu seguruagoak izan daitezen.

HTTPS (Hypertext Transfer Protocol Secure) komunikazioetarako 443 portua erabiltzen da eta SSL/TLS[246] (Secure Sockets Layer/Transmission Layer Security) bidez pakete zifratuak erabiltzen ditu bezero-zerbitzariaren arteko kanal seguruak sortzeko.

Bezero eta zerbitzariaren arteko komunikazioak zifratzerako orduan Man in the Middle [236][241] edo *eavesdropping* [247] bezalako erasoak ekiditzten dira. HTTP OSI [248] ereduaren aplikazio-geruzan (7. geruzan) dago, HTTPS, ordea, geruza baxuenetan. Gako publiko eta pribatuaren, hots, kriptografia asimetrikoaren[231] sistema erabiltzen du. Honek esan nahi du informazio-transakzio guztiekin bezero-zerbitzariaren arteko gakoen trukean dutela zutarria.

Zerbitzarira mezu zifratua bidaltzeko, horren gako publikoarekin zifratzen da, ondoren, zerbitzariak berak gako pribatuarekin deszfira dezana. Datuen transferentzian erabiliko diren xehetasun teknikoak zehaztu ondoren (protokolo bertsioa, zifratutako algoritmoak eta abar), bezeroak, gako publikoa erabiliz, mezua zifratuko du eta bakarrik zerbitzariak duen gako pribatuaren bidez deszfira dezake. Datuen zifratuak egin behar izateak eta honek dakarren datuen bolumenaren hazkundeak garraioa moteltzen du ordea.



Irudia 5. 8: Zifratu-deszfratu simetriko eta asimetrikoa. Ezkerreko irudian gako simetrikoa erabiltzen duen zifratu sistema bat (Bakarlari kuantikoa). Eskuinean zifratu-deszfratu asimetrikoa erabiltzen duen sistema bat (HTTPS) [249].

5.2.1.7 Webservices

Batzuetan, teknologia-mota desberdinak erabiltzen dituzten aplikazioek batetik, eta programazio-lengoaietan garatutako softwareek edota plataformetan exekutatu eta sareetan dauden plataformek bestetik, elkar ulertu behar dute, arkitektura konplexuago baten zati baitira. Jatorri desberdina duten aplikazioek komuna izango den hizkuntza hitz egin behar dute elkar ulertzeko.

Alzumeric-en egitura konplexua da eta teknologia desberdinak biltzen ditu. Plataformaren barruan zenbait zerbitzu eskaintzeko garatutako teknologia horiek elkarren artean ulertzea garrantzitsua da. Horretarako, web zerbitzuak erabili dira.

Web zerbitzuak [250] aplikazioen artean datuak elkartrukatzeko zenbait protokolo eta estandar-talde erabiltzen dituen teknologia da. OASIS[251] eta W3C[252] web zerbitzuen arautegiaren eta arkitekturaren batzorde arduradunak dira. Web zerbitzuen arteko barneko jarduna hobetzeko WS-I[253] erakundea sortu da eta informazioaren elkartrukerako erabiliko diren estandarrak zehazteko betebeharra du.

Alzumeric-ek arkitektura konplexua du, eta hori dela eta, web zerbitzuak (webservices) erabili behar izan dira komunikazio-zubi, azpiegituren artean datu elkartrukea ahalbidetzea. Horretarako, API-ak (*Application Programming Interface*) erabili dira.

5.2.1.8 API

API-a (*Application Programming Interfaces*) software bat beste batekin komunikatzeko zehaztapen formala da, hots, agindu, funtzió eta protokolo informatikoen multzoa da, eta sistema eragileetarako programa zehatzak sortzea ahalbidetzen die garatzaileei. Datuen elkartrukea errazten dute, eta aurretik zehaztutako funtzióak erabiliz, beste sistema eragile zein aplikazioekin elkar eragin dezake. Beste hitzetan, aplikazioak eraiki ahal izateko liburutegi batzuk eskaintzen dituen errutina, datu egituratu, klase eta protokoloen multzoa da.

Bai web zerbitzuak bai API-ak komunikaziorako tresnak dira. Web zerbitzuei dagokienez, HTTP da protokolo erabiliena nahiz eta SOAP, REST eta XML-RPC ere jasaten dituen. API-ek edozein komunikazio bitarteko erabili dezakete, adibidez, dll fitxategiak, Linux-en etenaldiak eta abar.

Alzumeric-ek HTML5-en audio API-a, JSON [254] bidez sortutako diagnostikoen API-a, Jupyter-ren notebook-ak berak integratua duen API-a eta abar erabiltzen ditu.

5.2.1.9 LAMP

Linux pean exekutatzen den internerako azpiegitura da eta lanabes batzuk ditu:

1. Kode irekiko Apache [255] HTTP zerbitzaria
2. MySQL [256], erlaziopeko datu-baseen kudeaketa sistema. GPL/Lizentzia Komertziala lizentzia dualapean garatua.

3. PHP [257], zerbitzariaren aldetiko programazio-lengoaia. Eduki dinamikoak dituzten webguneak garatzeko sortutakoa eta PHP lizentziapean argitaratua. PHP 7 bertsioarekin, beste gauza batzuen artean, prozesu-abiadura azkarragoak lortzen dira.

PHP saioen deszifratuaz eta horien kontrolaz arduratzen da. Grabatutako WAV fitxategiak aurretik erabakitako direktorioan gordetzen ditu. MySQL datu-basean, erabiltzaileen jardunaren, sortutako fitxategien eta warning-en zein sistemaren akatsen historikoa gordetzen du MySQLi [258] konexioen bidez. Cross Site Scripting (XSS) [259] eta SQL injekzioen[260][261] kontrako filtroak ere kudeatzen ditu.

5.2.1.10 MATLAB

Software matematikorako lanabesa da eta garapenerako ingurune integratua (IDE) eskaintzen du. M programazio lengoaia propioa du eta jabegopeko The Mathworks lizentziapean garatua izan da.

Dagokion path-ean audioak jaso eta horien matrizeetatik ezaugarriak atera eta iragazten ditu ezaugarri-bektoreak sortuz. Dozenaka parametro (pitch, intensity, jitterLocal, maenNHR eta abar) aterako ditu, eta hauek, string moduan, koma batez bereiziak eta csv hedapena duen fitxategi batean utziko ditu dagokion direktorioan. Aurretik iragazkia pasatzen die adierazgarriak diren parametroek bakarrik osatu dezaten ezaugarri-mapa berria.

5.2.1.11 WEKA

Machine Learning/Deep Learning egiteko Softwarea da. Waikato-ko Unibertsitateak garatua eta GNU-GPL lizentziapean banatua.

MATLAB-ek egindako ezaugarri adierazgarrienen hautaketa-lanean ere laguntzen du. Sortutako ezaugarri-bektore iragaziak hartu eta CNN, KNN, SVM eta MLP-etatik pasa eta sailkatzen ditu (MCI/AD edo CR). Eredua, aurretik, kasu desberdinatarako entrenatua izan da, proiektuan engaiatutako erakundeen arau etikoak kontuan hartuta sortutako datu-baseei esker (PGA-OREKA, MINI-PGA, AZTIAHORE eta AZTITXIKI).

5.2.1.12 Python


Interpretatua den programazio lengoaia eta Python Software Foundation License lizentziapean argitaratua.

Pooling bidez CPU-ak, WEKA-k (Sailkapena MCI/AD edo CR) eta MATLAB-ek (Ezaugarrien erauzketa eta hautaketa) dagokion path-ean utziko duten informazio berria bilatzen du. Informazio hori guztia (espezialistentzat baliagarriak diren

parametroak eta sistemaren sailkapena) erabiltzailearen interfazera bidaliko du. Informazioa HTTPS protokolopean paketatua bidaliko da. Pooling teknika hori balidaziorako nahikoa izango da, nahiz eta komenigarria izan daiteke etendurak bezalako aukerak aztertzea baliabide gutxiago xurgatuko dituen sistema garatzeko bidean.

Paraleloan beste exekuzio haria, beste thread-a [262], irekia dauka, eta horrek Alzumeric plataformaren jarduera guztia miatzen du. Exekuzio hari horiek zerbitzarian monitorizatzen dira Jupyter-ren[263] shell interaktibo eta bere notebook-aren bidez. Horrela, administratzaileak Alzumeric-en prozesuak kontrolatu ditzake denbora errealean eta paraleloan. Monitorizazioa ipynb fitxategien bidez egiten da, eta plataforma jarraipenerako, batera, fitxategiak ireki eta itxi daitezke. Prozesuaren historikoak gorde daitezke.

Berez, ipynb extensiopoko notebook-ak JSON [254] dokumentuak dira. Webservice modura, Alzumeric-en API REST-a garatzeko eta beste aplikazioetarako hedagarria izateko erabili daitezke.



Irudia 5. 9: Alzumeric-en monitorizazioa. Alzumeric-en monitorizazioa denbora errealean. Kasu honetan, erabiltzaile batek ataza egin ostean, ahots-lagina zerbitzarira bidali, eta honek, lagin horren ezaugarrien ikerketa egin, monitorizatu eta txostenak gordetzen ditu. Plataformaren sendotasuna helburu izanik, hori garrantzitsua da sistemaren akatsak aurkitu eta zuzentzeko.

Exekuzio denborak ere kontrola daitezke *timeinit* objektuaren bidez. Jarraipen hori egitea garrantzitsua da Alzumeric-en exekuzio denborak koherenteak izatea nahi badugu eta jasotzen dituen eskaera pilaketen arabera zerbitzariaren gaitasunak berkonfiguratzeko.


Alzumeric, SaaS (Software as a Service) [264] izeneko software eredua da, non euskarri logikoa eta datuak internet bidez sarbidea duen zerbitzari zentralizatu batean hostatzen diren. Zerbitzariaren administratzalea arduratuko da mantenu, eguneroko eragiketa eta softwarearen euskarriaz.

Machine Learning euskarria, erabiltzailearen interfazea eta kontrol monitorizazioa automatikoki kudeatzen diren zerbitzuak dira. Nabigatzaile xume batekin baimenduta dauden zerbitzu guztiak erabil daitezke. Ez da softwarea makina lokaletan instalatu beharko, eta horri esker, edozein eremutara hedagarria eta unibertsala da Alzumeric.

5.2.2 Erabiltzailearen interfazea

Erabiltzailearen interfazea erabiltzailea eta zerbitzariaren arteko komunikazioa ahalbidetuko duen bitartekoa besterik ez da. Makina eta erabiltzailearen arteko exekuzio hari guztiak hartzen ditu kontuan.

Grafikoki gailuen tamainara egokitzen den sistema da eta erabiltzaile interfazea erabilgarritasuna izan du izpide. HTML eta CSS bidez diseinatu eta irudikapen estandarrak betetzeko asmoz garatu da. Erabilienak diren nabigatzaileek eusten duten HTML5/Javascript audio API-a [265] jasateko garatua izan da interfaze hau.



Irudia 5. 10: Alzumeric interfazea. Alzumeric interfazea. Grabaziorako botoia sakatu eta erabiltzailea (espezialista zein eriaren senitarteko) ataza grabatzen hasi daiteke. Behin hau bukatua, makinak parametro adierazgarrienak zein laginaren sailkapena (MCI/AD eta CR) egiten ditu. Medikuek zein erien senitartekoek euskarri bezala erabiltzeko ekarpenea izateko garatu da Alzumeric plataforma.

Medikuak botoi-segida batzuen bidez prozesu guztia kontrola dezake inongo konplexutasun teknologikorik gabe. Horien bidez, ahozko komunikazio-gaitasunen ebaluaketarako atazak egin, grabatu eta kontrola daitezke. Grabatzeko aukera hardware bidez dator txertatua, gailu adimendu gehienek audio sentsorea baitute.

Audioaren lagin maitzasuna 48 KHz eta bereizmena 16 bit-ekoa da. Kanal-kopurua software bidez programatua dago hardwarearen baldintza teknologikoak kontuan


hartuta. Ataza bukatutakoan matrize numerikoak zerbitzarira bidali eta bertan eragiketa guztiak egiten dira.

Ataza horiek Apache zerbitzarira bidaltzen dira WAV formatupean eta AJAX (Asynchronous Javascript and XML) [266] komunikazio asinkronoen bidez jQuery liburutegiarekin.



Irudia 5. 11: Alzumeric-ek laginak josatzeko modua. Behin ataza bukatu eta gero, Alzumeric-ek wav fitxategia gorde eta entzuteko zein deskargatzeko aukera eskaintzen dio erabiltzaileari. Fitxategi guztiak datu-base batean gordeko dira osasun-guneen irizpide etikoak kontuan hartuta.

Makinak egindako sailkapenean asmatu ez badu, medikuak badu aukera modu asinkronoan hori zuzentzeko. Horrek ikasketa-prozesua hobetzeko aukera emango dio plataformari.



Irudia 5. 12: Ezaugarriak eta sailkapena. Sistemak lagina digitalitzatu, ezaugarriak erauzi eta aipagarrienak direnekin ezaugarri-bektore aberastua sortu ondoren sailkapena (MCI/AD edo CR) egiten du. Medikuarentzat interesgarriak diren ezaugarriak eta sailkapena bueltan bidaltzen dizkio erabiltzaileari. Ataza etxeko ingurunean egin bada, erieen senitartekoek informazio hori medikuari helarazi diezaiokete pazientearen jarraipena egin dezan. Ataza ingurune klinikoan egin bada medikua bera izango da informazioa zuzenean jasoko duena.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABADA

6.1 Sarrera

Atal hau sakonago ulertzeko, **B.1**, **B.2**, **B.3**, **C.1**, **C.2**, **C.3**, **C.4**, **D.1**, **D.2** eta **D.3** eranskinak irakurtzea gomendatzen da atalaren osagarriak baitira.

Oroimen-galtzearen ondoren, AD-ren arazo handienetako bat mintzamen-gaitasunaren galtza da. Galera horren isla besteekin hitz egiteko eta ulertzeko zailtasunetan antzematen da. Ondorioz, inguruarekin eta gizarte-interakzioarekin komunikazio naturala zailago bilakatzen da. Mintzamen-zailtasun horiek direla kausa, komunikatzeko ezintasun hori gaixotasun horien hasierako faseetan agertzen da, eta AD dutenen baztertza eragiten du, eta oso eragin ezezkorra du hala eriengana nola horien senideengana.

Lan honen helburu nagusia ebaluazio estandarraren testen azterketa automatizatua garatzea da, adibidez, narradiadura kognitiboaren diagnostiko goiztiarraren testa. Hala, lan honen egitura eta progresioa honako eremu hauetara bideratuta dago:

- Ingurunea: azterketa aberastutako (etxeko) ingurueta eta ingurune klinikoetan.
- Gaitzaren sailkapena: AD vs MCI (Narradiadura Kognitibo Arina). Diagnostiko goiztiarra.
- Diagnostiko-teknika ez-inbasiboak.
- Hizketarekiko independentea den sistemaren garapena.

Ondoren, 6.2 atalean, erantzun emozionala SS-n (hitz-jarioan) aztertzen da; 6.3 atalean, hitz-jarioaren ataza aztertzen da aberastutako (etxeko) inguruneetarako; 6.4 atalean, multi-hurbilketaren atazak dira aztergai; 6.5 atalak detekzio goiztiarrerako estrategia aurreratuak garatzen ditu, ikasketa sakonean eta disfluentzieta oinarrituta, aldaketa sotilak eta aplikazio errealkak aztertzeko; 6.6 denbora errealeko sistema aztertzen da; bukatzeko 6.6 atalean, sistemaren erabilgarritasunari buruz egiten da azterketa.

Emaitzek gizartearentzat oso onuragarria izan litekeen geroaldi itxaropentsua erakusten dute eremu honetan.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAJDA

Bestalde, kapitulu honetan laburtzaren asko erabiliko direnez, 6.1 taulan ikus daiteke horien deskripzioa.

Taula 6. 1: Laburtzaren deskripzioa

Akronimoak	Deskripzioa
Acc	Accuracy
AD	Alzheimer's Disease
CE	Cumulative Error
CER	Classification Error Rate
CNN	Convolutional Neural Network
CFD	Castiglioni FD
CR	Control
EF	Emotional Features
ET	Emotional Temperature
FD	Fractal Dimension
HFD	Higuchi FD
KFD	Katz FD
KNN	<i>k</i> -Nearest Neighbors
MLP	Multi Layer Perceptron
MLPA500.	NNHL = max(Attribute/Number+Classes/Number) and TS= NNHL*10
MLP501000	NNHL = 50 and TS = 1000
NNHL	Neuron Number in Hidden Layer
SSF	Spontaneous Speech Features
SSSF	Selection of SSF
SSSF+FD	SSSF set and HFD, KFD or CFD
SVFD	Automatic Selection of VFD
TS	Training Step
VFD	maximum, minimum, standard deviation, median and mode average for full and voiced signal

Erauzitako hainbat ezaugarri-multzo erabiltzen dira esperimentazioan eta horiek deskripzioa izatea ere lagungarria izan daiteke kapitulua hobeto ulertzeko.

Taula 6. 2: Ezaugarri-multzoen laburtzapenak

Multzoaren izena	Deskripzioa
SSF	Bat-bateko hitz-jarioaren ezaugarriak (Spontaneous Speech Features)
SSSF	Bat-bateko hitz-jarioaren ezaugarrien hautaketa automatikoa (Automatic Selection of Spontaneous Speech Features)
SSSF+FD	SSSF multzoa eta dimentsio fraktala (FD)
VFD	Maximoa, minimoa, bariantza, desbideratze estandarra, batez besteko mediana eta moda seinale osorako eta ahostun seinalerako
SVFD	VFD-ren hautaketa automatikoa: maximoa, minimoa, bariantza, desbideratze estandarra, batez besteko mediana eta moda seinale osorako eta ahostun seinalerako

6.2 Erantzun emozionalaren azterketa


6.2.1. Materialak eta metodoak

Esperimentazioa AZTIAHORE datu-multzoaz baliatuta egiten da eta lau analisi-mota burutu dira: leihotamaina aukeratzea, ezaugarriak aztertzea, emaitza osoak aztertzea eta klaseen emaitzak aztertzea.

Esperimentazioan hiru ezaugarri-multzo erabiliko dira

- Ezaugarri Emozionalen multzoan (Emotional Features, EF):
 - Ezaugarri akustikoak: pitch (tonua), desbideratze estandarren pitch-a, max eta min pitch-a, intentsitatea, desbideratze estandarraren intentsitatea, max eta min intentsitatea, batez besteko periodoa (period mean), periodoaren desbideratze estandarra, eta batez besteko balio koadratikoaren amplitudea (RMS, Root Mean Square).
 - Ahots-kalitatearen ezaugarriak: shimmer, tokiko jitter, Zarata/Harmoniko ratioa (NHR), Harmoniko /Zarata ratioa (HNR) eta autokorrelazioa.
 - Denbora domeinuaren ezaugarriak: ahoskabe segmentuen zatikia, ahots-hausteen maila.
- EF+VFD: EF multzoa eta Higuchi, Katz eta Castiglioni Dimentsio Fraktala (Higuchi, Katz and Castiglioni Fractal Dimension, HFD, KFD and CFD) eta bere aldaerak (Variation, V: maximoa, minimoa, bariantza, desbideratze estandarra, bataztestekoa eta moda) seinale osorako eta ahoskatutako seinalerako: HVFD, KVFD, CVFD.
- EF+VFD+ET: EF, VFD eta Tenperatura Emozionala.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABADA



Irudia 6. 1: Errore Ratioaren Sailkatzea (%) EF eta Higuchi Dimentsio Fraktalaren algoritmoetarako, zenbait leihotamaina eta bi paradigmak: MLP eta k-NN.

Lan honen helburu nagusia bat-bateko hizketaren ezaugarri-bilaketa da, ebaluaketa aurreklinikoan AD-ren dignostikorako testak definitu ahal izateko. Ezaugarri horiek Kontrol Taldea (CR) eta AD-ren hiru mailek (ES, IS eta AS) definituko dituzte.


Bigarren helburua, kostu konputazionalaren optimizazioa izango litzateke ingurune errealetan erabilgarriak izan daitezen denbora errealeko aplikazioetarako. Sailkapen automatikoa hori kontuan hartuta moldatuko da eta bi paradigmengatik bidez balioetsiko dira emaitzak:

- Multigeruza Perzeptrona (Multi Layer Perceptron, MLP), geruza ezkutuko neurona-kopuruarekin (NNHL) = max (atributu-kopurua, klase-kopurua) eta Training Step (TS - Entrenatze-Urratsa) NNHL*10, MLPA500.
- k-Nearest Neighbors (k-NN, Ondoko Hurbilenak) paradigma

Hasierako fase honetan, Erantzun Emozionalaren analisi automatikorako k-NN eta MLP paradigmatarako erreferentziak lortzen dira. Zehazki CER %-tan eta FD gabe. Honakoak dira: MLP % 14.73 eta k-NN % 13.96 (ikus 6.3 irudia).

Hemendik aurrera, horiek izango dira erreferentzia-balioak. Bi algoritmoetako ezagutze-ratioak onak dira CR eta AS taldeetarako eta eskasak ESrako.

Sailkapen Errore Ratioaren (CER) eta Errore Metagarriaren (CE) bidez balioztatu dira emaitzak.



Irudia 6. 2: Sailkapen Errore Ratioa (%) klaseetan leihotamaina ertainerako (320 eta 640) eta bi paradigmak (MLP eta k-NN Dimentsio Fraktaleko Ezaugarri-multzoekin (VFD) hiru aukeratarako HVFD, KVFD eta CVFD.

6.2.2. Esperimentazioa

6.2.2.1 Leihotamaina aukeratzea

Fase horretan, EF eta HVFD ezaugarri-multzoak erabili dira. 6.1 irudiak Sailkapen Errore Ratioa %-tan erakusten du, klase guztieta rako (CR, ES, IS eta AS), HVFD, zenbait leihotamaina eta bi paradigmekin (MLP eta k-NN). Higuchi algoritmorako aztertutako leihotamaina honakoak dira: 160, 320, 640 eta 1280 puntu.

Dimentsioa Fraktala barne hartuta erreferentiazko emaitzekiko proposamen berri gehienek hobekuntza agertzen dute. CER minimoa MLP-rekin lortzen da. Tamaina ertaineko leihotamainak seinale-eboluzio globala eta lokala (320 eta 640) jasotzeko gai dira. Hortaz, leihotamaina horiek hurrengo esperimentuetan erabiliko dira.

6.2.2.2 Dimentsio Fraktalaren Analisia


Oraingoan Dimentso Fraktalaren ezaugarriak, paradigma-modelatzea eta leihotamaina aztertu dira.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA

6.2 irudiak CER (%) klaseen emaitzak erakusten ditu, tamaina ertaineko leihoekin (320 eta 640), bi paradigmekin (MLP eta k-NN) eta Dimentsio Fraktaleko hiru algoritmoetarako (HVFD, KVFD eta CVFD) ezagarri-multzoekin.

k-NN-ri dagokionez, emaitza orokor hoberenak Higuchi algoritmoarekin lortzen dira. Funtzionamendua okerragoa da Katz algoritmoa erabilita. Kasu guzietan, kostu konputazionala gutxiagotzen da paradigma horrekin (ikus 6.15 irudia).

MLP-ren emaitza orokorreai dagokienez, CER gutxiagotzen da kasu guzietan. Emaitzarik onenak MLP algoritmoarekin lortzen dira; alabaina, diagnostiko goiztiarrari begira, 640 puntuoko leihoa-tamaina eta HFD eta CFD aukera hobeak dira. k-NN paradigma dela eta, horiexek ere aukera hoberenen artean daude. Hortaz, 640ko leihoa-tamaina erabiliko da hemendik aurrera.



Irudia 6. 3: Sailkapen Errore Ratioa (%) II definitutako hiru Dimentsio Fraktaletako algoritmoetarako, bi paradigmak (MLP eta k-NN), Dimentzia Fraktaleko Ezagarri-multzoetarako (VFD) eta Temperatura Emozionalerako.

6.2.2.3 Temperatura Emozionala

6.3 irudiak hobekuntza (CER %-tan) erakusten du kasu gehienetan, ET barne hartzen denean. Batez ere bere MLP-rekin. MLP-k antzeko emaitzak lortzen ditu aukera guzietarako (CER = % 3.11).


Oro har, k-NN ez da MLP bezain egonkorra eta emaitza orokor hoberenak Higuchi-rako (CER = % 3.98) eta Katz-erako (CER = % 4.66) lortzen ditu. Gainera, k-NN-en kostu

konputazionala txikiena da kasu guzietarako (ikus 6.15 irudia) eta Dimentsio Fraktaleko ezaugarriak ES segmentuak egoki detektatzeko gai da, nahiz eta MLP-ren bidez lortutako emaitzak lortzeko gauza ez izan. k-NN-k emaitzarik hoherenak EF+HVFD+ET-rekin lortzen ditu (ikus 6.3 eta 6.4 irudiak).

Bestalde, MLP-k, denbora errealeko aplikazioetarako aukeratutako konfigurazioarekin, ratio egokiak ematen ditu kostu konputazionalari dagokionean. MLP-rekin, emaitza orokor hoherena ($CER = \% 3.11$) EF+CVFD+ET konbinazioa da gutxigatik bada ere.

Azkenik, 6.4 irudiak, klaseetarako lortutako emaitzak erakusten ditu Errore Metagarria (CE) %-tan oinarri hartuta. MLP paradigmak k-NN paradigma gainditzen du baina ez bere kostu konputazionalari dagokionez. k-NN-ri dagokionez, EF+HVFD+ET da konfiguraziorik hoherena. Edonola ere, MLP paradigma erabiltzen denean, EF+KVFD+ET eta EF+CVFD+ET-k emaitza hobeak dituzte EF+HVFD+ET-k baino. Azken bi multzo horiek dira emaitzarik hoherenak ematen dituztenak klase guzietarako.

Detekzio goiztiarrerako (ES) sailkapena oso ona da. IS klaseak maila ertaineko pazienteak hobeto bereizten ditu. Aldi berean, ezaugarri hori erabilgarria da, hizketa-segmentu patologiko eta ez-patologikoen artean diskriminatzeko gaixo bakoitzean.



Irudia 6. 4: Errore Metagarria (Cumulative Error, CE) klase guztieta rako (%), bi paradigmatarako eta 640 puntuoko leihotamainarako.

640 puntuoko leihotamainaren aukerak CE baxuena azaltzen du, eta hasiera batean, hobeto harrapatzen ditu seinalearen dinamikak Katz eta Castiglioni-ren Dimentsio Fraktalaren aldaerak kontuan hartuta. Zehaztasuna 96.89-koa da, +-3 konfiantza-tarteareekin. AD-ren hautemate goiztiarrari begira ezaugarri modelatu ez-lineala egokia da aldaketa sotilak detektatzeko.

Dimentsio Fraktalaren ezaugarriak sartzeak informazio garrantzitsua ematen du hizketa-seinaleetako ez-linealtasunari dagokionez, eta Erantzun Emozionala zuen aztertzen laguntzen du. Hori, diagnostiko goiztiarrari begira, lagungarri izan daiteke desberdintasun sotilak ezaugarritzeko, eta ondorioz, Erantzun Emozionalean aldaketak antzemateko. Badirudi, Emozio-Temperatura erreferentzia egokia dela Emozio-Erantzuna AD-n neurtzeko.

Ezaugarri horrek zenbait abanbaila ditu:

- Azkar eta erraz kalkulatu daiteke.
- Emozioa ezagutzeko sendotasun handikoa da.
- Segmentazio linguistikoarekiko independentea da, eta hortaz, denbora errealeko aplikazioetan eta ingurune errealetan ager daitezkeen arazoak ekidin daitezke. Areago, denbora errealerako bideratutako aplikazioak, 6.2.2-n proposatutako k-NN eta MLP konfigurazioekin, zehaztasun eta kostu konputazional egokiak lortzen dituzte.

ET bezalako ezaugarri berrien erabilerak sendotasuna ematen dio sistemari kostu konputazionala areagotu gabe. Agerian jarri behar da positibo faltsuen ehunekoa oso txikia dela. Nahaste horrek ahoskatze-egitean sor daitezkeen zalantzkin zerikusia izan dezake. Segmentu patologiko eta ez-patologikoen azterketa eta sailkapena garrantzitsua da gaitzaren eboluzioa monitorizatzeko garaian.

Osasun-espezialistek sistemaren gaitasuna azpimarrazten dute, aldi berean, biomarkatzaile independenteen azterketa aurrera eramateko, bat-bateko hizketa gisa edota zenbait biomarkatzaileen azterketa integral gisa.

6.3 Hizkuntzarekiko independentea den bat-bateko hizketaren analisia

6.3.1 Materialak eta metodoak

Jatorrizko datu-basetik oinarritutako hasierako esperimentu honetan, 20 AD gaixoen azpimultzo bat aukeratu zen (68-96 adinekoak, 12 emakumezko, 8 gizonezko), AD-ren hiru mailatan banatuta (ES = 4, IS = 10, AS = 6).

Pazienteek ingelesez, espainolez, euskaraz eta portugesez hitz egiten dute. Kontrol-taldea hizketa-erantzun zabalaren ordezkari izan daitezkeen 20 subjektuk osatzen dute (20-28 urte arteko 10 gizonezkok eta 10 emakumezkok). Aukeratutako hizkuntzak honakoak dira: inglesa, frantsesa, espainola, katalana, euskara, txinera eta arabiera.

Datu-base horren azpimultzoa AZTIAHORE deitzen da. Emaitzen berri ematen den hasierako esperimentuan, AZTITXIKI izeneko datu-basea (AZTIAHOREren azpimultzo bat) izan da oinarria.

Hasierako etapan, atariko esperimentazioa AZTITXIKI multzoan oinarritura burutu zen, AD sintomekin zerikusia duten bat-bateko hizketaren ezaugarri zuzenak aztertzen. Esperimentua, alde batetik, kontrol-taldea ezaugarritzen duten SS-n izaten diren aldaketak eta ezaugarriak antzemateko diseinatu zen. Bestetik, AD-ren maila desberdinako aldaketak eta ezaugarriak antzemateko diseinatu zen baita ere.

Kontrol-taldeko 5 kidek eta AD diagnostikatuta duten baina gaitzaren fase desberdinetan (ES = 1, SS = 2, AS = 2) dauden 5 erik osatzen dute taldea. AD diagnostikatutako pertsonak (2 emakumezko eta 3 gizonezko) adin nagusikoak dira guztiak.

Kontrol-taldeko kideak (2 emakumezko eta 3 gizonezko) tarteko adinekoak (M) edo adin nagusikoak (E) ziren.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Kostu konputazional apaleko aplikazioak garatu ahal izateko, ezaugarri-multzoak optimizatu behar dira. Lehen hurbilketan, hiru algoritmo erabiliko dira ezaugarri-hautatze automatikorako. Klase bakoitzari dagokion irabazia, ezaugarri edo atributu bakoitza eta haien arteko harremanak kontuan hartzeko, bereziki WEKA software-sortatik, ondoko hauek aukeratu ziren:

- SVMAttributeEval: Ezaugarri baten erabilgarritasuna balioesten du, SVM sailkatzailea erabilita. Ezaugarriak SVM-k esleitutako pisuaren ber bi-aren arabera sailkatzen dira. Multiklase arazoetarako ezaugarrien hautaketa, klase bakoitzerako eta bakarka, sailkapen-ezaugarriek gidatzen dituzte bat-versus-dena metodoa erabiliz eta, ondoren, pila bakoitzeko muturretik banatz azkeneko sailkapena ateratzen da (WEKA).
- CfsSubsetEval: Atributuen azpimultzo baten erabilgarritasuna ebaluatzen du, ezaugarri bakoitzaren bakarkako iragarpen-trebetasuna kontuan hartuta eta baita beren arteko erredundantzia-maila ere.
- GainRatioAttributeEval: Ezaugarri baten erabilgarritasuna balioztatzen du, irabaziak klasearekiko duen erlazioa neurten (WEKA).

Algoritmo horiek hasierako ezaugarri-multzoetan erabiliko dira ezaugarri-multzo txikiagoak eta egokiak aukeratzeko kostu konputazional apala dela kausa.

Esperimentazioan, hiru ezaugarri-multzoko taldeak erabiliko dira (ikus taula 6.2):

- SSF eta SSSF
- SSSF+FD
- SSSF+VFD eta SSSF+SVFD

Hiru talde horietatik bost multzo ateratzen dira, zeinak ondoko esperimentuetan erabiliko diren, 6.2 taulan ikus daitekeenez (ikus baita ere 6.1 taula lan honetan erabiltzen diren laburzapenen zerrenda osoa izateko).

Lan honen helburu nagusietakoa bat-bateko hizketan ezaugarri-bilaketa da, balioztatze aurreklinikora zuzendua AD-ren diagnostikorako testen definizioan laguntzeko. Ezaugarri horiek CR taldea eta AD-ren hiru mailek definituko dituzte.

Bigarren helburuetako bat kostu konputazionala kontrolatzea da, denbora errealeko aplikazioei zuzenduta baitago. Bi paradigmengatik bidez balioetsiko dira emaitzak:

- Multigeruza Perzeptrona (MLP), geruza ezkutuko neurona-kopuruarekin (NNHL) = max (atributu-kopurua, klase-kopurua) eta Training Step (TS - Entrenatzearraketa) NNHL*10, MLPA500.
- k-Nearest Neighbors (k-NN, Ondoko Hurbilenak) paradigma


WEKA software-sorta erabili izan da esperimentuetan. Emaitzak horiek direla bide balioztatu ziren: Sailkapen Errore Ratioa (CER), Zehaztasuna/Doitasuna (Acc) eta Errore

Metagarria [267][268][269]. Entrenatze- eta balioztatze-neurketetarako, k-geruzako balioztatze gurutzatua erabili zen $k = 10$ ekin.


Balioztatze gurutzatua errepikatuak (WEKA ingurunerako kalkulatuta dagoen bezala) oso estatistika-test zehatzak ahalbidetzen ditu. WEKAren “Coverage of cases” (Kasuen estaleremua, 0.95eko maila) delakoak automatikoki ematen duen aurrez zehaztutako balioa ere erabili dugu, eta Konfiantza-Tartea (CI, Confidence Interval) % 95, % 90 eta % 80 ehunekotan ezarri da.

Esperimentuan leihoa-tamaina egokia aukeratzea garrantzi handiko erabakia da. 6.9 irudiak azaltzen du leihoa-tamainaren eragin kualitatiboa esperimentuen emaitzetan. Oro har esanda, Dimentsio Fraktala sistemaren dinamikak atzemateko tresna bat da. Leihoa labur batekin, balioespena lokala da batik bat eta azkar egokitzen da uhin-formaren aldaketetara.

Leihoa luzeagoa bada, zenbait xehetasun galtzen dira baina Dimentsio Fraktalak hobeto aurreratzen ditu seinalearen ezaugarriak. Gainera, leihoa-tamaina kontuan hartzen duten tankerako balioespenetan, kasu batzuetan, leihoa luzeagoa erabilgarria izan daitekeela iradokitzen dute [177][179].




Irudia 6. 5: Bat-bateko hizketa-eboluzioa hizketa ehunekoarekiko denbora-ardatzean, ondoz ondoko segmentuetarako (S1:SN).




Irudia 6. 6: Hasierako esperimentazioaren ezaugarria ahostun eta ahoskabe segmentuaren (%) analisia ahoskabe segmentuaren luzerarekiko.

6.3.2 Hasierako esperimentua

Lehen proba-multzoa Bat-bateko hizketaren analisiaren (Automatic Spontaneous Speech Analysis, ASSA) esperimentuarekin osatu zen. AZTITXIKI multzoaz baliatuta honakoa ikus zitekeen: bat-bateko hizketan, AD dutenek agertu zuten ahostun ehuneko apalagoa eta ahoskabe ehuneko altuagoa (ikus 6.5) pertsona osasuntsuek baino. Horrek, hizketan, AD dutenen hitz-jarioaren galera nabarmena adierazten du. Azterketak erakusten du AD duten pertsonek ahostun segmentuen kopurua, luzera eta jarioa gutxiagotzeko joera dutela eta ahoskabe segmentuen luzera handiagotzen dutela (ikus 6.6 irudia).



Irudia 6. 7: Ahostun eta ahoskabe (%) AZTITXIKI multzorako. Tarte ahoskabeak handitu (%) eta tarte ahostunak gutxiagotzen (%) dira gaitzak ES-tik AS-era aldatzen doan heinean.




Irudia 6. 8: Hizketa Seinalearen zatiak epe Laburreko Energia eta Espektro Zentroidea, mediana iragazkiaren batez filtratuta, AD duen subjektu batentzat eta kontrol-subjektu batentzat.

Aldi berean, AD dutenen pertsonek beren bat-bateko hizketaren eboluzioan apalduz doan malda erakutsi zuten, eta apalduz doan malda hori oso nabarmena da luzera-segmentuekiko beren ahostun eta ahoskabe segmentuen azterketan. 6.7 irudiak agerian uzten du ahostun segmentu motzak eta ahoskabe segmentu luzeak erabiltzeko joera.


AD dutenen hizketa arina edo jariakorra da oso denbora-tarte motzetan bakarrik, eta 20 segundo baino luzeagoak diren segmentuak oso gutxitan agertzen dira beren bat-bateko hizketan.

6.8. irudiak erakusten du ondoz ondoko segmentuetarako (S1:SN), bat-bateko hizketaren eboluzioa hizketaren ehunekoarekiko denbora-ardatzean zehar. AD dutenek, denbora-ardatzean zehar, ahostun ehunekoa gutxiagotzen dutela ikus daiteke. Aldi berean, emaitzek agerian uzten dute Epe Laburreko Energia altuagoa kontrol-taldearen kideengan AD dutenengan baino eta Espektro Zentroide altuagoa AD dutenengan (ikus 6.8 Irudia).

6.3.3 Bat-bateko hizketaren analisia




Irudia 6. 9: Kontrol-pertsona baten analisia (CR). Adierazpen bat euskaraz, “..Belero bat..”: (a) hizketa-seinalea, (b) espektrograma , pitch (urdina) eta intentsitatea (horia), (c) Higuchi, (d) Castiglioni-ren dimentsio fraktala (HFD eta CFD).



Irudia 6. 10: AD duen pertsona baten analisia. Adierazpen bat espinolez, “No sé lo que es eso”: (a) hizketa-seinalea, (b) espektrograma pitch (urdina) eta intentsitatea (horia), (c) Higuchi eta (d) Castiglioni-ren dimentsio fraktala (HFD eta CFD).

6.3.3.1 Dimentsio fraktalaren analisia

Esperimentazioa AZTIAHORE datu-multzoaz baliatuta atera zen aurrera. Lehen etapen, 80 bat atributu sortu ziren deskribatu berri diren irizpideak kontuan hartuta: bat-bateko Hizketaren Analisi Automatikorako (ASSA) aukeratutako ezaugarriak eta dimentsio fraktalean oinarritutakoak.



Irudia 6. 11: Errore Ratioaren Sailkatzea (%) dimentsio fraktaletako algoritmoetarako, lau leihotamainetarako eta bi paradigmatarako: MLP eta KNN. Ref barrak dimentso fraktalen ezaugarriak erabili gabe lortu ziren.

6.3.3.2. Ezaugarri-hautatze automatikoa

4. kapituluan deskribatutako metodologia erabiliz burutu zen ezaugarri-hautatze automatikoa. Hiru dimentso fraktalen algoritmoetarako eta lau leihotamainetarako (160, 320, 640 eta 1280 puntu). Ezaugarri-multzoen 12 antzeko proposamen aztertu ziren. 50 ezaugarri aukeratu ziren jatorrizko multzoetatik. Hautatutako atributuak berdinak dira kasu guztiarako: ASSArekin zerikusia duten ezaugarriak eta dimentso fraktalean oinarritutakoak.


Azkenean, ezaugarri-familia hauek erabili ziren: SSF, SSFren hautaketa (SSSF), SSSF+FD, ezaugarri-multzo osoak (SSSF+VFD) eta hautatutako ezaugarriekiko multzoak (SSSF+SVFD). SSSF multzoak, % 5 batean gainditu egiten ditu gutxi gorabehera CER ratioak SSFren %-kiko (MLP, % 24.81 eta KNN, % 29.46).

Espezifikoki, erreferentziako CER emaitzak %-tan SSFrako, FD gabe, honako hauek dira: MLP, % 20.16 eta KNN, % 27.14 (ikus barra urdina 6.11. irudian). Ezagutze-ratioak bi algoritmoetarako optimoak dira CR taldeari dagokionez, baina oso kaxkarrak ES-ren kasuan. Hortaz, SSSF aukeratu zen ondoren deskribatuko diren esperimentuetan.

6.3.3.3 Sailkatze Automatikoaren ataza

Ondorengo etapan, 4. Kapituluan deskribatutako metodologia erabili zen. Sailkatze Automatikoa zen eginbeharra eta xedeak honakoak ziren: patologia neurologikorik gabeko hiztun osasuntsuak eta AD diagnostikatuta zuten hiztunak bereiztea.

Lau esperimentu-mota burutu ziren: leihotamaina hautatzea; ezaugarri-hautatzea; emaitza orokorrak aztertzea; klaseen emaitzak analizatzea.



Irudia 6.12: Errore Ratioaren Sailkatzea (%) II leihotamaina batzuetarako eta bi paradigmatarako: MLP eta KNN dimentsio fraktaleko multzoekin eta atributu-multzoekin, hautaketa egin eta gero (SVFD). REF barrik dimentso fraktaleko ezaugarriak erabili gabe lortu ziren.

6.11. irudiak erakusten du Errore Ratioaren Sailkatzea %-tan dimentso fraktaleko algoritmoetarako eta bi paradigmatarako: MLP eta KNN. Ataza honetan, zenbait leihotamaina aztertu ziren: 160, 320, 640 eta 1280 puntu.

6.11 irudiak agerian uzten du atributu-hautaketaren eragina dimentso fraktaleko algoritmoei, leihotamainari eta ezaugarri egiteari dagokienez. MLP-rekin, CER igotzen da %-tan eta kasu guztietan. KNN-ri dagokionez, emaitza orokor hoberenak Higuchi algoritmoarekin lortu ziren eta Castiglioni algoritmoa bakarrik erabilita emaitzak kaxkarragoak ziren. Kasu guztietan, kostu konputazionala nabarmen jaitsi zen KNN paradigmarekin (ikus 6.15 irudia).

6.12 irudian ikus daitekeen bezala, fase honetan, SSSF multzoa eta dimentso fraktaleko multzoak erabili ziren. CER minimoa MLP eta tamaina ertaineko leihoekin (320 eta 640) lortu zen. Bi leihotamaina horiek erabiliko dira ondorengoko esperimentuetan. Dimentso fraktala barne hartzen duten proposamen berri gehienek erreferentziazko metodoekiko hobekuntzak ekarri zituzten.

Hortaz, SSSF+SVFD multzoak erabili ziren ondorengoko esperimentuetan, behin ezaugarriak hautatze automatikoz aukeratu eta gero. Ikerketa horren emaitza orokorrak onak izan dira. Ezaugarri fraktal berrieik CER gutxiagotzen dute MLP-n, % 20.16-tik % 14.73-ra, eta KNN-n % 27.14-tik % 21.71-ra (ikus 6.12 irudia).

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA


Honek adierazten du dimentsio fraktala, horren aldaketa zehaztuak eta atributu-hautatze automatikoa barne hartzen dituzten multzoak seinale-ezaugarri ez-linealak egoki modelatzeko gai zirela. Bi esperimentuetan, kasuen estaleremua % 94-koa izan zen, gutxi gorabehera. Konfiantza-tartea +3 eta +5 dira % 80-tik gorako KNN-ei dagokienez.

6.12 irudiak kasu gehienetan izandako hobekuntza (CER %-tan) erakusten du SVFD barne hartzen denean, batez ere MLP-rako. Emaitzarik hoberenak Katz eta Castiglioniren MLP-rekin lortzen dira, leihotamaina 320 puntukoak direnean. Oro har, KNN ez da MLP bezain egonkorra. Areago, MLP-ren ratioak onak dira kostu konputazionalari begira (ikus 6.15 irudia).


KNN-ren kostu konputazionala apalena da kasu guzietan eta dimentsio fraktaleko ezaugarriekin gai da ES segmentuak detektatzeko, nahiz eta gai ez izan MLP-k lortutako emaitzak erdiesteko. Emaitza orokor hoberenak SSSF+KSVFD-rekin lortzen dira (% 14.73), MLP eta WS = 320 erabilita. KNN-ren emaitzarik hoberenak Higuchi algoritmoaren aldaerez (% 21.71) eta Katz-en dimentsio fraktalaz (% 24.81) erdiesten dira. MLP-ren emaitzetatik urrun (6.12 irudia).

6.13 irudiak emaitzak klaseen arabera (zehaztasuna %-tan) erakusten ditu. SSSF+KSVFD dira, beste behin ere, aukerarik onena. Multzo horrek lortzen ditu emaitzarik onenak klase guzietan eta, gainera, sailkatzea hobetzen du detekzio goiztiarrari begira (ES klasea). IS-ren kasuan, ratio hobea lortu genuen AD-ren erdiko maila identifikatzerakoan.

Bestalde, ezaugarria gai da eri bakoitzaren segmentu patologikoak eta ez-patologikoak diskriminatzeko. Azkenik, klaseen araberako errore metagarriak %-tan (CE) direla eta, 6.14 irudiak lortutako emaitzak erakusten ditu. W320 delako aukerak, zeinak CE baxuena duen, hobeto atzematen omen ditu seinalearen dinamikak Castiglioni-ren dimentsio fraktalaren aldaerekin. Kontuan hartu behar da positibo faltsuen ehuneko txikia dela, eta hori gerta daiteke adierazpenak egiterakoan izandako zalantzengatik. Kasuen estaleremua % 95-koa da sistema globalean. ES-ren eta beste fase batzuen arteko desberdintasunak ratioei dagokienean, eriak gaitzaren fasearekin zerikusia duten komunikazio-arazo zehatzengatik dira, 2. kapituluan adierazten den moduan (afasia, anomia). Areago, eriak ES edo AS fasean daudenean, adinarekin loturiko arazoak -ahots sinfonikoa, adibidez- ager daitezke aldi berean ere, adinak aldaketak sortzen baititu ahots-ekoizpenaren sistemaren. 6.3 taulak azkeneko sistemaren zehaztasuna (%) agertzen du, MLP eta KNN-rekin, CR eta ADetarako eta baita Konfiantza-Tartea % 95 eta % 90-erako.



Irudia 6. 13: Klaseetarako Zehaztasuna/Doitasuna. Klase desberdinetarako Zehaztasuna/Doitasuna MLP eta KNN-rekin: CR, ES, IS eta AS. REF barrik dimentsio fraktalen ezaugarriak erabili gabe eskuratu dira.




Irudia 6. 14: Errore Metagarria. Klaseetarako (CR, ES, IS eta AS) Errore Metagarria (%) MLP eta KNN-arentzat.

6.15a irudian proposatutako algoritmoaren kostu konputazionala aztertzen da: (a) eraikuntza-prozesuari eta ezaugarrien antzemateari dagokienez: KNN, MLPA500 eta MLP501000 (MLP, NNHL = 500 eta TS = 1000 dituelarik); eta (b) eraikuntza-prozesuari eta ezaugarrien antzemateari dagokienez: KNN eta MLPA500 ezarritako ezaugarriekin.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA

6.15a irudian ikus dezakegu, ezaugarria eraikitzean, KNN eta MLPA500-ek antzeko kostu konputazionala dutela eta ondoren MLP501000 dator. Sailkapenerako ezaugarriztatzeari dagokionez, aldiz, garbi ikus daiteke KNN-a hoberena dela. 16b irudia zehatz-mehatz aztertzen badugu, ezaugarria eraikitzeko eta sailkapena egiteko kostu konputazionala ikus daitezke, baina KNN eta MLPA500 ezaugarrieta rako eta ezaugarri-multzoetarako soilik. Nahiz eta KNN-a MLP-a baino hobea den, ezaugarrien hautaketa automatikoak kostu konputazionala asko gutxitzea ahalbidetzen du (MLP501000 baino lau aldiz gutxiago), eta batera ere, Sailkapenerako Errore Ratioaz (CER) ari bagara errendimendu hoberena ematen duen metodoa da.

Beraz, hautaketa automatikoa izango duen MLP-a aukera hoberena da CER txikiagoa duelako eta arrazoizko denbora konputazionala behar duelako antzemate prozesurako (10 segundu baino gutxiago). Egokia da denbora errealeko aplikazioetarako, (ikus 6.15 irudia).



Irudia 6. 15: Kostu konputazionala. (a) Eraikuntza-prozesu eta ezaugarrien antzematearekiko kostu konputazionala: KNN, MLPA500 eta MLP501000 (MLP, NNHL = 500 eta TS = 1000 dituelarik), b) Kostu konputazionala ereduaren eraikuntza eta ezagutza-prozesua kontuan hartuz: KNN eta MLPA500 taldeetarako ezaugarri-taldeekin.

Taula 6. 3: Accuracy (%) MLP eta KNN azken sisteman CR eta AD klaseetarako (SSSF+KSVFH eta WS = 320) eta Konfiantza tartea (Confidence Interval, CI), % 95 eta 90.

Klasea	KNN			MLP		
	Acc	CI (% 95)	CI (% 90)	Acc	CI (% 95)	CI (% 90)
CR	90.90	[84.09, 97.90]	[85.21, 96.79]	92.43	[86.85, 99.15]	[87.83, 98.16]
AD	87.30	[79.07, 95.52]	[80.39, 94.20]	90.9	[84.10, 98.03]	[85.06, 96.93]

6.3.4 Bat-bateko hizketaren azterketa integrala

6.3.4.1 Materialak eta metodoak

Emozio ezaugarriak eta temperatu emozionala ere gehituko dira esperimentu honetan bat-bateko hizketaren azterketa integrala egiteko. Aurkeztutako ezaugarriak oinarri hartuta, esperimentaziorako lau ezaugarri-talde sortu dira:

- SSF
- EF, aurrez deskribatutako taldea
- FD1: Higuchi Fractal Dimension (HFD).
- FD2: HFD, HFD maximoa, HFD minimoa, HFD bariantza eta HFD desbiazio estandarra.

Hizkera emozionalaren sailkapen automatikoaren oinarria Multi Layer Pertzepronean (MLP) datza. Horrek 100 neurona dituen ezkutuko geruza bat dauka eta 1000 entrenamendu-pauso. WEKA [195] softwarea erabili da esperimentuak egiteko. Emaitzak Doitasuna (Acc) eta Sailkapenerako Errore-Tasa (CER) erabiliz balioztatzen dira.

Entrenamendu-pauso eta balioesterako k-fold balioeste gurutzatua erabili da emaitza sendoak lortzeko. Ezaugarri horrek CR eta AD hiru mailak definituko dituzte. Gure esperimentuetan $k = 10$ erabiltzen da. Ezaugarri horrek Kontrol Taldea (CR) eta AD hiru mailen artean bereiziko dute.

Taula 6. 4: Accuracy (%), ezaugarri multzoekiko emaitza orokorrak.


Testa	Ezaugarri tadea	% Acc
Bat-bateko hizketaren jariakortasuna	SSF	75.19
	SSF+FD1	76.74
	SSF+FD2	86.07
Erantzun emozionala	EF	90.69
	EF+TE	97.67
INTEGRALA	SSF+EF	92.24
	SSF+FD2+EF	94.57
	SSF+FD2+EF+TE	94.57

Esperimentazioa AZTIAHORE azpitalteko orekatuarekin egin da. Esperimentu horien helburua bat-bateko hizketaren narriaduraren neurketa automatikoa, emozionerantzuna eta AD duten pertsonengen integrazioa egiteko aukeratutako ezaugarrien ahalmena aztertzea da. Beraz, aurretik definitutako ezaugarri-multzoak balioztatu dira Kontrol Taldeak eta AD mailak ondo definitzeko.


6.3.4.2 Sailkapen automatikoa

Lehen etapan, segmentu bakoitzerako tenperatura emozionala kalkulatzen da. Proba pilotuaz baliatuta ikerketa egiteko helburuaz, MLP sailkapen automatikoa azaldutako hizketaren ezaugarri-multzoekin burutu da: bat-bateko hizketaren jariakortasun automatikoan, emozio-erantzunean eta bien bilduma izango den hizketa integralean. 6.4 taulak proba aurrekliniko eta ezaugarri-multzoekiko doitasunaren (%) emaitza orokorrak laburbiltzen ditu.

- Lehen proban, zehazki, Hizketaren Bat-Bateko Jariakortasunarenenean, bakarrik SSF erabili da eta Dimentsio Fraktalaren (FD) bi multzoekin integratu da. FD-en ezaugarrien erabilera emaitzak hobetzen ditu. Sistemak, % 10-eko hobekuntza dauka, hainbat FD ezaugarri txertatuak dituen FD2 multzoarekin.
- Bigarren proban, Emozio-Erantzunaren proban, ET ezaugarria txertatzen denean lortzen da emaitzarik hoberena eta Acc-a balio optimotik hurbil dago.
- Bat-bateko hizketaldiko zein emozio-erantzuneko informazioa barne hartzen dituen proban, hots, INTEGRAL probari dagokionean, emaitzek ezaugarri ez-linealen hobekuntza erakusten dute eta emaitza hobeak ET barne hartzen denean.



Irudia 6. 16: INTEGRAL probarako doitasuna (%) klase eta dagozkien ezaugarri-multzoentzat.



Irudia 6. 17: Sailkapenerako Errore-Tasa Metagarria (%) azaldutako hiru probentzat eta dagozkien ezaugarri-multzoentzat.

6.16 irudiak, klaseetan, kontrol-talde (CR) eta AD hiru mailetarako (ES, IS eta AS) lortutako emaitzak erakusten ditu. Klase horietan lortutako emaitzek argi erakusten dute ezaugarri ez-linealen barne hartzeak, hots, FD2 multzoaren erabilerak, emaitza hoberenak lortzen dituela klase guztiatarako (kontuan hartuz parametro gehiago integratzeko direla). Multzo horrek ere antzemate goiztiarrerako sailkapenaren (ES klasea) emaitzak hobetzen ditu. IS-k ere tarteko AD diskriminatzeko tasa hobeak du. Ezaugarri hori pazientez paziente segmentu patologiko zein ez patologikoak diskriminatzeko gai da hiru pilotu probatan.

Sailkapenerako Errore-Tasa Metagarria (% CER) 6.17 irudian aztertzen da. Sailkapenerako Errore-Tasa Metagarria txikiagoa lortzen da ezaugarri ez-linealak txertatuak daramatzaten FD2 eta ET multzoekin. Hau aipagarria da diagnostiko goiztiarrerako, ES klaserako, emaitza hobeak eta sailkapen errore txikiagoa lortzen baita.

6.16 irudian, klase guztieta, Acc-arekiko (%) INTEGRAL probaren azterketa sakonagoa egiten da:

- Hizketa simpleen ezaugarrien emaitzak ikertzen direnean errendimendu optimoa ikus daiteke kontrol-talderako; sailkapen mistoa ordea AD mailetarako, bereziki IS eta ES-rako.
- Sistema orokorrak oso emaitza onak ditu FD2 txertatzen denean, Acc emaitzak IS tarteko etapan hobetzeaz gain ES tartean ere asko hobetzen baititu.
- Hirugarren esperimentuan, ET txertatzen da eta Acc-k oso emaitza onak lortzen ditu klase guztiatarako eta ES gainditzen du kontrol-subjektuen segmentuekiko nahastea desagertzen delako.

Kasu batzuetan, gertatzen den segmentuen arteko bukaerako nahastea gizabanako bereko segmentutan patologia-maila desberdinak agertzeagatik izan daiteke. Aukera hori etorkizuneko ikerlanetan miatuko da proba berrien bidez.

Azkenean, osasun-adituek emaitza horiek aztertu dituzte. Hala bat-bateko hizketa eta emozio-erantzuna bezalako biomarkatzalee independenteen azterketa nola hainbat biomarkatzaileren azterketa integrala egiteko sistemak duen gaitasunaren garrantzia behatzeko aukera izan dute.

Beraz, proba ez-inbasibo horiek oso lanabes erabilgarria izan daitezke mediku-espezialistentzat etorkizuneko diagnostiko goiztiarrerako proba klinikoetan.

6.4 Ataza anitzerako hurbilpen ez-lineala MCI-rako

6.4.1 Materialak eta metodoak

Dakigun bezala esperimentazioa burutzeko azpimultzo orekatuak erabilita egin da: PGA-OREKA, MINI-PGA eta AZTIAHORE. Bigarren esperimentazioko etapan, PGA-OREKA azpi datu-basearekin aritu gara batez ere disfluentzia aztertzeko.

Ezaugarri guztiak gure lantaldeak [270], Matlab-ek [166] eta Praat-ek [167] garatutako softwareren bidez kalkulatzen dira. Datu-basetik ateratako ezaugarri-kopurua 340ekoa da, 16.000 kHz-ko lagin-frekuentzia baterako. Ondoren, ezaugarri-hautaketa automatikoa egiten da. Procedura horrek bi urrats ditu:

- Hasteko, medikuntza- eta estatistika-informazioa kontuan hartuta, p balioa ateratzen da Matlab-en Mann-Whitney U proba ez-parametrikoa dela bide. Test hori eta gero, p balio 0.05eko eta p balio 0.1eko adierazgarritasun-maila duten ezaugarriak aukeratzen dira. P balio altuagoa atalase moduan erabiltzen da ezaugarri-multzo zabalago bat aukeratu ahal izateko bigarren urratserako. Ezaugarrien hautaketa automatikorako algoritmoak ezaugarri-multzo optimoa aukeratzeko erabiltzen dira, ezaugarrien integrazio-faktorea ere kontuan hartuta.
- Ondoren kontuan hartzen dira aurretik lortutako ezaugarriak, ezaugarri-hautaketa automatikorako algoritmoak direla bide. Datuetan oinarritutako ezaugarri-hautaketa burutzeak hiru oinarrizko abantaila ditu:
 - Gehiegizko doitza murriztea (datuen erredundantzia kentzea).
 - Zehaztasuna hobetzea, datu engainagarri (zarata) gutxiago izateari esker.
 - Kostu konputazionala txikiagotzea.

WEKAtik [195] hartutako bi algoritmo erabili dira ezaugarrien hautaketa eta optimizaziorako. Algoritmo horiek ezaugarri-azpimultzoen bilatze- eta balioztatze-metodoak aztertzen dituzte, eta aztertu egiten dute ezaugarri bakoitzaren eragina eta baita ezaugarrien arteko elkarrekintzaren eragina sailkapenari dagokionez:

- *CfsSubsetEval*: ezaugarrien azpimultzo baten balioa ebaluatzen du, ezaugarri bakoitzaren bakarkako iragarpen trebetasuna kontuan hartuta eta baita beren arteko erredundantzia maila ere.
- *GainRatioAttributeEval*: Klasearekiko duen irabazi erlazioa neurtuz ezaugarriaren balioa balioztatzen du.

Azkenik, sailkatze automatikoa egin da Multilayer Perceptron (MLP edo Multigeruza Perzeptrona) klasikoa eta Deep Learning (Ikasketa Sakona) erabilita Convolutional Neural Networks (CNN edo Neurona-sare konboluzionalak) direla bide. Sare horiek biologian oinarritutako MLP-en aldaerak dira. Kontuan hartu behar da entrenatzelaginen kopuruuen zenbatekoa txikia dela eta arazoaren konplexutasuna handia:

- AN ataza (CR/MCI): Deep Learning (Ikasketa Sakona) delakoaren ildoan Convolutional Neural Networks (CNN) erabili da: 40 ezaugarri-mapak, 5x5eko eremu-tamaina eta 2x2ko max-pooling-a.
- PD eta SS atazak (CR/AD): Multilayer Perceptron (MLP edo Multigeruza Perzeptrona). Ezaugarriak: Erabili genituen (ezaugarriak + klaseak)/2 neurona geruzan. 500 entrenatze-iterazio.

WEKA software sorta erabili dugu esperimentuak aurrera ateratzeko. Emaitzak Classification Accuracy Rate (Acc, % edo Sailkapenaren Doitasun Tasa) erabilita ebaluatu dira. Entrenatze- eta balioztatze-neurketetarako, k-fold cross-validation (k geruzako balidazio gurutzatua) erabili da k = 10ekin. Balioztatze gurutzatu errepikatuak (Weka inguruneko kalkulatuta dagoen bezala) oso estatistika test zehatzak ahalbidetzen ditu. Weka-ren Coverage of cases (0.95eko mailan) delakoak automatikoki ematen duen aurrez zehaztutako balioa ere erabili dugu, hau da, % 95-eko konfiantza-tartea.


6.4.2 Esperimentazioa

6.4.2.1 Ezaugarrien hautaketa automatikoa


Laginetatik ateratako ezaugarri-bektoreak 340 parametro ditu: 70 klasiko, 60 hautematekoak, 180 hautemate-ezaugarri aurreratuak eta 30 ezaugarri ez-linealak

Ezaugarri askotan desberdintasunak daude aipatutako 4 azpimultzoei dagokienez, baina desberdintasun horietako batzuek ataza-motarekin zerikusia dute.


6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIADA




Irudia 6. 18: Kaxa-diagrama hiru atazetarako: animaliak izendatzea (AN), irudien deskripzioa (PD) eta bat-bateko hizketa (SS). (a) FO desbideratze estandarra. (b) harmonizitatea. Irudiak ezaugarri klasiko batzuetarako analisia erakusten du. MCI eta AD dutenengan, F0-ren egongaitasuna garbia da eta harmonizitatea ere txikiagoa da. Bat-bateko hizketan altuagoa den FO desbideratze estandar horren desberdintasuna erabili zitekeen emoziozko erantzuna aztertzeko.



Irudia 6. 19: Kaxa-diagrama hiru atazetarako II: animaliak izendatzea (AN), irudien deskripzioa (PD) eta bat-bateko hizketa (SS). (a) Etenaldiaren iraupenaren batez bestekoa. (b) Ahoskatze-jardueraren batez bestekoa. Ezaugarri batzuek desberdintasunak agertzen dituzte etenaldiei eta ahoskatze-jarduerari dagokienez. Ezaugarri horiek hitz-jarioaren, prozesu kognitiboaren edota egoera emozionalaren adierazle izan daitezke.



Irudia 6. 20: Kaxa-diagrama hiru atazetarako III: animaliak izendatzea (AN), irudien deskripzioa (PD) eta bat-bateko hizketa (SS). (a) $\Delta\Delta$ MFCC18. (b) MS13ren batez bestekoa. Halaber, badira zenbait joera garbi beste zenbait ezaugarri-azpimultzotan, besteak beste, hautemate-ezaugarri klasikoak, hautemate-ezaugarri aurreratuak edo ez-linealak.



Irudia 6. 21: Ahoskabe segmentuen ezaugarri ez-linealak 640 lagineko leihorako batekin. (a) Animalien izendatzea (AN): Multieskaladun Permutazio-Entropiaren desbideratze estandarra (2 eskala). (b) Bat-bateko hizketaren ataza (SS): Castiglioni-ren Fraktalaren batez bestekoa. Halaber, badira zenbait joera garbi beste zenbait ezaugarri-azpimultzotan, besteak beste, hautemate-ezaugarri klasikoak, hautemate-ezaugarri aurreratuak edo ez-linealak.


Edonola ere, nahiz zenbait joera garbi egon ezaugarri askotan, desberdintasunak ere agertzen dira ataza bakoitzean lortutako p-balioan (atazareniko mendetasuna), ataza bakoitzaren nolakotasuna dela kausa: hizketa-konplexutasuna, adina, pertsonaren fasea eta ingurunea.

Hortaz, ezaugarri-hautaketa automatikoa ezinbestekoa da ataza bakoitzerako ezaugarririk hoherenak aukeratu ahal izateko. Bigarren urrats honetan, ezaugarri-kopurua murriztu egin dugu: % 50 animalien izendatzerako, % 50 irudien deskripziorako eta % 40 bat-bateko hizketarako.

Hori dela eta, hurrengo azpiatalean, metodologia automatikoa erabiliko da hala laginak sailkatzea.

6.4.2.2 Sailkatze automatikoa

Azkenik, Neural Networks (MLP eta CNN) direla bide, sailkatze automatikoa egin dugu aurrerago deskribatutako balidazio gurutzatuaren estrategian oinarrituta.




Irudia 6. 22: Hiru atazen doitasun-tasak (Classification Accuracy Rate - Acc, %): animalien izendatzea (AN), irudien deskripzioa (PD) eta bat-bateko hizketa (SS).

6.22 irudian ikus daiteke, emaitza global hoberenak askeena den hizketan lortu dira, bat-bateko hizketan (SS) alegia: % 95. Hori honako honen ondorio da bereziki: grabaziao ingurune lasai batean egitea, aldaketa kognitibo sotilak izatea seinalean hizketa irekiagoa dela kausa eta Alzheimer gaixoekin egitea, Nahasmendu Kognitibo Arina dutenekin egin beharrean.

Animaliak izendatzea (AN) delako atazean emaitzak txarrenak dira: % 73. Hori honako honen ondorio da bereziki: hizketa murriztuaren ataza errazagoa gerta dakiene MCI dutenei AD dutenei baino.

Irudien deskripzioa (PD) delako atazaren emaitzak baikorrak dira, % 89, nahiz eta eremu-tamaina txikia izan. Kontuan hartu behar da Alzheimer gaitza dutenekin egin dela eta ez Nahasmendu Kognitibo Arina dutenekin.



Irudia 6. 23: Hiru atazetan lortutako klase bakotzeko Accuracy-a (%). Emaitzak hiru atazentzat: animaliak izendatzeko jarioa (AN), irudien deskripzioaren ataza (PD) eta hizketa espontaneoaren ataza (SS).

Hortaz, klase desberdinenzat lortutako emaitzarik hoherenak bat-bateko hizketaren (SS) atazarekin lortu dira. Hori honako hauen ondorioa da: AD dutenen pazienteak erabiltea, MCI dutenak beharrean eta zalantza kognitibo sotilak detektatzea modu askean hitz egiten dutenean.

Animaliak izendatzearren (AN) atazak emaitza txarrenak lortu ditu MCI dutenak hizketa murriztuaren atazaren bidez aztertu dituztenean: entrenatze-eremu zabalagoa behar da kontrol-taldea (CR) eta nahasmendu kognitibo arina (MCI) dutenen arteko ezaugarriak bereizteko. Zenbait atazatan, MCI/CR seinaleak elkarrengandik hurbilago daude AD/CR artean baino.

Irudiak deskribatzeari (PD) buruzko atazari dagokionez, eremu-tamaina txikia bada ere, emaitzak onak dira: animaliak izendatzeari eta irudien deskripzioari buruzko atazen emaitzak etorkizun handikoak dira eta entrenatze-lagin gehiago beharko lukete.

6.5 MCI-ren detekzio goiztiarrerako aurrerapenak


6.5.1 Materialak eta metodoak

Narriadura Kognitibo Arinaren (MCI) detekzio goiztiarrerako aurrerapenetan hizketaren disfluentziaren azterketa automatikoa gehituko dugu. Sailkatzaile moduan ikasketa sakonaren azterketa egingo dugu baita ere CNN neurona-sareak gehituz esperimentazioari, MLP, KNN eta SVM-ekin batera.

CVF atazak AN-ren bidez neuroendekapenezko gaixotasunetako narriadura kognitiboa neurtu eta kuantifikatzen duen proba da [144]. Hizkeraren abileziak, memoria semantikoa eta funtziotako exekutiboak [271] balioztatzeko oso erabilia den proba da. Leginak 187 gizabanako osasuntsu eta CITA-Alzheimer [38][272] Fundazioaren Gipuzkoa-Alzheimer Egitasmoko (PGA) Multzokoak diren eta MCI duten 38 pertsonak osatzen dute. Esperimentaziorako PGA-OREKA azpitalde orekatua aukeratu da. Esperimentazioan erabilitako materialak gutxi gorabehera MCI taldeko 40 ahots lagin eta kontrol-taldeko (CR) 60 lagin izan dira.

Grabazioak automatikoki segmentatu dira ahots-seinale eta disfluentzietai. Ahots Jarduera Hautematerako (VAD) algoritmoa erabiliz. Sailkapen automatikorako 4 sailkatzaile erabili dira: k-NN, SVM, MLP eta CNN-ak. Emaitzak Sailkapenerako Erroreta-saia (CER, %) bidez balioztatu dira eta entrenamendu eta balioztapenerako $k = 10$ -ko balioztatzea gurutzatua erabili da.

22 KHz-ko laginketa maiztasunarekin lortutako ezaugarri-kopurua 920 da. CNN-ari sartu beharko geniokeen bektorea 920x1-ekoa izango litzateke iragazkirkirik jarriko ez bagenio. 920 ezaugarri horietatik batzuk hizketakoak eta besteak disfluentziakoak dira: 473 hizketarako eta 447 disfluentziarako.



Irudia 6. 24: Ezaugarri-bektorea. Iragazkitik pasa aurretik ezaugarri-bektoreek 920 ezaugarri biltzen ditu.


- Ezaugarrien normalizazioa eta hautaketa automatikoa: Ezaugarriak normalizatu ondoren, ezaugarrien hautaketa automatikoa egiten da $p < 0,1$ den Mann-Whitney-ren U-proba ez-parametrikaren bidez. Proba hori bi laginen arteko heterogeneotasuna balioztatzeko erabiltzen da. 920 ezaugarritik 150 ezaugarri adierazgarrienak aukeratzen dira proba honen bidez.
- Ezaugarrien bigarren hautaketa automatikoa: Bigarren iragazketa fasean ezaugarrien hautaketarako WEKA-ren SVMAttributeEval metodoa erabiltzen da, zeinak, 150 ezaugarrietatik 80 ezaugarri aukeratzen ditu. Bai hizketarako bai disfluentziarako mota guztiako ezaugarriak daude bukaerako sailkapen honetan. Nahiko bektore orekatua ateratzen da, eta zer esanik ez, bektore gordina baino aberastuagoa. Lehen ezaugarri-mapa dela ondoriozta daiteke.
- Sailkapena: Datu horiek Neurona-sare Konboluzionalari sartuko zaizkio entrena dadin. Behin entrenatuta, bere doitasuna balioztatuko da.

6.5.2 Esperimentazioa

6.25 irudiak klasekako (MCI eta CR) taldekatze automatikoaren bidezko emaitzak azaltzen ditu. Aipatutako sailkatzaile guztientzat Acc (%) erabiliz balioztatzen da.

Disfluentzia azterketa ikerketa prozesuan txertatzeko proposamenak aurreko esperimentuen emaitzak [38] hobetu ditu sailkatzaile ia guztientzat. Lortutako emaitzak itxaropentsuak, egonkorrauk eta orekatuak dira.

Gainera, CNN-en kasuan emaitza hoberenak 20 neuronaz osatutako 2 geruzen bidez lortzen dira. Konboluzioa 3×3 -koa eta pooling-a 2×2 -koa. Aukera horrek 2 geruza eta 100 neuronako MLP-ak baino emaitza hobeak lortzen ditu. MCI taldekatzerako emaitzak nabarmen hobetzen ditu sare konboluzionalak.



Irudia 6. 25: Acc (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako. k-Bizilagun Hurbilak (k-NN), Euskarri Bektoreen Makina (SVM), L geruza eta N neuronadun Geruza Anitzunadun Pertzeptroia (NN) eta Sare Neuronal Konboluzionalak (CNN).

6.6 Denbora errealerako sistema

6.6.1 Materialak eta metodoak

Hiru datu-baseak erabiliko dira esperimentazio honetan: AZTIAHORE, MINI-PGA eta PGA-OREKA.

Esperimentazioan ezaugarri-multzoa 50-5 tartean aztertuko da denbora erreala bideraturik. Ezaugarri hautaketa egingo da aurreko kapituluetan definituriko teknika automatikoen bidez; batez ere *SVMAttributeEval* (MATLAB, WEKA).

6.6.2 Esperimentazioa

Azken helburua denbora errealean lan egingo duen sistema mediku-laguntzailea garatzea da. Malgua, eraginkorra eta diseinua konfiguragarria izango duen ALZUMERIC

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA

sistema garatu da. Erabiltzaileak (osasun-espezialistak, laguntzaileak edo azken erabiltzaileak) sistema konfiguratuko du beharren arabera: ataza, segurtasuna, dohitasuna eta positibo faltsuen tasa zerorantz abiatzea. Sistemaren ezaugarri orokorrak automatikoki aukeratuko dira esperimentazio-prozesuan.


Konfigurazioaren hautaketa erabiliko den Helburu Funtzioaren (HF) bidez egingo da (6.26). Ondoko formularen bidez egingo da:

$$HF = w_1 * ACC - w_2 * FP - CR + w_2 * ROC - AREA - CR - w_2 * MT \quad (6.1)$$


Azkenik, hiru atazetarako (AN, PD eta SS), 50, 25, 10 eta 5 ezaugarrien azpimultzoak aztertuko dira ondoko sailkatzale automatiko eta konfigurazioetarako (ikus taula 6.5):

Taula 6. 5: Sailkatzaleen konfigurazioak. NNHLren balioa $a = \text{ezaugarri-kopurua+klaseak}/2$, konboluzioa (cxc), pooling(pxp), DI = Dropout Initial, DH = Dropout Hidden.

	NUM-L	cxc	pxp	DI	DH
k-NN					
SVM					
MLP1	a				
MLP2	a,a				
CNN1	a			0.2	0.5
CNN2	a			0.2	0.2
CNN3	a,a			0.2	0.5
CNN4	a,a			0.2	0.2
CNN5	a	2x2	2x2	0.2	0.5
CNN6	a	2x2	2x2	0.2	0.2
CNN7	a,a	2x2	2x2	0.2	0.5
CNN8	a,a	2x2	2x2	0.2	0.2



Irudia 6. 26: HF (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako (ikus 6.1 algoritmoa). k-Bizilagun Hurbilak (k-NN), Euskarri Bektoreen Makina (SVM), L geruza eta N neuronadun Geruza Anitzunadun Pertzeptroia (MLP) eta Sare Neuronal Konboluzionalak (CNN).



Irudia 6. 27: CER (%) aukeratutako klase eta sailkatzaileetarako. k-Bizilagun Hurbilak (k-NN), Euskarri Bektoreen Makina (SVM), L geruza eta N neuronadun Geruza Aniztunadun Pertzeptroia (MLP) eta Sare Neuronal Konboluzionalak (CNN). SS eta AN kasuetan Cross-validation k-fold = 10-ekin erabiliko da eta MINI-PGA atazarako Leave One Out (LOO) metodologia k-fold = 18-rekin.


Horrek hautaketa azkarra, naturala eta erreza egiten uzten ditu.

Irudietan hiru atazetarako emaitzak agertzen dira: CER-erako (6.27), Model Time-erako MT (6.28), Positibo Faltsuen kontrolerako FP-CR (6.29) eta Helburu Funtzioaren indizerako HF (6.26).

Aukeraturiko metodologiarekin emaitzak orokorrean oso onak dira eta aurreko ataletan lortutako emaitzak hiru atazetarako gainditzen dituzte. 20 ezaugarri-multzoekin emaitza onenak lortzen dira.

Indizeen arabera, SVM soluzio optimotzat har daiteke SS eta PD atazetarako biek % 100-eko igartzea lortzen baitute 25 ezaugarrirekin. AN-ri dagokionez, aukera onenak CNN eta SVM-atarako dira.


Kasu horietan, % 95 eta % 92 lortzen dira, besteak beste. Parametroetan ikusten denez disfluentziei buruzko ezaugarriak aztertzeagatik izan da. Ereduak, aurreko esperimentuetan kanpoan gelditzen ziren datu garrantzitsuenekin entrenatzen baitira. Esaterako, pertsona horiek duten barruko elkarrizketa.




Irudia 6. 28: Model Time MT (%) aukeratutako klase eta sailkatzaleetarako. k-Bizilagun Hurbilak (k-NN), Euskarri Bektoreen Makina (SVM), L geruza eta N neuronadun Geruza Aniztunadun Pertzeptroia (MLP) eta Sare Neuronal Konboluzionalak (CNN).

Izan ere, kasu guztietai CNN konplexuak degradatzen dira ezaugarrien multzoa oso txikia denean. Agerian gelditzen da aurretik egindako datuen aberasteak izugarri laguntzen duela sailkatzaleek egoki aztertu eta sailkatzeko.

Lortutako emaitzek erakusten dute AN ataza konplexuena dela differentziak bilatzeko. Gainera, PD-ren datuak konplexuak dira lagin oso txikia delako. Ordea, datu aberasteak eta LOOCV estrategiak egoki funtzionatzen dute.



Irudia 6. 29: FP-CR (%) aukeratutako klase eta sailkatzaleetarako. k-Bizilagun Hurbilak (k-NN), Euskarri Bektoreen Makina (SVM), L geruza eta N neuronadun Geruza Aniztunadun Pertzeptroia (MLP) eta Sare Neuronal Konboluzionalak (CNN).




Irudia 6. 30: CER (%) hiru atazentzat (SS, PD eta AN). Ondoko taulan k-NN, SVM, MLP eta CNN-entzat hiru atazetan lortutako emaitzak ikus daitezke.

6.30 irudian ikus daitekeen bezala, MCI-rako atazean (AN) emaitza oso onak lortu dira, batez ere 25 ezaugarrirekin balioztatuta eta SVM zein CNN1, CNN2 eta MLP2-rekin. Hobekuntza adierazgarri horiek ezaugarrien erauzketarekin zein horien aukeraketekin zerikusia izan dezakete. Kontuan hartu behar da disfluentzia segmentuetan dugun informazioa txertatzen ari gatzaizkiola algoritmoari. Aldi berean, garrantzitsua da erabilitako metodologia ezaugarriak aukeratzerako. Adierazgarrienak diren ezaugarriak txertatzeak informazio oso aberastua ematen dio algoritmoari. Thick Data-ren pisu espezifiko garrantzitsua da kasu honetan.

SVM-ek oso emaitza onak ematen ditu ataza guzietan, bereziki adierazgarria % 5 CER-a. Adierazgarria da ere CNN-ek lortzen dituzten emaitzak, batez ere, MCI aztertzerokoan kontuan izanik lagin gutxi daudela. Datu oso ezaugarrituak emateak asko laguntzen die eta % 8-ko CER-a duten emaitzak lortu dira CNN-ekin.

6.7 Erabilgarritasunaren ebaluaketa



Irudia 6. 31: Sistemaren balioztatzea


Sistema profil desberdineko pertsonekin erabili da eta ondoren sistemaren erabilgarritasunaren inguruko galderak egin zaizkie sistema balioztatzeko helbruarekin. Ingurune kliniko zein etxeko giroan probatu da.

6.31 irudian ikus daiteke sistema probatu duten pertsonen profila: supererabiltzailea, erabiltzaile teknikoa, azken erabiltzailea, osasun-espezialista eta laguntzailea. Sistema erabili ondoren, erabilgarritasuna ebaluatzenko galdera-sorta bat mahaigaineratu zaie 1 eta 5 puntu bitartean balora dezaten (1 puntu baxuena eta 5 altuena). Ondoren taldekako batez bestekoa atera da.

Ikus daitekeen bezala, orokorrean balorazioa ona den arren erabiltzailearen profilaren arabera ikuspuntua asko aldatzen da. Ezagutza teknikoak asko baldintzatu du erabiltzailearen ikuspegia.

Ebaluaketak erakutsi zuen interfazearen lehen bertsioak (5. kapitulua) batez ere erabilgarritasun eta irristagarritasunean hobekuntzak behar zituela. Hau dela eta, bigarren bertsioa garatu da 6.32 irudian ikus daitekeen bezala.

6. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABADA



Irudia 6. 32: Tipografia tamaina handitu eta interfazearekin elkar eragiteko botoiak guztiz aldatu dira erabiltzeko errazagoa eta intuitiboagoa izan dadin.

7. KAPITULUA: ONDORIOAK

7.1 Ondorioak

7.1.1 Ondorio orokorrak

1. Gaixoen hizketan garunaren dementzia-zeinuen nabaritasun zientifikoa badago. MCI-n eta AD-n lehen kaltetzen den gaitasunetako bat hitzeko komunikazioa denez, horren analisi automatikoa bahetze metodologia guztiz natural eta erabilgarria da, eta AN atazaren grabazio eta azterketaren bidez, galera kognitiboaren garapena neurtu, kuantifikatu eta balioztatu da. AD-ren hasierako prodromo-fasea detektatzeko balio izan du.
2. Diagnostikorako ez-inbasiboak diren teknika adimendu automatikoen erabilera oso baliagarria izan da dementzien hautemate goiztiarrerako; beraz, ondoriozta daiteke hizketa-analisi automatikoa oso tresna erabilgarria bilakatzen ari dela hautemate kognitiborako. Azterketa ez-inbasibo horiek gaitz kognitiboak hautemateko eta monitorizatzeko metodo lasai, natural, merke eta zehatza eskaintzen dute. Une honetan, diagnostiko goiztiarra ezinbestekoa da .
3. Metodologia eta tresna ez-inbasiboak hainbat eszenatokitan erabili daitezke, diagnostikorako, kontrolerako eta neuroerrehabilitaziorako.
4. Zenbait ataza/protokoloren bidez (estandarrak barne), hizketatik informazio oso garrantzitsua atera daiteke diagnostiko, neuroerrehabilitazio eta eboluzioaren jarraipena egin ahal izateko. Hori dela eta, neurketa-ataza egokien aukeraketa oinarri-oinarrizkoa da. Atazaren hizketa-konplexutasunak zerikusi zuzena dauka sistemak atera dezakeen informazioarekin. Berez, aldaketa sotilagoak neurtzeak hizketa espontaneoagoa izatea beharko luke prozesu kognitiboagoa sortu ahal izateko. Hizketa murritzaren atazek, ordea, oroimen-nahasmendua detektatzeko doitasun handia eskaintzen dute hitz-jarioa bezalako adierazle sendoak direla bide. Gainera, komunikatzeko ezinbestekoak diren elementuek, erantzun emozionalek adibidez, ez dituzte hizketa murritzaren atazak behar, behar bezala neurtuak izateko. Lan honetan, hizketa-konplexutasunaren maila desberdinak dituzten hiru ataza (AN, PD eta SS)

7. KAPITULUA: ONDORIOAK

aztertzen dira, eta ebaluazio sakonagoa egitera bultzatzen gaituzten etorkizun handiko emaitzak lortzen dira.

5. Hizketa-komunikazioaren analisi automatikoak oso screening-metodologia naturala eta erabilgarria ematen du, zeina pazienteen ingurunean aplikatu baitaiteke, teknikarien laguntzarik gabe: Hizketa Automatikoaren Analisia (Automatic Speech Analysis, ASA, ingelesez), Hizketa Ezagutze Automatikoa (IEA) (Automatic Speech Recognition, ASR, ingelesez) edota Emozio Erantzunaren Analisiak (Emotional Request Analysis, ERA) eta Fonazio Biomekanikoak.

6. AD-n jario- eta semantika-harremanak azterzeko tresna baliagarriak dira, baita emozio-erantzunak balioesteko ere. Metodo horiek Hizketa Automatikoaren Analisian eta/edo jarrera aldaketetan dute oinarria. AD detekzio goiztiarrerako etorkizun handiko diagnostikorako lanabesak dira, ez-inbasiboak, merkeak, erabiltzeko errazak, eskuragarriak eta hizkuntzatik independenteak direlako. Beraz, inguru erreal ia guztiatarako dira baliozkoak. Kostu gehigarri handirik gabe.

7. Hizketarekiko sasi-independenteak diren osagaien ikerketetatik oso informazio baliagarria ateratzen da. Narriadura Kognitibo Arina edo Mild Cognitive Impairment (MCI) prodromo-etapara bideratuta, hizkuntzarekiko sasi-independenteak diren hizketaren azterketa automatikorako antzemate goiztiarrerako teknika eta metodologiak garatu dira. Honeka baimenduko du proba mediku bera baliagarria izatea hizkuntza gehienetarako.

8. Ez hizketak soilik, isiluneek eta disfluentziek ere galera kognitiboari buruzko informazioa daukate bere baitan biomarkadore erraza eta naturala bihurtuz. Bereziki disfluentziaren azterketara bideratu dira. Emaitzak onak izateaz gain unibertsala den (edozein hizkuntzarako balio duen) teknologia garatu da. Beraz, disfluentziak oso elementu interesgarriak dira eta MCI ondo detektatzeko erabilgarriak izan daitezke. Bai ahots isiluneek zein disfluentziek oso informazio garrantzitsua dute ahoskatutako mezuaren esanahia deskodetzeko.

9. Erabilgarritasunaren estandarretan oinarria duten web-sistema integral merkearen garapena egiteak teknikarien lagunza gutxiagotzea ekartzen du.

10. Beste gaixotasun askok bezala, galera kognitiboak prebalentzia desberdina eduki dezake generoaren arabera. Lortutako emaitzak beste azterketa medikuen osagai bihurtzen da genero-desberdintasunak ere ikusi ahal izateko. Hormonen eragina ahotsaren aldaketan erraz ikus baitaitezke.

11. Heldutasunean galera kognitiboen inpaktuari aurre egiteko, zeinak epidemia bilakatzeko bidean dauden, diagnostiko goiztiarra eta zehatza lagungarria da inpaktu hori gutxiagotzeko hala eriengan nola senide eta gizartearengan ere, eta geroaldia behar bezala antolatzeko aukera emango du eraginkorragoak diren tratamenduekin. Horrek

ADren eta MCIren patologiek sortzen duten inpaktu ekonomiko negatiboa murrizten lagunduko du.

12. Erantzun emozionalen kuantifikazioak ere informazio garrantzitsua ematen digu gaitzaren prodromo-fasean. Askotan, lehenengo faseetan gaitza depresioarekin batera agertzen delako. Erantzun emozionalak eta honek ezagutza- eta komunikazio-defizit zein portaera-sintometan duen eraginak AD-ren prodromo-fasearen adierazle izan daiteke. Mezuaren apalagotzea somatzen da MCI duten pertsonengan eta gaitzaren lehen etapetan aurkitzen garenaren adierazle izan daiteke. Alzheimerdun gaixoengan, mintzamena ez ezik, erantzun emozionala ere kaltetu egiten da. Emozioak giza gogoaren arkitekturarekin zerikusia dituzten prozesu kognitiboak dira eta honako prozesu hauekin lotuta daude: erabakiak hartzea, oroimenaren kudeaketa edota arreta, zeinak hertsiki lotuta dauden komunikazioarekin, ikaste eta ulertzearakin.

13. Garaturiko tresna beste patologietan eta seinaletan ere erabil daitezke; bestekarriko beste, Parkinson edo Oinarrizko Dardara delakoetan.

14. Tresna baliagarria izango da diseinu unibertsalei jarraituz, eszenatoki desberdinetan eta erabiltzaile desberdinenzat erabilgarria izateko.

7.1.2 Ondorio zehatzak

1. Hiru ahots hiru datu-base berriak sortu dira AD/MCI era automatikoan aztertzeko. Horietako bi CITA-Alzheimer Fundazioak sortuta.

2. Bat-bateko hizketa irekiagoaz baliatuz lortu dira hizkuntzarekiko independenteak diren ezaugarriak eta baita AD/MCI oso goiz agertzen den seinalea aztertzeko bidea irekitzea. AD/MCI detektatzeko, emozioa aztertza era automatikoan lortu da ezaugarri linealak, ez-linealak eta Emozio-Temperaturaren bidez.

3. Ezaugarri linealak, ez-linealak (fraktalak eta entropia), perzepcioarekiko ezaugarriak eta ezaugarri aurreratuak aldaketa txikiak detektatzeko aztertu eta aplikatu dira. Bestalde, permutazio entropikoaren aldaera berria aztertu da, emaitza hobeak lortuz. Hain zuzen ere, Multieskaladun Permutazio Entropia pisatua.

4. MCIren diagnostikorako, eta bereziki disfluentziaren azterketarako proposatzen den modelatze berriak emaitzak hobetzen ditu MCIren diagnostikoan laguntzeko.

5. Hizkera eta disfluentziaren azterketa automatikorako proposamen berritzalea mahaigaineratzen da.

6. Ezaugarriak aukeratzeko metodologia automatiko misto berria erabili da proba estatistikoetan (irizpide medikuen baitan) eta automatikoan (ezaugarriak aukeratzeko metodo automatiko klasikoak).

- Ezaugarrien erauzketa (ezaugarri klasikoak, hautemate-ezaugarriak, Castiglioni-ren dimentsio fraktala edo Multieskaladun Permutazio Entropia) egiten da.
- Ezaugarrien hautaketa automatikoak (Mann-Whitney U-testak eta SVM balidazioak) ezaugarri eredugarrienen hautaketan oinarria duen eredu ez-lineal multifaktoriala aurkezten du.
- Proposatutako ezaugarri-bektorea Neurona-sare Konboluzionalak (CNN) barne hartzen ditu eta sailkapena egiten du.

7. Emaitzak oso onak dira, itxaropentsuak dira eta ikerketarako lerro berriak irekitzen dituzte.

8. Laguntzaileei eta pazienteei laguntzen die diagnostikoan, monitorizazioan eta neuroerrehabilitazioan.

9. Neurketa-ataza egokien aukeraketa, parametro egokienen hautaketa eta ML algoritmoaren aukeraketak berak eragin zuzena daukate bukaerako aurreikuspenean.

10. Protokolo berriak eta simpleak diseina daitezke ingurune eta lengoaia-mota guztiitarako non beste metodologiak eta tresnak fusiona daitezkeen; esaterako, idazkeraren azterketa automatikoa.

11. Sistema malgua behar da dauden protokoloei eta osasun-espezialisten diagnostikorako erabiltzen diren irizpideei aurre egiteko. Hori oso garrantzitsua izan daiteke fase goiztiarretan faltsu positiboak gutxitzeako eta persona osasuntsuak ez medikatzeko.

12. Sistema egokitzen da eszenatoki errealetan funzionatu ahal izateko eta kasu konplexuenetan ezaugarriak aberastearren metodoen bidez eta paradigma egoki eta sendoen bidez emaitza optimoak lortu dira eta kostu konputazionala nabarmen jaitsi da. Denbora errealera bideratutako sistema garatu da.

13. Protokolo bakoitzak sistemaren konfigurazio propioa eskatuko du, bai ezaugarrien aldetik bai atazaren aldetik, bai ereduaren aldetik ere.

14. Azkenik, CNNak tresna itxaropentsu bezala ageri dira aldaera eta sintoma oso arinak direnean MCI kasuan bezala. Gainera, Dropout-ak sistemaren eraginkortasuna eta kostu konputazionala jaistea lortzen du. Eredu horiek duten potentzia kasu zehatzetan erabili behar dira, eta beste paradigmak dituen onuraz eta kostu konputazionalaz baliatuta, emaitza optimoak lor ditzake.

15. Lortutako emaitzak hobetu eta onak izan diren arren, ikerketa-lerro berriak ireki dira. Prozesu osoan zehar justifikatuak dauden erabakiak hartu eta emaitzak hobetu dira. Lan-hipotesi berriak sortu dira.

16. Modelatze linealek zein ez-linealek ezaugari-bektorea asko aberasten dute. Mintzamenaren konplexutasuna oinarri hartuta, hizketa automatikoaren analisian funtsatutako multi-hurbilketa ez-lineala egin da. Horrela, jasotako laginarekiko adierazgarriak eta ordezkarriak diren bektoreak lortzen dira eta sareari sartuko diogun informazioa ezaugarritzea dela eta oso aberatsa izango da.
17. Inguru erreal eta konplexuetara bideratutako teknika eta metodologien garapenak emaitza onak lortu ditu. Garatutako modelatze-eredu berriak prozesua zerbait integraltzat hartzen du eta datuen gainean hasieratik egiten du lan, kasuistikaren konplexutasuna kontuan hartuta. Horrek sailkapen-emaitzak hobetzea ekarri du.
18. Parametro lineal, ez-lineal, entropia eta fraktaletan oinarritutako metodologia eta parametro bioinspiratuak ikertzeak inguru konplexuen edota zaratatsuen sendotasuna lortzen bideratuak dauden parametroetan sakontzea eraman gaitu.
19. Teknika mistoa aurrez aberastutako datuek Deep Learning sareei ezaugari-mapak egiteko lana errazten diente. Neurona-sareari datu aberastuak sartzean makinak hobeto ikasten du elementu zehatzak bilatzu.
20. Deep Learning-ek bere trebezia erakutsi badu datu-matrizeak ezaugarritzeko eta horiek konprimitzeko, sartzen diren datuak, gordinak izan ordez, ezaugari-mapak badira lortzen diren emaitzak hobeak dira. Horrek esan nahi du CNN-ra txertatuko den informazioa aberastua dela eta bektore parametrikoadirenak ezaugari-bektoreak balira bezala ulertuko dituela sareak. Ezaugarritze-lan handia egina ematen zaio sareari. Ikuspuntu guztiz berritzairen honek emaitza onak eman ditu.
21. Hala ere, ezaugarrien garrantzia eta datu aberatsen garrantzia ezinbesteko da eszenatoki konplexuetan eta datu konplexuetan. Ataza bakoitzak datu propioak ditu eta hori kontuan hartuta egokitzapen unibertsala eta malgutasuna bilatu da.
22. Kernelaren tamaina txikiak jatorrizko ezaugariak mantendu eta ikasketa-prozesua errazten du. Kontuan hartu behar dugu sareari txertatzen diogun matriza oso aberastua eta konprimitua dela (parametroen hautaketa fase baten emaitza da) eta ezaugariak oso definituak dituela. CNN-ak sortuko dituen ezaugari-mapa berrieik matrize aberastuaren “pixel”-en arteko harreman eta “korrelazioak” ezaugarritzeko gaitasuna dute. Beraz, sartzen dugun informazioa, konprimitua denez, sortuko diren ezaugari-mapa berrieik jatorrizko informazioaren nortasuna mantentzea interesatzen zaigu. Hori dela eta, konboluziorako kernela 2x2koa izango da emaitzak hobetzeko. Gainera, matrizearen tamaina txikia dela hartu behar dugu kontuan.
23. 2D-ko matrizeak kasu konplexuetan beste paradigmek baino emaitza hobeak ematen ditu askotan. 2D-ko matrizeetarako konboluzio kernelak ondoko pixelekiko duen muga azalera zabalagoa da 1D-ko bektorearekin konparatzen badugu. Hori horrela, mugakide gehiago izateak ezaugari gehiagoren arteko korrelazioa hobeto aurkitzeko gaitasuna eman dio sareari.

24. Pooling-aren urratsaren zabalera txikia izateak ezaugarri-bektore txikietara hobeto moldatzea dakar. Sarrerako matrizearen tamaina txikia izanik jatorrizko informazioaren nortasuna mantentzea interesatzen zaigu makinak xehetasunik ez galtzeko eta ikasketa-prozesua optimizatzeko. Gainera, ertzen kudeaketa erraztuko da. Horrek emaitzak hobetuko ditu.

25. Ikasketa sakonak orain arte erabilitako beste Machine Learning algoritmoen diagnostiko-emaitzak hobetzeko gaitasuna erakutsi du baldin eta datu aberatsak baditu. Konboluzio zein pooling teknikek eta neurona-sarearen sakontasunak (2 geruza baino gehiago) ahots bidezko fitxategietan zehar ezaugarriak aurkitzeko gaitasun handia erakutsi du eta beste algoritmoekin lortutako emaitzak hobetu ditu.

26. Sailkapen automatikoa egin da Multilayer Perceptron (MLP) eta neurona-sare konboluzionalak direla bide (CNN), eta bigarrenak lehenak baina emaitza hobeak lortu ditu zenbait kasutan eta Dropout erabiliz kostu konputazional egokiagoa.

7.1.3 Etorkizunerako Ierroak

1. Sistema horiek diagnostiko zehatzagoak lortuko ditu onurak ekarriz ez soilik ikuspuntu teknikotik baizik eta baita ikuspuntu sozioekonomikotik ere.

2. Metodo ez-inbasiboa etorkizunerako oso tresna erabilgarriak izango dira datu-iturri desberdinak, sentsore anitzeko irteerak eta eszenatokiak zabalduz.

3. Beraz, Big data vs Datu Konplexuak eta Thick Data etengabe agertuko dira Ingeniaritza Biomedikuaren eta beste zenbait arlotan. Patologia bakoitzak eszenatoki desberdina planteatzen du eta.

4. Data Mining, ikerkuntza operatiboa, Big data estrategiak eta ezaugarrien erauzketa automatikoa datuak aberasteko eta informazioa bilatzeko metodologiak ezinbestekoak izango dira hurrengo urteetan osasun arloan.

5. Sentsore fusioen teknikak aplikatuko dira seinale ez-inbasiboen Big data estrategietan.

6. Beraz, datu-base handiagoekin ebaluatuko da eta beste metodologiekin integratuko.

7. Genero-hurbilpenak ere aztertuko dira, kontuan izanda Ingeniaritza Biomedikuaren eta zehazki AD/MCIen prebalentzia desberdina agertzen dela generoren arabera.

8. Ditugun laginak gutxi dira eta horrek Alzumeric-en ikasketa-prozesua mugatu dezake. Hutsune hori saihesteko ezaugarriak laginketa denbora batez jaso ahal izatea proposatzen da. Hau da, bektore asko lortu lagin bakoitzetik. Horrela, datu-basea

handitzea lortuko dugu. Datuak gutxi izanik lagin bakoitzetik azpilaginak ateratzea proba daiteke datu-basea handitu eta CNN-aren entrenamenduan sakondu.

9. Bilatzen den emaitza hobetzeko helburuz geruza konboluzionalen parametroak eta sakontasuna doitzeko lan handia dago egiteko.

10. Emaitzak hobetu diren arren hobetu daitezke eta CNN-en konfigurazioak eta sakontasunak horretan lagun dezakete.

11. Multi-hurbilketa ez-linealak hautemate sakonago bat egitera akuilatzen duten etorkizun handiko emaitzak ematen ditu.

